1919 ARGIA 2019


Aktualitatearen

gakoak

2019ko abuztua · 9,95 €

G7 BIARRITZEN

Badatoz munduko sheriffa eta bere laguntzaileak



56 Beganismoa ingurumenaren mesedetan ala kaltetan?

80 Skolae: berdinzaletasuna lantzen, bizikidetza arazoak saihesteko

88 Bost ibilbide historiko udan egiteko



Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen kontsumoa sustatzen dugu

Hemengoa izatea ona da

EROSKI 50 URTE zurekin

www.eroski.es

Aktualitatearen

gakoak

2019ko abuztua

ARGIA

gakoak

Kultur gomendioak

06 / **Udako gomendioak**
ARGIA lantaldea

Elkarrizketa

64 / **Iñaki Lasagabaster**
“Estatutu berria autonomiaren aldarrikapena geldotzeko ekimena da”
Xabier Letona

Joerak

12 / **Euskal Hirigune Elkargoa: Flotagailua, krokodiloen lakuan**
Eneko Bidegain

14 / **Espainiako Estatuko instituzioak: Autoritarismoa eta erresistentzia**
Jule Goikoetxea

16 / **Katalunia independentziarantz: Goia eta behea**
Jesús Rodriguez

18 / **Ordu aldaketa: Zentzugabekeria arrazionaltasunez mozorrotzen denean**
Mikel Aramendi

Sakonean

20 / **G7: Munduko goi-bilera**
Dekadentziari distira atera nahian
Asier Blas

28 / **ARGIAk 100 urte**
Euskarazko kazetaritzaren ajeak eta eztabaidak
Estitxu Eizagirre Kerejeta

40 / **Moda industriaren alternatibak**
Josturak apurtu bestelako jantzigintza ehuntzeko
Amaia Lekunberri Ansola

48 / **Antiespezismoa**
Tradizioa besta ez denekoa
Edurne Elizondo

56 / **Animaliak hazi, hil eta jateaz**
Beganismoa ingurumenaren mesede ala kaltegarri?
Pello Zubiria Kamino

72 / **Seaskak 50 urte**
Euskarazko irakaskuntzaren aldeko 50 urteko borroka
Miel A. Elustondo

80 / **Skolae**
Hezkidetza, hezkuntza aldatzeko begirada hori
Saioa Alkaiza Guallar

88 / **Historia**
Bost ibilbide oroimenerako
Urko Apaolaza Avila

96 / **Nazioartea**
Hego eta Ertamerika disputan
Z. Oleaga

104 / **Literatura**
Hamar liburu-denda europar
Gorka Bereziartua Mitxelena

AKTUALITATEAREN GAKOAK 2019
KOORDINATZAILEAK: MIKEL ASURMENDI, JON TORNER ZABALA, LANDER ARBELAITZ MITXELENA
INPRIMAKETA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA **AZALA:** XABIER SAGASTA
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L., 2019 **ISBN:** 978-84-617-7936-9 **LEGE GORDAILUA:** SS-679-1984

DOAN ETA LIBRE: ARGIAREN EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO. GURE HELBURUA LANTZEN DITUGUN EDUKIAK AHALIK ETA GEHIEN ZABALTZEA DA.

ARGIA **Komunikazio Biziagoa S.A.L.** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabilioia 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa, Euskal Herria)

AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA



20 *G7: Munduko goi-bilera*

DANI BLANCO




12 *Joerak*

XABIER SAGASTA



56 *Animaliak hazi, hil eta jateaz*

ROSANNA MORRIS



Moda industriaren alternatibak 40

PAULA ESTÉVEZ



48 *Antiespezismoa*

ASKEKINTZA


AZOKAN SALGAI!
15€
AZOKA.ARGIA.EUS
BIDALKETA GASTUAK: + 4€
KAZETARITZA
EZ DA
DELITUA
ARGIA
Hizkuntz eskubide baten urraketaz informatzeagatik epaituak
#UtziArgiaBakean

Abiadura jaisteak garrantzia dauka,
egoera analizatzeari denbora eskaintzeak,
gauzak zalantzan jartzeak,
begirada altxatzeak.

Hedabide hegemonikoek
berehalakotasunak eramanak direla
diruditen garaiotan, momentuaren lilura
zalantzan jarri eta abuztuan
astekaririk argitaratuko ez dugunez,
irakurketa patxadatsuagoa eskainiz
agurtu nahi dugu ikasturtea.

Gure elkarrizketak, gure kezkak,
gure pentsamenduak enpresa handi eta
bankuenak diren hedabideek
ezarritako markoetatik ateratzen
laguntzeko aldizkaria duzu
2019ko Aktualitatearen Gakoak.

Goza ezazu ARGIA *egiten dugun*
guztion partetik. Irail arte!

LIBURUA

Gata Cattana, betierekoa



La escala de Mohs
EGILEA: Ana Sforza

Aguilar, 2019
120 orrialde

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

La Escala de Mohs (Mohsen eskala) olerki liburua eserialdi batean irensteko hainako grinaz eskuratu banuen ere, plazer iturri preziatuenak bezalaxe luzatu dut Ana Isabel García Llorenteren (1991-2017) poema-bilduma bakarra. Rapeatzaile modura erreferente bilakatua, ibilbide artistikoko une gorena ukitzetik pauso gutxira zegoenean zendu zen, esateko zuen guztia berarekin eramanaz. Hargatik, patxadaz entzun eta irakurtzeko legatu preziatu dira utzi dituen hiru diskoak eta olerki-liburu hau.

Gata Cattana (autorearen rapeatzaile izengoitia) eta *Ana Sforza* (olerkari izengoitia) biak aurkitu daitezke lan honetako lerro artean: konbinazio leherkaria osatuz, batera ageri dira lehenengoaren espiritu gerlaria eta bigarrenaren intimitatea gordinki adierazteko era; bataren erreferentzia mitologiko, historiko edo geopolitikoak, eta bestearen hitz konbinaketa eta erritmo zainduak. García Llorenteren jendarteari kritikek, aldarri feministek eta gauzen ordena iraultzera deiak irakurlea gogor kolpatzen jarraitzen dute orrion bitartez, autorearen ahotsa itzali ez den adierazle, *Gata Cattana*k gure artean jarraitzen duen seinale. Hala ziurtatzen du berak ere poemetako baten bitartez: "Horregatik etorri nintzen ni, eta horregatik etorri zinen zu nirekin, nahiz eta ez etorri. Munduari erakusteko egon daitekeela, egon gabe ere". Betierekoa *Gata*.

LIBURUA

Adi faxismoarekin



KARL POLANYI
EKONOMIAREN ANTROPOLOGOA
(1886-1964)

The Great Transformation
EGILEA: Karl Polanyi
BESTE ERDARETAN:
La gran transformación (es)
La Grande Transformation (fr)

Farrar & Rinehart, 1944
336 orrialde

XABIER LETONA

Munduan 2007tik gaurdaino bizi dugun krisi sistemikoa gainean dugula, beldurgarria da *The Great Trasformation* irakurtzea: gaur egun parekotasun gehiegi ematen dira 1929ko krisiaren aurreko Europarekin. Kapitalismoak zaldi zoroa dirudien honetan, liburuaren tesiak inoiz baino gaurkoagoa dirudi: merkatu ekonomiak pertsonaren eta bere ingurune naturalaren hondamendia dakar. Besteak beste, argi bezain ongi azaltzen du kapitalismoaren noraezaren aurrean sortu zela faxismoa, merkatu ekonomia bideratzeko, bidenabar pertsonaren eskubideak eta askatasuna birrinduz.

XVIII. mendeko Ingalaterran ematen den merkatu ekonomiaren sorrera eta garapena aztertzen ditu egileak. Gizarte modernoaren ardatz bihurturik, betikoa ematen du liberalismo ekonomikoak, baina ez, historiari begira, berria bezain suntsigarria dela erakusten digu 1944an idatzitako liburu honek. Eta suntsitze horren aurrean, gizarteak protekzionismoa sortzen du babes gisa –tartean ongizate estatua–, suntsitu-berregin etengabeko dinamika eraginez. Sozialismo kristauaren orbitan kokatzen dute Karl Polanyi eta lan hau kapitalismoaren barrenak marxista ez den ikuspegi batetik ezagutzeko aukera bikaina da.

LIBURUA

Nola kontatu gerra eta bortxaketak



Han ez banengo bezala

EGILEA: Slavenka Drakulic
ITZULTZAILEA: Amaia Apalauza Ollo

Pasazaite, 2018
211 orrialde

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Badago arrisku bat iraganeko gatazkei gaur egungo betaurrekoekin begiratzen diegunean: pertsona bakoitzak ditugu gure filiak eta fobiak; eta horietatik abiatuta, beldurgarriki erraza da nola osa dezakezun zintzoen eta gaiztoen kontakizun lau bat, ñabardura handirik gabekoa, baina, hori bai, datuekin kontrastatua.

Beste mota bateko egiak aurkituko ditu irakurleak Slavenka Drakulic idazle kroaziarraren *Han ez banengo bezala* eleberrian. Egia literarioak nolabait, fikzioaren bidez Jugoslaviako gerraren hesteetaraino eramango gaituztenak, presoentzako eremu batean protagonistak jasaten duena kontatuz.

Idazlearen eskua ez zait nolanahikoa iruditzen obra honetan: hirugarren pertsonako narratzaile baten bidez, pertsonaiaren intimitatea eta hura inguratzen duen izugarrikeria aparteko moduan agertzen zaizkigu. Esaldi laburrak, halako distantzia bat, ez indiferentziazkoa, baizik eta sufrimendua kontagarri egiteko beharrezkoa. "Han ez balego bezala" jokatzea erabakitzen baitu protagonistak, soldadu serbiarren etengabeko bortxaketen aurrean bizirik iraun ahal izateko estrategia gisa.

Gerrako testigantza eskaintzeaz harago –hori prentsak ere egin baitezake–, liburu honek giza kondizioari buruzko ikasgai bat baino gehiago daukala iruditzen zait.

PELIKULA

Emakume baten filma, gizonen Europaz



Western

ZUZENDARIA: Valeska Grisebach
AKTOREAK: Meinhard Neumann, Reinhardt Wetrek, Waldemar Zang, Detlef Schaich

Alemania-Bulgaria-Austria, 2017
119 minutu

ENERITZ ARZALLUS

Europan ere badira cowboyak, indioak, legedi propioa duten herriak, zaldi zuriak, antiheroi bakartiak, zibilizatuak, basatiak, kolonizatzaileak eta kolonizatuak; finean, westernak.

Etxe askotan bakeroen pelikula diren horiek iraultzera dator Valeska Grisebachen *Western* filma, baina zinema genero honen elementu guztiei eutsita. Anthony Mannen pelikula batean iraganeko arketipo bezala agertzen direnak, egungo pertsonaietan eta Europako testuinguru sozioekonomikoan ezin hobeto gorpuzten ditu zuzendari alemaniarrak.

AEBetako desertu zaharretatik Bulgaria eta Greziaren arteko mendi berdeetara. Herrixka galdu batera datoz langile alemaniarrak, urtegi hidroelektriko bat eraikitzera, eta elkarbizitza horretako korapiloek osatzen dute narrazioa.

Motela, errealista, intimoa, gordina, zenbaitek aspergarria dela ere esango du, agian. Nik neuk, azken eszena ikusteagatik soilik ikusiko nuke berriro. Hori bai, hasieratik amaierara.

KOMIKIA

El Salvadorreko iraultzailea



Migel Marmolen hamaika eta bat jaiotzak

EGILEA: Dani Fano
ITZULTZAILEA: Koldo Izagirre

Astiberri, 2018
208 orrialde

JON TORNER ZABALA

Migel Marmolen lehen jaiotza 1905eko uztailak 4 zituela gertatu zen, baina gertatuko ziren berriak. Hamaika eta bat. El Salvadorreko Alderdi Komunistaren sortzaile eta buruzagietako bat izana, 1932ko indigenen altxamenduan parte hartu zuen Miguelitok. Hainbatetan saiatu ziren hura hiltzen, fusilatu ere egin zuten, baina beti alferrik. Haren bizitza XX. mendeko El Salvadorren historiaren parte da.

Zortzi urteko lanaren fruitu da Dani Fanoren komiki mardul hau. Eduardo Galeanoren testuek piztu zuten txinparta, eta Roque Daltonen liburu batek segida eman. El Salvadorren bertan borobildu zuen Fanok liburua, Hitzaren eta Irudiaren Museoko arduradunekin elkarlanean. Baita dotoreziaz borobildu ere. Erritmo bizian egiten du aurrera kontakizunak, testuinguruaz jabetzeko beharrezko datu historikoekin, eleberri poliziako baten osagaiak tartekatuz. Bizitasunak testuei ere zor die. Gaztelaniazko bertsioan elkarrizketak El Salvadorreko hizkeran idatziak daude eta, euskarazkoan ere, Koldo Izagirrek ukitu berezia eman die; komikira ederto egokitzen den erregistroa erabili du. Neurrira egokitzen diren bezala arkatzez marrazturiko Fanoren irudiak. Oso adierazkorrak dira pertsonaiak, eta ederrak oihan eta herrietako paisaiak.

LIBURUA

Bertso saio batera joango bazara, irakurri beharrekoa



Kontrako eztarritik

EGILEA: Uxue Alberdi Estibaritz
Susa (Lisipe bilduma), 2019
184 orrialde

ESTITXU EIZAGIRRE

Uxue Alberdik egun plazaz plaza dabiltzan hamabost bertsolari elkarrizketatu ditu: 1977an jaiotakoa da helduena, 1996an jaiotakoa gazteena. Emakume hauen testigantzak 22 puntutan irakurriko ditugu ordenatuta. 22 puntu hauek bertsolaritzan errepikatzen diren 22 patroi dira, emakumeen bertsolaritza azpiratzeko erabiltzen direnak.

Liburu hau ekarpen handia iruditu zait, izena jarri dielako botere harremanetan eragiten duten aldagaiei, alegia, kartak mahai gainean jarri dituelako. Bertsozale modura, sentitu dut deskodetzeko tresna eder bat eman digula, hurrengo saiora goazenean, bertan eragiten ari diren indar anitzak ikusi ahal izateko.

Euskal herritar modura, emakume bertsolarien borroka zein puntutan dagoen ikusteko argazki bat iruditu zait. Horretarako 21.a egin zait puntu errebelatzailea, "feminista identitatea: indarra eta kuestionamendua" deiturikoa. Emakume bertsolariek zapalkuntzen kontzientzia hartua dute, bide kolektiboa egiten ari dira, eta horrek bertsolaritzan aldaketak dakartzan honetan, gizonezko hainbaten erreakzioa jasotzen ari dira, bide kolektiboa desakreditatuz eta emakume bertsolari norbanakoei abentura feministetan ez nahasteko aholkatuz.

22. puntua irakurrita pentsa liteke ez dagoela atzera bueltarik. Zapalkuntza sistemak emakume bertsolaria azpian mantendu du juxtu berari zehazki leku hori zegokiola sinetsaraziz. Orain bertsolari kontzientzia hartu dute askok, eta Ez da kasualitatea saioetan metatutako esperientziari esker, iritsi dira ondorioztatzera bertsotan "ongi" edo "gaizki" (hitz xinple horiekin aitortzen edo desakreditatzen dira bertsolariak) egiteko zein egoera zaizkion bakoitzari determinanteak. Plaza neutroa den mitoa ipurdi-bistan jartzen du. Liburu honen 22. puntua irakurtzen ari nintzela entzun dut "KLAXK!", zerbait pitzatzen. Kristalezko sabaia ote? Gizonek azken mendeetan eraikitako bertsolaritza sistema izan al da?

LIBURUA

Liburu gordin bat irentsi nahi?



Izenbururik gabe
EGILEA: Yahya Hassan
ITZULTZAILEA: Juan Mari Mendizabal

Denonartean, 2017
232 orrialde

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Barrenak husteko idatzia, estraineko lan honekin aho bete hortz utzi du publikoa Hassan daniarrak. Errefuxiatu palestinarren semea, aita erasotzailea etxean, Mendebaldeko gizarte batean marginalitatetik gertu bizitzea zer den transmititu du raparen antz handia duten poemaz poema. Aarhus hiriko gueto musulman batean, etxean jasandakoak, eskola porrotak, arrazismoak eta txirotasunak delinkuentziara nola eraman zuten kontatu du. Aitari dion gorrotoa, egin zituen lapurretak, poliziarekin izandako arazoak, batari eta besteari sartutako ziriak eta espetxeko egonaldiak. Guztia etorkizuna oso ilun ikusten duen gazte baten bihotzetik idatzia. Guztia letra larriz, ezohiko liburua da hau. Hainbeste, Hassan bera fenomeno literario bilakatu duela bere ezusterako. 19 urterekin argitaratutako liburu gordin honen 100.000 aletik gora saldu ditu. Juan Mari Mendizabalek bikain euskaratua.

LIBURUA

Euskal Herria izateko eta bere jendea ulertzeko modu bat



Movimiento de resistencia II
Años 80 en Euskal Herria
EGILEA: Jakue Pascual

Txalaparta, 2019
397 orrialde

MIKEL ASURMENDI

Espainolez bizi ginen, espainiera batuaz. Ez da kontu gutxiesgarria, ezta Jakue Pascualen liburua ere, erdaraz idatzia izanagatik. Aitzitik. Izenburu luzeak ederki agertzen du bere izana. Areago bada ere tituluan: *"Radios libres, fanzines y okupaciones"*.

Euskal errepubliketako piratak oroit ditu egileak, eta Bilbo Zaharreko Gaztetxea bereziki gogoan. Pascualek baditu bidelagunak, mugimendua ibiliz egiten baita. Juan Ibarrondok honela dio: "Liburuak naizen bezala izaten lagundu dit, garena izaten". Deus idealizatu gabe, dio bidaideak. Iñaki Garciak berriz: "Bizitza errebeldia da, menperatzen gaituztenen aurkako esperientzia". Horretaz ari da liburua, hala dio gogaideak. Iñaki Garmendia piratak, aldiz: "Liburu hau irekitzea denboran barrena bidaiatzea da". Arriskuan dago gakoa. Halatsu ulertu dut neronek.

Euskal Herriko 80ko urtealdia duzu irakurgai. Pascualek apalki dioenez, hamarkada baten kontestualizatze lan laburra da. Euskal Herriaren modernizazio amaiera.

Egilearen ideiei atxikiz, 90eko urteez gero hasi zen gauzatzen egungo garaia. Edonola den ere, egungoa interpretatzeko, baitezpadakoa zaigu iragan hura endelegatzea. Euskal Herria izateko eta bere jendea ulertzeko liburu egokia begitandu zait. Horratx liburutzar honen gaineko nire taxua. Tzarra, ez txarra, liburu mardula. Garai hura legez.

TELESAILA

Utikan konplexuak



Special

ZUZENDARIAK: Ryan O'Connell, Anna Dokoza
AKTOREAK: Ryan O'Connell, Jessica Hecht, Julie Cude-Eaton, Samantha Lee

AEB, 2019
Denboraldi bat, 8 kapitulu

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Game of thrones ahalguztidunaren aroan, izan da ekoizpen xumerik telesailen munduan: garun-paralisi arina duen gazte gay baten benetako bizitza fikziora ekartzen duen Special da horietako bat. hamabost minutu eskaseko zortzi kapituluk osatzen dute lehenengo denboraldia eta hasperen batean ikusten dira, bi orduko filma bailitzan. Ryan O'Connell da sortzaile, zuzendari eta aktore nagusia, eta bere esperientzia pantailaratu du, baina sinopsia irakurrita bestelakorik dirudien arren, ez da istorio dramatikoa. Tonu ironikoa eta mingotsa dosi orekatuetan banatuz, amaren etxea utzi eta behingoz bere kabuz bizi nahi duen gaztearen nondik norakoak kontatzen dizkigu. Ez didaktiko, ez moralista, are gehiago, batzuetan fribolo samar, gogoetarako gai mamitsuak utzi dizkigu, aniztasun funtzionalaz, laguntasunaz, gorputz kanonez, maitatzeaz (baita norbere burua ere), estereotipoez, "atsegin dut" errazak bilatzen dituen egungo kazetaritzaz, zaintzaz... eta ama-semearen arteko –bi norabideko– menpekotasun harreman konplikatuaz. Aipatzekoa da Netflixek eman duela *Special*. Banatzaile handi eta gutxi batzuen esku dago, gero eta gehiago, telesail eta filmen produkzioa, baina beste artikulu baterako gaia da hori.

LIBURUA

Bizirik irauteko borrokatu



Mari-mutil handi baten bluesa

EGILEA: Leslie Feinberg
ITZULTZAILEA: Fermin Zabaltza

Katakrak, 2018
472 orrialde

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Jess Goldberg fikziozko pertsonaia da, baina nekeza da eleberria asmatutako kontakizun moduan irakurtzea; errealegia baita. 1960-70 hamarkadatan kokatuta, AEBetako New Yorkekoa da Goldberg. Gure pertsonaia mari-mutila da, lesbiana, transgeneroa. Bere buruari etengabe galdetuko dio emakumea ala gizona den. Fabrikako langilea ere bada. Asmatutako pertsonaia hezur-haragizko irudikatzea oso erraza da, garai bateko bazterreko gorputzen bizi nahiaren erretratu zehatza baita.

Goldbergek lotsa, ikara eta mina pairatuko ditu bere haragitan. Ez da beldurraren beldurrez zimurtuko ordea, borrokari eutsiko dio taldean, identitate ez normatiboek bat egingo dute bizirik jarraitzeko. Indarkeria handiko giroa azaltzen du Feinberg egileak, transfobia, homofobia, arrazakeria eta klase borroka gurutzatzen dira. Gaur bizi dugunetik ez dago oso urrun.

PELIKULA

Mendiaren hego aurpegia



Pumori, mendiaren alaba

ZUZENDARIA: Iban Gonzalez
EKOIZLEAK: Baleuko, ETB

Euskal Herria, 2019
64 minutu

URKO APAOLAZA AVILA

2001ean euskal mendizaletasunean gertaturiko tragedia batetik abiatuta, munduko gailur handienak dauden lurretako herritarren sufrimendu eta esperantza ere erakusten digu *Pumori, mendiaren alaba* dokumentalak, himalaismoan askotan ezkutuan geratzen den hego aurpegia.

Pumori mendian (7.161) elur jausi baten ondorioz hildako bost euskaldunetako baten gurasoek, Arantxa Gurrutxaga eta Peio Arruek, Nepalera joko dute urtebete geroago, semea hil zen tokira hurbildu eta berarekin azken argazkia atera zuen neskatoa ezagutzeko asmoz. Hor hasten da Suku Maya eta familia euskaldunaren arteko harremana.

Hildako mendizaleei omenaldia egiteaz gain, lan honetan ikusleak ezagutuko ditu herrialde txiki hartako jendeen bizi baldintzak eta giza duintasuna, Suku Mayaren aurpegi beltzaran eta irribarrearen bidez.

Dokumentala Baleukok ekoitzi du, Alex Txikon mendizalearekin elkarlanean eta ETBk babestuta. Euskal Herriko areto askotatik igaro da eta sarreretatik irabazitakoa Suku Maya laguntzeko izango da, Iñaki Ochoa de Olza-SOS Himalaya fundazioaren bidez.

LIBURUA

Elkano ipuinetatik at



Elkano, itsasoak emandako bizitza

EGILEA: Gari Berasaluze

Txalaparta, 2008
172 orrialde

AXIER LOPEZ

Joan Sebastian Elkano datozen hiru urteetan aspertu arte entzungo dugun izenetako bat izango da. Orain bost mende Espainiako Inperioaren zerbitzura itsasoan aritutako mertzenario getariarra Espainiako eta Euskal Erdiko enbaxadore bilakatzera doaz Espainiako eta EAEko instituzioen bultzadari esker.

Herri baten –edo biren?– ordezkari bat ezin da gerra, indarkeria, arpilatzea eta kolonizazioarekin lotuta agertu, eta horretarako Elkanoren irudi idealizatu, garbi eta heroikoa eraiki eta zabaltzeari ekin diote. Historiari testuingurua kenduz, ipuin bilakatuta. Horregatik da interesgarria Gari Berasaluze getariar zarauztartuak 2008an idatzitako liburu hau. Epika interesatutik aldenduta, Elkanoren inguruan dauden iturri historiko nagusietatik edanda, Getariako itsas-gizonari buruzko biografia da, euskaraz dagoen bakarra. Dani Fanoren ilustrazioek lagunduta, oso erraz irakurtzen dena.

Euskal Hirigune Elkargoa

Flotagailua, krokodiloen lakuan

Ipar Euskal Herriko politikaren analista Eneko Bidegainek Euskal Hirigune Elkargoaren "Hizkuntza eta kultura politika" zalantzan jarri du artikuluan. Mondragon Unibertsitateko irakasleak zorrotz kritikatu du instituzio berriaren arlo horretako betebeharra.

ENEKO BIDEGAIN XABIER SAGASTA

Euskal Hirigune Elkargoak "Hizkuntza eta kultura politikak" eskumena hartu du. Eta horrela azaltzen du eskumen hori, bere webgunean: "Euskara, gaskoiera eta Euskal Herriko kulturak ditugu geure lurraldearen nortasunaren oinarria".

Baionako suprefeta eta Frantziako Gobernua, beharbada, ez dira ohartu zer dioen esaldi horrek, ohartu balira, ez luketelako onartuko. "Geure lurraldearen nortasunaren oinarri" horretan ez da ageri frantsesa. Hots, esaldi horrek dio frantsesa ez dela Euskal Herriko nortasunaren oinarria. Esaldi horrek egia dio, frantsesa azken hamarkadetan indarrez sartu den hizkuntza delako, eta horrek eraldatu dituelako Ipar Euskal Herriko kultura eta orain indarrean dagoen nortasuna. Baina hori ere ez du erraten Euskal Elkargoak, ez du aipatzen euskara eta euskal kultura zapalduak, gutxietsiak eta ahulduak direla. Euskara ez da arrisku larritik atera eta garatu behar den hizkuntza bat, baizik eta kontuan hartu behar den "berezitasun" bat.

Adierazgarria da, halaber, euskara eta gaskoia maila berean agertzea aitortza horretan. Gaskoia, Angelun, Baionan eta Bidaxunen errotuta egon den hizkuntza (okzitanieraren dialektoa) da, gaur egun galbidean dagoena. Ez da Ipar Euskal Herriko berezko hizkuntza. Gaskoiaren aldeko neurriak hartzea badagokio Euskal Elkargoari, dudarik gabe. Baina bi hizkuntzak maila berean jartzeak badu anitz euskararen garrantzia eta lurraldearen euskal izaera ukatzeko borondatetik. Ez da kasualitatea horren eskaera euskararen aurkari sutsu Guy Mondorge Angeluko hautetsiak egin izana, honek eta honen ingurukoek beti erabili baitute gaskoiaren argudioa euskararen kontra –eta ez gaskoiaren alde egiteko–.

Euskal Elkargoak ez du botererik euskarak behar lukeen zinezko politika bat indarrean jarri ahal izateko. Legeak ez dio baimenik ematen. Beraz, 'borondatea' aipatu dute, zerbitzuak euskaraz eta gaskoiez eskaintzeari dagokionez

Euskal Elkargoak ez du botererik euskarak behar lukeen zinezko politika bat indarrean jarri ahal izateko. Legeak ez dio baimenik ematen. Beraz, "borondatea" aipatu dute, zerbitzuak euskaraz eta gaskoiez eskaintzeari dagokionez. Borondate horren lehen emaitzak ikus daitezke elkargoaren webgunean eta etxe guztietara igortzen duten aldizkarian: webguneko eduki anitz ez daude euskaraz, eta aldizkarian euskararen lekua guztiz sinbolikoa da. Bileretako aktak ez dira euskaratuko "denbora gehiegi" hartzen duelako, Jean-Rene Etxegarai Euskal Elkargoko lehendakariaren hitzetan. Bat-bateko itzulpenak ere aurkariak dauzka, batzuek diotelako "Frantzian" daudela, eta hori ezin dela egin. Gisa berean, legeak galarazten die lanpostuen deialdietan euskara baldintza gisa jartzea. Euskal Elkargoak murgiltze eredua "esperimentazio" gisa erabiltzearen alde egin du, eta Frantziako Gobernutik etorri berri da horren kontrako erabakia.

Frantziako Konstituzioaren itzal beltza dago beti gainean. Euskara onartzeko prozesuan ere, mila itzuli egin behar izan dituzte, formulazio egokia aurkitzeko: "Euskal Hirigune Elkargoak euskara eta gaskoia (okzitaniera) bere lurraldearen hizkuntza bezala ezagutzen ditu ofizialki frantsesaren ondoan". Horrek ez dio izaera ofizialik ematen euskarari, eta, beraz, ez die eskubiderik bermatzen euskarari eta euskaldunei. Krokodiloz betetako aintzira baten erdian preso dagoen taldeak urteak pasa ditu zubi bat edo itsasontzi sendo bat eskatzen, handik ateratzeko. Azkenean flotagailuak eman dizkiete. Ea nola salbatzen diren krokodilo horien artetik…

Euskal Elkargotik mirari gutxi etor liteke, aginterik ez daukalako. Sinbolikoki, Ipar Euskal Herriaren lurralde ezagupen bat da; egia da. Ezagupen hori bazegoen lehen ere, Garapen Kontseiluarekin, Hautetsien Kontseiluarekin, Auzapezen Biltzarrarekin edo Ipar Euskal Herriko Udalen



arteko sindikatuarekin. Euskal Elkargoak kudeaketa indar gehiago dauka, baina biziki urrun gelditzen da Hego Euskal Herriko erakundeen eskumen, egituraketa eta aurrekontu mailetatik. Ez da autonomia bat, ez da eskualde administratibo bat, ez da departamendu bat... Mankomunitate handi bat besterik ez da, herri elkargo erraldoi bat, lehen zeudenen fusioetatik sortutakoa. Herri elkargoen eskumenak dauzka. Halaber, 90eko hamarkadan eskatzen ziren eskumenen zerrendak liburuxka bat betetzen zuen; Euskal Elkargoak dauzkanak orri batean sartzen dira. Gainera, mugaz beteta dagoen hizkuntzarena salbu, eskumen horiek ez dira euskal nortasunaren egituratzaileak.

Krokodiloz betetako aintzira baten erdian preso dagoen taldeak urteak pasa ditu zubi bat edo itsasontzi sendo bat eskatzen, handik ateratzeko. Azkenean flotagailuak eman dizkiete. Ea nola salbatzen diren krokodilo horien artetik

Hizkuntzaren aldeko jarrera, EAEko eta Nafarroa Garaiko erakundeekiko harremana eta Ipar Euskal Herriko mapari onarpen legal bat ematea aitortu dakioke Euskal Elkargoari. Zer edo zer etor liteke hortik? Porroska batzuk bai. Hil ala biziko egoeran dagoen hizkuntza eta herri nortasun bat salbatzeko adina? Ez.

Orain, galdera da ea oraingo Euskal Elkargoak bilakaerarik izanen duen, nolakoa eta zenbat urte behar izanen dituen horretarako. Ikusirik politikan eta administrazioan aldaketak zein erritmotan egiten diren eta zein den Ipar Euskal Herriko herri kontzientziaren eta euskararen egoera, ea herri hau ez den porroska horiekin itsuturik, goseak hiltzen. ●

Autoritarismoa eta erresistentzia

Europako eta Espainiako Estatuko instituzio nagusiak osatu dira iragan hilabeteetan, baita foru eta udal erakundeak ere. Jule Goikoetxea filosofo politikoak eta irakasleak aztertu du azken hauteskundeen ondorengo erakundetze prozesua.

JULE GOIKOETXEA XABIER SAGASTA

Espainiako Estatuaren azken hauteskundeetan eskuin muturra lehen aldiz kongresuan sartu dela ez da egia. Zein uste duzue dela ba elite ekonomiko finantzarioaren ideologia? Elite horrek 80ko hamarkadatik darama gobernatzen. Existentzia ez da hedabideetan ikusgarri denaren sinonimo, galdetu bestela ikusgaitzak diren gizarte sektore horiei guztiei: desjabetuak, manteroak, Sanfraneko neskame arrazializatuak, astero bortxaketak pairatzen dituzten etxeko langileak, ikasketak ordaindu ezin dituzten ikasleak.

Horiek ez dira agertzen hedabideetan, antolatzen ez diren arte, eta antolatzen direnean, orduan, ultra-eskuina ikusgarri(ago) bilakatzen da. Fenomeno sozial ororen kausak anitzak dira, beti, eta kasu honetan, gizarte oro denez misoginoa, arrazista eta kontserbadorea, zumitz berdinez eginiko neoliberalismo patriarkal eta kolonialak erraz eraman dezake hori guztia muturrera sortzen duen pobrezia, prekarietatea eta desegonkortasun sistemikoaren bidez. Orain dela gutxi Norvegian egindako ikerketa batean hipotesi hau berretsi da: Europa iparraldean faxismoaren zabaltzea ez da migratzaile kopurua handitu denean eman, ezpada prekarietatea irmotzen hasi denean. Espainiako Estatuan berdin: prekarietate masiboarekin zabaldu dira ultrak, nahiz eta eskumak eta faxistak migranteei, feministei eta independentistei egotzi errua. Neoliberalismo patriarkalaren zabalkundearekin pobrezia eta ziurgabetasuna zabaldu egiten dira, nekropolitika global honek migrazio masiboak sortzen ditu, eta miseria eragiten duten eliteen jatorrizko herrialdeetan populazioa haserretzen da, baita ere: feministak antolatzen dira, pentsionistak, garbitzaileak eta etxeko langileak asaldatzen dira, gorputz arrazializatu eta sexualizatuak erantzuten dute, independentismoaren aldeko nahia eta hori lortzeko presa handitu egiten da, kaosa eta desobedientzia pasarteak tartekatzen dira (krisiak, *shock* doktrina), leialtasun politikoak hautsi egiten dira eta alderdibitasunean oinarritutako alderdi-sistemak, Espainiaren kasuan bezala, apurtu egiten dira, zatiketa soziala bideratzeko ezgaitasunak gobernaezintasuna dakarrelarik.

C's eta PSOEren arteko ikusezintasuna azalekoa dela uste dut, baina azala gorputzeko organo bat da, eta IBEX35aren esku daude egun espainiar organo ia guztiak. Laburbilduz, Sánchezek legealdi osoa irauten badu ere, oso higatua amaituko du

Gobernagarritasun eza egiturazkoa denez, bi gauza gerta daitezke. Lehena, PSOE gutxiengoan gobernatzen saiatuko da, akordio puntualak eginez alderdi ezberdinekin. Bigarrena, alderdiren batekin, birekin edo hirurekin, egonkortasun akordio bat egitea. Nahiz eta posible den legealdi osoa gutxiengoan edo gobernu akordio batekin igarotzea, ez diot bide luzerik ikusten. Egia da ere alderdi txikiak (Navarra Suma, Coalición Canaria, eta abar.) laguntza emateko prest agertu direla, baina ez da nahikoa.

EAJren kasuan, hiru gai jarri dituzte negoziazio mahaian, Maiatzaren 26ko hauteskundeak eta gero: Eusko Jaurlaritzaren gobernabidea, Sanchezen inbestidura eta Nafarroa. Arazoa da EAJk PSOEren behar handiagoa duela, PSOEk EAJrena baino. Horrek EAJren eragiteko maila mugatzen du. EAEn akordioetara ailegatuko direla ziur naiz, azken 35 urteetan –gerra tarteko– halaxe egin baitute. Nafarroakoa estatu afera da, eta PSOEk 155.eko blokea du etxetzat, beraz, ez dirudi oso urrun iritsiko direnik, batez ere PSEk Podemos, ERC edo C's behar dituelako estatuan. Podemos litzateke egonkorrena, baina ez litzateke nahikoa eta M26a eta gero, aukera hori zaildu egin da. ERCk ez dirudi kudeaketa zehatz baten ordez babesa emango dionik, eskakizun politikoak baitaude mahai gainean: preso politikoak eta erreferenduma. PSOE ez da hortik pasako. Azkenik, C's eta PSOEren arteko ikusezintasuna azalekoa dela uste dut, baina azala gorputzeko organo bat da, eta IBEX35aren esku daude egun



espainiar organo ia guztiak. Laburbilduz, Sánchezek legealdi osoa irauten badu ere, oso higatua amaituko du.

Hala ere, (ultra) eskumak irabazi izan balu, duten barne zatiketa kontuan hartuta, ez lukete legealdi bat iraungo, ezta ere. Horregatik da gobernagarritasun eza egiturazkoa. Gauza bat hauteskundeak irabaztea baita eta beste bat estatua gobernatzeko behar diren baldintzak lortzea. PSOEk gainera errebotez irabazi ditu hauteskunde espainiarrak, faxismoa eteteko. Hori gutxi ez balitz, nazio gutxituetan espero baino jende gehiagok nazio ikuspegiarekin bozkatu du, ardatz gatazkatsu horrek hor diraue-la ikusaraziz. Nazio gutxituetan ematen den nazio identitatea politikoa baldin bada, ez folklorikoa –Bilboko EAJrena bezalakoa–, neoliberalismoaren oztopo bilaka daiteke. Ez da kasualitatea PSOE-

Kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismoa desagertzen ez diren bitartean, izan faxismo europarraren formatuan, izan Silicon Valleyren ordo-liberalismo digitalaren forman edo neocon anglo-amerikanoen eran, haren kontrako erresistentziak aurrera jarraituko duela argi geratu da azken urtean

rekin gobernuan aritzeko, Ibex 35ek, C's nahiago izatea ERC baino; EAJ Podemos baino. Espainiaren batasuna mantentzea espainiar elite ekonomiko eta politikoaren biziraupenaren baldintza oinarrizkoena baita, eta elite horretan PSOEko, PPko, C'seko, EAJko eta Voxeko jendea dago. Beste batzuen artean.

XX. mendeko faxismoa eta ultra-eskuina kapitalismo arrazista eta misogino zehatz baten altzoan sortu zen. Ez dakigu zer-nolakoa izango den XXI. mendeko autoritarismoa baina pozgarria den gauza bakarra zera da: kapitalismoa, patriarkatua eta kolonialismoa desagertzen ez diren bitartean, izan faxismo europarraren formatuan, izan Silicon Valleyren ordo-liberalismo digitalaren forman edo neocon anglo-amerikanoen eran, haren kontrako erresistentziak aurrera jarraituko duela argi geratu da azken urtean. ●

Goia eta behea

*La Directa*ko kazetari Jesús Rodríguezek azaldu du 2017ko urriaren 1ean behetik gora egin zuen borborrak 2020ko hauteskunde autonomikoetan goitik ixteko arriskua duela. Erreferenduma deitzeagatik jasotako kartzela zigorren aurrean emango den erantzuna gakoa izango da.

JESÚS RODRÍGUEZ XABIER SAGASTA

2017ko urriaren 1az geroztik Katalunia goia eta behearen arteko sokatiran dabil. Urriaren 10ean Carles Puigdemontek Kataluniako Legebiltzarrean Independentzia Aldarrikapena eten zuenean, urriaren 27an Generalitateko bandera espainiarra altxatzea agindu ez zuenean edo urriaren 30ean erbesterako bideari ekin zionean, bere erabakietan bi beldur ziren. Ezagunena eta haizatutakoa izan zen Espainiako Estatuak 155a inposatzeari eginiko edozein erresistentziaren kontra aurreikusia zuen errepresio basatiari zion beldurra, baina bigarren beldur bat, gutxiago aitortutakoa, behekoei zien. Mundu konbergenteak antzinatik die mesfidantza gizarte mugimenduei, sare informal eta autoantolatuei, sortu berri ziren Errepublikaren Defentsarako Komiteei (CDRei).

Geroztik, etengabekoa izan da eliteen boterearen eta herri boterearen arteko hikamika. Gizartea sakon eraldatzeko aukera ematen duen leiho bat da Errepublika berri honetan ontziratzea, baina betikoek itxi egin nahi dute leiho hori. Preso politikoak iragan ekainean Kataluniako kartzeletatik Madrilgo Soto del Real eta Alcalá Mecora lekualdatu zituztenean, hainbat ekimenek mahai gainean jarri zuten beharrezkoa zela zentro penitentziario eta errepideak blokeatzea, munduari erresistentzia mezu bat bidaltzeko. Kartzelaratutako gehienak –Jordi Cuixart salbu– deialdi horietatik desmarkatu ziren eta normaltasuna eskatu zuten Guardia Zibilak azken xehetasuneraino planifikatu zuen lekualdatzeen aurrean. Edo horrela komunikatu eta aholkatu zuten behintzat, beren abokatu Francesc Homs, Xavier Melero eta Jordi Pinak, zeinak beti izan diren sektorerik kontserbadoreenen ingurukoak, Kataluniako klase ertain eta goikoak. Hori guztia justifikatu zen Espainiako Auzitegi Goreneko epaiketa irabazi behar zela eta posible zela adieraziz, eta ordena publikoko edozein gorabehera torpedo bat izango zela defentsaren estrategiarentzat. Denborak eta gertakariek tesi hori urtu dute pixkanaka, azukre kozkorra lez.

Hautetsontziak jartzeagatik jasotako kartzela zigorren aurrean eragile politiko eta sozial nagusiek emango duten erantzunak, desobedientziaren jokaleku berri batera eramango gaitu edo bestela berretsiko du genoflexioaren bidea hautatu dela

Otsaila hasieran Estatuko Fiskal Nagusiak eskatu zitzakeen zigor baxuetan jarri ziren espektatiba onberak. Politikari eta kazetariek Espainiako erreinuko hiriburuko pasilloetan lortutako informazioek seinalatzen zuten posible zela autodeterminazio erreferenduma deitzeagatik eskatutako kartzela zigorra bi urtetara murriztea. Pablo Iglesiasen inguruak ideia hori indartu zuen, baina espainiar errealitate sakonak eraitsi egin zuen: Oriol Junquerasentzat 25 urteko kartzela zigorra, 17 urtekoa Cuixart, Sánchez eta Forcadellentzat eta 16 urtekoa 155ak lepoa moztu zion Generalitateko gobernu legitimoko gainerako kideentzat. Orduan esan zen hobe zela ondorioen faseari itxarotea, dena ezberdin izango zela, are gehiago Pedro Sánchezek aise irabazi baitzituen apirilaren 28ko hauteskundeak. Baina ezta ere. Ekainaren 4an Javier Zaragoza fiskalak beltza zuriaren gainean jarriz berretsi zituen matxinada delitua eta horri lotutako zigor gogor eta aldaezinak. Giroa gehiago gaiztotzeko, zigorraren erdia bete arte

hirugarren gradua ez emateko eskaera gehitu zuen: burdin artera, kalerik ikusi gabe, 8 eta 12 urte artean. Noiz arte iraungo du makilaz eta gozokiaz egiten den kontentzio politika horrek?

Sententzia, duda barik, inflexio puntua izango da. Eta hautetsontziak jartzeagatik jasotako kartzela zigorren aurrean eragile politiko eta sozial nagusiek emango duten erantzunak, desobedientziaren jokaleku berri batera eramango gaitu edo bestela berretsiko du genoflexioaren bidea hautatu dela, zeina esaldi honekin laburbildu dezakegun: zenbat eta gehiago jotzen gintuzten orduan eta gehiago obeditzen genuen, eta zenbat eta gehiago obeditu orduan eta gehiago jotzen gintuzten.

ERCren egungo zuzendaritza eta PDeCAT dagoeneko bidea egiten ari dira 2020ko otsailerako hauteskunde autonomikoak deitzeko. Puigdemont erbestean eta Quim Torra konbergenteen zuzendaritzaren babesik gabe, Artur Mas jokalarien aulkitxoan beroketak egiten ari da



Lehen aukerari lotuta, Jordi Cuixart, Carles Puigdemont, Anna Gabriel edo Alvaro Dante-Fachínek esana dute azken hilabeteetan beren borondatea irautea dela, ez etsitzea, borrokatzea, baita kalean ere: Kataluniako gatazka mundu osoko telebista kameren aurrean jarri behar dela berriz ere, 2017ko urrian gertatu zen bezala. Bigarren agertokirako, ERCren egungo zuzendaritza –Genevatik iritsi zaizkion zenbait ezadostasunekin– eta PDeCAT –JxCat-ekin ageriko gerran– dagoeneko bidea egiten ari dira 2020ko otsailerako hauteskunde autonomikoak deitzeko, independentisten hegemonia parlamentarioa argitzeko, errepublikarren eta konbergenteen artean. Kontuan hartu gabe, noski, aurreikus daitekeen CUPen igoera. Puigdemont erbestean eta lurralde katalana zapaltzeko aukerarik gabe, eta Quim Torra konbergenteen zuzendaritzaren babesik gabe, Artur Mas jokalarien aulkitxoan beroketak egiten ari da. President ohia kargu publikoetarako ezgaitua izan zen 2014ko irailaren 9ko kontsulta deitzeagatik, baina zama hori juxtu 2020 hasierarako iraungitzen da. Egoera horri gehitzen zaizkio hiru aldagai konstelazio: Puigdemont hatzaz hautatu zuen berak eta nolabaiteko leialtasuna zor dio, PDeCATek ez luke bere figura ukatuko, pujolismoaren herentzia eta huts egindako Errepublika batzen baititu, eta enpresarien establishmentak telefonoa hartu eta entzun egiten dio. Hor dago benetako arriskua, goitik ixtekoa behetik ireki zen hura 2017ko urriaren 1ean. ●

Zentzugabekeria arrazionaltasunez mozorrotzen denean

Ordu aldaketaz idaztea eskatu diogu Mikel Aramendi analista geopolitikoari: "Egia frogatu bakarra da egungo DST sistema hau 1973ko petrolioaren krisiak abiarazi zuela. Eta geroztik, hor dagoela", dio besteak beste.

MIKEL ARAMENDI XABIER SAGASTA

Aro berrian sartu da Japonia. Enperadore berriarekin, *Heisei* aroa amaitu eta *Reiwa* aroa hasi dute munduko hirugarren ekonomia eta teknologia aurreratuenetakoa duten herrialdean. Kontuz, ez da Amateratsu jainko-amaren gauerdiko eztula: egutegia ere aldatu egiten da *tenno*-arekin batera Japonian. Maiatzaren 1ean hasi zen REIWA 1 urtea, eginkizun ofizial guztietarako erabili behar dena. Sistema informatiko guztiak egokitu behar izan dira, aro berriaren izena eta datak egoki erabili ahal izateko. Hein handi batean, Akihito enperadore zaharraren abdikazio-prozesua egokitzapen horiek erosotzeko luzatu da. Ematen du guztia nahiko ondo joan dela. Duela 31 urte SHOWA arotik HEISEI arora bat-batean igaro behar izan zutenean gaur egungo teknologia izan balute, batek daki zer gertatuko zen.

Zentzugabe samarra dela hain herrialde aurreratuak horrelako SELF INFLICTED INJURY-ak nozitzea? Ez pentsa. Eskala apalagoan, baina urtero bi aldiz egiten dugu geuk, derrigorrean, oso antzeko zerbait. Ordu aldaketa deitzen diogu. Gure kasuan, eguzki ordua deituko genukeena –egu-erdia 12:00etan eta gau-erdia 00:00etan izango lituzkeena– baino ordubete gehiagorekin ibiltzetik –neguko ordutegian– eguzkiaren aldean bi ordu aurreratuta –udako ordutegian– ibiltzera pasatzen gara; eta alderantziz. Laster beteko ditugu 50 urte atzera-aurrera horretan, baldin eta jada ozenki entzuten hasi diren amaiera hotsak gauzatzen ez badira.


Gutako bakoitzak daki aldaketa horiek norberarengan nolako eragina izaten duten. Askori entzun diet kexua eta gutxiri alabantza. Ezinbestekotasunak sortzen duen etsipenarekin men egiten zaiola esango nuke. Hartara egokitzen ahaleginduz. Ordutegia gure onurarako aldatzea omen litzatekeenean helburua.

Onuren "arrazionaltasunera" heltzen gara horrela. Energia aurreztea omen da aldaketa horien helburu nagusia. Zifrak ematen ausartzen denen bat ere agertzen da. Inork inoiz ez du tokian tokiko azterlan erabakigarririk aurkeztu horretaz

Onuren "arrazionaltasunera" heltzen gara horrela. Energia aurreztea omen da aldaketa horien helburu nagusia. Zifrak ematen ausartzen denen bat ere agertzen da –gero eta gutxiago–. Inork inoiz ez du tokian tokiko azterlan erabakigarririk aurkeztu horretaz: alde batean aurrezpenen bat kausitu denean, beste nonbait galerak agertzen baitira.

Egia frogatu bakarra da gaur egungo DST (*Developmental Systems Theory* / Garapenerako Sistemen Teoria) sistema hau 1973ko petrolioaren krisiak abiarazi zuela. Eta geroztik, hor dagoela. Majo aldatu da gure mundua ordutik hona. Tokitan daude orduko tresneria elektrikoaren eta argiteriaren kontrol-sistemak, esate baterako. Nolanahi ere, orduko xedea *petrolioa aurreztea* zen, eta zeharbidez baino ez *energia aurreztea*. Gaur egungo elektrizitatekontsumoen eguneroko kurbetan ordu aldaketak eragindako murrizketak kausitzeko fede handia behar da.

Baina fedea ez da falta gure munduan. Ez dugu Amateratsun sinetsiko, baina "arrazionaltasunez" jantzitako edozerk berehala biltzen ditu sinesleak, oinarrizko sen onari iskin egin behar bazaio ere. Adibidez, nola lortzen ote ditugu onura berberak ordua aldatuz guk eta gure latitude berberean dauden florentziarrek, 13-14 graduko aldea –hau da, ordubetekoa, gutxi gorabehera– dugunean longitudean? Eta ez gara hasiko Santiagoko galiziarrak eta Niseko serbiarrak uztartzen... CET ordutegi berbera baitarabilgu denok. UTC+1, Greenwich baino mendebalderago gauden arren, gu behintzat.



Ordu aldaketak gizarte usadioetan eragiten dituen moldaketak –udaldian arratsalde luzeagoak edukitzetik eratortzen direnak, funtsean– berez eta besterik gabe onak direla esaten ausartzen direnak gero eta gutxiago dira. Horren onuradun ekonomiko nagusia izan behar lukeen merkataritzak, eguzkiak jotzen duela ixten ditu ateak gurean behintzat hilabete batzuetan. Aldiz, naturarekin estuen lotuta aritzen den lehen sektoreari ez zaio DSTari buruzko hitz onik entzuten inon. Industriari bost axola dio. Tabernentzat ez bada... Goizak (asko) laburtzeak dituen ondorio ekonomiko eta sozialak, antza, ez dira kontua hartu ere egin behar.

Bitxia bada ere, Japoniako enperadorea aldatzean, bertako egutegia ere aldatuz, endredo polita leporatzen jarraitzen zaio Japoniari; duela dozena bat urte neurketa saio serioenetakoa, etxeetako argiteriaren kontsumoa soilik aintzat hartuz. Aurreiritzien aurka, azterlanak ebatzi zuen DSTa ezartzearen guztizko kontsumo-balantzea ezkorra izango zela, aldea oso txikia bazen ere. Eta ordu aldaketarik egin behar gabe jarraitzen dute japoniarrek. Munduko herrialde gehienek –eta handienek– bezala. Eta azken urte hauetan, DSTa darabilten batzuk uzteko asmoa hausnartzen ari dira.

Ordu aldaketak gizarte usadioetan eragiten dituen moldaketak berez eta besterik gabe onak direla esaten ausartzen direnak gero eta gutxiago dira. Horren onuradun ekonomiko nagusia izan behar lukeen merkataritzak, eguzkiak jotzen duela ixten ditu ateak gurean behintzat hilabete batzuetan

Japoniako egutegiaren kasuan bezala, ez da horren erraza, ordea, aldaketa hori (ez) egitea. Etengabe sareari atxikita dauden gailuek normalean eragozpenik ez balute ere, azken hamarkadatan saldu-erosi dugun tresneria informatikoaren zati mardul bat urtean bitan aldaketa automatikoki egiteko prestatuta dago. Eta norberaren ordenagailutxoan endredo ñimiñoa dena, gorabehera kritikoa bihur daiteke sistema erraldoietan eta haien menpeko zerbitzuetan.

Horrek iraunarazten dio ordu aldaketari, beste ezerk baino gehiago. ●





G7 BIARRITZEN

Dekadentziari distira atera nahian

Agorrilaren 25, 26 eta 27an G7aren goi-mailako bilera egingo dute Biarritzen. Nazioarteko politikan aditu Asier Blasek gailurraren nondik norakoak analizatu ditu. II. Mundu Gerran sorburu izan zuen egungo kapitalismo liberalaren kontrako protestak antolatu dituzte Lapurdin.

ASIER BLAS

Bigarren Mundu Gerra ostean Mendebaldeko potentzia kapitalistek aliantza sendo bat eratu zuten AEBen lidergopean. Washingtonek hegemonia ekonomikoa, politikoa eta militarra sendotzeko zenbait akordio itxi eta hainbat erakunde sortu zituen, besteak beste, NATO, Europako Ekonomia Erkidegoa eta Bretton Woodseko akordioak aipa daitezke. Azken akordio hauetan bi erabaki garrantzitsu jaso zituzten.

Alde batetik, Nazioarteko Berreraikuntza eta Garapen Bankua sortu zuten, Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Diru Funtsaren jatorria. Honen bidez AEBek munduko ekonomia finantzarioa erregulatu eta merkatu librearentzako heziak kentzea sustatu zuten. Bide horretan beste pauso bat izan zen Muga Zergei eta Merkataritzari Buruzko Akordio Orokorraren (GATT) sinadura 1947an, hauek ahalbidetu zuten 1995an Munduko Merkataritza Erakundearen (WTO) sorrera.

Merkatu librea AEBetako ekonomia garatuaren eta indartsuaren mesederako zen bitartean, gerraoste gogorra edota pobrezia eta azpigarapena bizi zuten herrialdeen kaltetarako zen. Horregatik, Cordell Hullek, hamaika urtez AEBetako estatu idazkari izandakoak, merkatuak ireki nahi ez zituzten herrialdeei mehatxu egin zien esanez "merkantziek ezin badituzte mugak zeharkatu, soldaduek egingo dute".

Bestalde, Bretton Woodseko hitzarmenetan hartu zuten beste erabaki garrantzitsu bat izan zen moneta sistemaren egonkortasuna segurtatzeko dolarra hartzea erreferentzia bakar bezala. Une hartako estimazioen arabera AEBek munduko urre erreserben %60 eta %80artean zuten, horregatik, dolarra urrearekin lotuko zen, URRE PATROIA bezala ezaguturikoa inposatuz: urre ontzak 35 dolar balioko zituen.

AMERIKETAKO ESTATU BATUEN NAGUSIGOA HIGATZEN HASI ZEN

Hurrengo hamarkadetan munduko herrialde ugaritako askapen nazionaleko eta sozialeko borrokek aurrera egin zuten nabarmen, zalantzan jarriz hegemonia mendebaldarra. Aldi berean, AEBek bere aliatuen artean zuen nagusigoa ere higatzen hasi zen. 1948an "Mundu librearen" merkataritzan iparramerikarren partaidetza %23,3 izatetik, 1970ean %13,5era erori zen. Bien bitartean, Europako mendebaldetik AEBerako esportazioak AEBetatik Europako mendebalderako esportazioak baino lau aldiz gehiago hazi ziren.

> **Pasa den mendeko azken hamarkada izan zen AEBen hegemoniaren unerik gozoena. G7ak bultzatzen zuen globalizazio neoliberalaren zabalkundeak amaierarik ez zuela zirudien**

1971n, AEBek lehenengo aldiz XX. mendean defizit komertziala izan zuen Vietnamekin gerra garesti batean murgilduriik zegoelako. Europa mendebaldeko herrialdeak markoak erosten hasi ziren eta Frantziak eta Erresuma Batuak dibisetan zuten soberakina urre bihurtzeko eskatu zioten Washingtoni. Ondorioz, AEBek botere eta kontrol ekonomikoa berreskuratzeko Bretton Woodsen adostutako urre patroiarekin amaitzeko aldebakarreko erabakia hartu zuen 1971n. Finantza eta espekulazioaren munduan ate berri handi bat ireki zen: diru fiduziarioa. Une horretatik aurrera dolarraren balioa segurtatzen zuen osgai bakarra bere erabilpena zen munduko lehengaien eta batez ere petrolioaren salerosketetan. Hau horrela izan zedin ezinbestekoa zen AEBek lehengaien ustiaketa eta merkatuak kontrolatzea eta horretarako ezinbestekoa izan da armada eta bere hegemonia politiko-militarra.



1973an Petrolio Esportatzaileak diren Herrialde Arabiarren Erakundeak Yom Kippurreko gerran Israel babestu zuten herrialdeei, Mendebaldeari nagusiki, petrolioa ez saltzeko erabakia hartu zuen krisia eraginez. Egoera ekonomko eze-







gonkor horren erdian, 1973an, AEBetako altxor idazkaria zen George Schultzek eskatuta bildu ziren AEBetako, Japoniako, Mendebaldeko Alemaniako, Erresuma Batuko eta Frantziako finantza ministroak estrategia ekonomiko komun bat adosteko. Bi urte beranduago, 1975ean, Italiaren partaidetzarekin bigarren bilera bat egin zuten Frantzian, Rambouilleten. Hirugarren bileran, 1977an Puerto Ricon, Kanadak ere parte hartu zuen, formalki G7 taldea jaioz, Mendebaldeko zazpi herrialde aberatsenen kluba. G7aren helburu nagusia nazioarteko politikari eta ekonomiari buruzko diagnostiko eta ekintza plan adostuak egitea da, betiere Mendebaldeko herrialdeen interesak babestu eta sustatzeko errezeta neoliberalak eta inperialistak barreiatuz munduan.

> **Badirudi berriro ere G7ak protagonismoa irabaziko duela G20a bigarren planora pasatuz**


AEB-EN HEGEMONIA GOXOA

Pasa den mendeko azken hamarkada izan zen AEBen hegemoniaren unerik gozoena. G7ak bultzatzen zuen globalizazio neoliberalaren zabalkundeak ez zuela amaierarik zirudien. XXI. mendean Mendebaldeko hegemoniari erantzun bikoitza iritsi zitzaion. Hegoaldetik kolonia ohien askapen nazionaleko edota sozialeko prozesu berriak jarri ziren martxan, bereziki Latinoamerikan. Gobernu soberanista eta aurrerakoiek beren ekonomiaren kontrola berreskuratu nahi zuten, gora bidean zeuden herrialdeek egiten zuten bezala, BRICS (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) taldea sortuz edo Shanghaiko Elkarlan Erakundearen jaiotza eta garapenarekin. Mendebaldea herrialde batzuen gaineko kontrola galtzen joan zen heinean, G7ak garrantzia galdu zuen eta beste egitura batzuk sortu zituen munduan eragiten jarraitzeko.

Egunero hasten delako
Ramon Saizarbitoria



Maitasun keinu bat besterik ez
Hasier Arraiz



Oroimenaren xaflakortasunaz
Paloma Rodriguez-Miñambres



www.erein.eus

G7 gailurraren aurkako deialdiak

G7 EZ plataforma

Euskal Herriko eta Frantziako estatuko elkarte, herri mugimendu, sindikatu eta mugimendu politiko ugarik osatutako plataforma da. Abuztuaren 19tik 24ra, Alternatiben Herrixka eta kontra-gailurra egingo dituzte Hendaia, Urruña eta Irunen.

- **A19 eta 20an**: akanpatzeko gunea irekiko dute eta harrera egin. Arratsaldean animazioak.
- **A21, 22 eta 23an**: Irun eta Hendaian 80 inguru hitzaldi, konferentzia, eztabaida eta tailer.
- **A24an**: manifestazioa Hendaian, 11:30ean bi zutabetan abiatuta.
- **A25**: 12:00etatik 16:00etara elkarretaratzea manifestazio debekuari aurka egiteko. Angelu, Baiona eta Biarritzeko zazpi gunetan. Ortzadar zonaldea osatzea da asmoa.

G7 Blokatu

Pertsonek osatutako kolektiboa da, G7 EZ-en printzipioekin bat egiten dute eta egitarauarekin osagarri planteatzen dute beren proposamena. Desobedientziaren esparruan ari diren kolektiboekin "G7a eta bere mundua" oztopatzeko deia egin dute. Jomugan jarri dituzte kapitalismoaren sinbolo izan daitezkeen espazioak: "McDonalds jatetxeak, Biarritzeko golfa edo bankuak bezalako negozioetan, hiru egunez ahalik eta ekimen gehien egin nahi ditugu. Erdibide bat ireki nahi dugu pazifismo dogmatiko eta intsurrekzioaren sakralizazioaren artean". Beren armak beren gorputzak izango direla argi dute eta Euskal Herriko militantziarentzat aurrekari izatea nahi lukete. Euskal Herrian aldaketa politikoa bultzatzeko konfrontazioaren maila bat igo nahi dute.

G7 Borrokatu

Ekintza zuzenaren bidez gailurrari aurka egitera deitu dute. Aurretik G7aren eta kapitalismoaren aurkako ekimenak egin dituzte. "Gure erantzuna autodefentsa izango da; sistema zapaltzaile kontra gauden beharra baita horren aurka eskura ditugun tresnekin aurre egitea, elkarlaguntza eta elkartasunetik erresistentzia eraikiz. Bankuak erasotzea, Lanbide / pole emploi kaltetzea edota presondegiak erasotzea, komisaldegiak jopuntu izatea, makinak apurtzea... askatze bideak dira. Gure parean daudenek beraien boterea bermatzeko torturatzean, kartzelaratzean, indiskriminatuki tirokatzean, esplotatzean... ez dute dudarik. Guk, horren aurrean erantzutean ere ez".

Jaka Horiak G7

G7 EZ plataformarekin bat egin dute Jaka Horiek eta Frantziako Estatu mailako deialdia egin dute abuztuaren 24rako, protesta egiteko.





DANI BLANCO

Biarritzeko G7ko goi-bileraren funtzio sinbolikoetako bat da munduari gogoraraztea zein diren sheriffa eta bere laguntzaileak

1999an Asiako krisi ekonomikoari aurre egiteko G7ak bilera bat burutu zuen beste herrialde batzuekin egoera kontrolatu ahal izateko. Talde horrek baina, ez zuen funtzionamendu dinamika egonkorra hartu 2008ra arte. Urte horretan nazioarteko krisi finantzarioak eztanda egin zuen eta G7ak goi-bilera deitu zuen Washingtonen munduko herrialde aberatsenen eta gorabidean zeuden herrialdeen artean. Guztira, hemeretzi herrialde gehi Europar Batasuna munduko biztanleen etorkizun ekonomikoa erabakitzeko era ez demokratiko batean. Herrialde gehienek neoliberalismoa hauspotzeko borondate irmoa zeukaten.

Urtero biltzen da G20a pertsonen, herrialdeen eta naturaren etorkizuna erabakitzeko herritarrekin kontatu gabe. Beren artean interes kontraesankorrak egon arren, orohar, neoliberalismoa sustatzea dute helburu, sufrimendu eta pobrezia sortzen duen sistema ekonomikoa elikatzea aburu. Halere, Mendebaldeak Latinoamerikan errekuperatu dituen posizioengatik eta Txinarekin duen lehia indartsuagatik, badirudi berriro ere G7ak protagonismoa irabaziko duela G20a bigarren planora pasatuz.



MENDEBALDEKO DEKADENTZIA

Mendebaldea dekadentzian dago, bere hegemonia kulturala, politikoa, militarra eta ekonomikoa gainbeheran daude. Txinak lehenengo arlo ekonomikoan hartuko die aurre AEBei, eta ondoren, gainontzeko arloetara zabaltzen saiatuko da bere hegemonia.

Txinak dituen ahulezien artean dago garatzeko behar dituen lehengaien eskasia eta itsasoarako irteera konplikatua. Arazo horiei aurre egiteko CETAko (*Comprehensive Economic and Trade Agreement* / Merkataritza eta Ekonomiarako Akordio Integrala) bidearen proiektu erraldoia jarri du martxan bere produktuak saldu eta lehengaiak era erosoan lortzeko. Bestela, Txina dagoeneko munduko lehenengo herrialdea da Barne Produktu Gordinaren (BPG) neurketa erosahalmen parekotasunean egiten bada eta iragarpen guztiek diote urte gutxitako kontua dela BPG nominalean nagusitzea. Teknologian 1.000 miloi dolar baino gehiago balio duten *startup* enpresen sailkapeneko 50 lehen postuetatik 26 txinatarrak dira, hamasei iparramerikarrak eta bat bera ere ez europarra. Espainiako Estatuan kontsultatzen badugu zeion diren Amazoneko sakeleko telefono salduenak, lehen 30 txinatarrak direla ikusiko dugu. Aurrera begiratuta ere, enpresa txinatarrak oso aurretik doaz zabalgarri diren sakeleko telefonoekin edota G5 teknologiarekin. Horregatik, AEBek erabaki dute merkatu librearekin bukatzea. Orain lehiakidea indartsua denean eta partida irabazten ari zaionean gerra komertziala hasi du arantzelekin edo enpresa txinatarrak jazartzen ditu, Huawei kasuan bezala.

AEB-AK INDARTSU ORAINDIK ERE

Edonola ere, AEB indartsua da oraindik elkarloturiko hiru elementu dituelako: lehengaien kontrol handi samarra (gainbeheran), dolarra eta armadarik indartsuena. Hori da Biarritzeko G7ko goi-bileraren funtzio sinbolikoetako bat da, gogoraraztea munduari zein diren sheriffa eta bere laguntzaileak. Nazioarteko politika eta ekonomia gidatzen dutenen ilusioa saldu nahi dute, baita Italiak Txinarekin erdietsi duen akordioaren balioa ere alferrik gutxiestea. Izan ere, Washington ez da gai izan G7ko kide baten *traizioa* geldiarazteko, ezta estrategia txinatarrak dolarra ahultzeko izan duen nahia geratzeko ere. Biarritzeko goi-bileraren joko sinbolikoez harago, garrantzi gehiago izango du hurrengo hilabeteetan ikustea AEBek eta Mendebaldeak antolatuko duten dekadentziarako estrategia. Gainbeheraren erritmoa mantsotu edo azkartu daiteke, baina atzera-bueltarik ez du. Kontua da prozesua azkartu ahala gatazka geopolitikoak areagotu egingo direla. Mendebaldea zauriturik animalia da eta horrek esplikatzen du bere belizismoa eta agresibitatea, baina zoritxarrez oraindik min askoz gehiago barreiatu dezake munduan bere dekadentziaren kudeaketa on bat egiten ez badu. ●



IBARRAKO UDALA

Ibarran euskaraz bizi nahi dugu.
Eta zuk?

San Bartolome plaza 2
20400 IBARRA
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27
euskara@ibarra.eus
www.ibarra.eus

• Administrazioa	943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua	943 67 38 27
• Txontxo Ludoteka	943 67 51 72
• Kukumiku Haur Eskola	943 67 02 84
• Kiroldegia (Tel/Faxa)	943 67 15 44
• Kultur Etxea	943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua	943 67 04 15

Hamaika egitasmo **Bilbon euskeraz** egiteko

Bilbon euskaraz

eleBI



Gu ere bertsotan
Mundu bat bertso



BilRobot
Tailerra




Ikusi eta ikasi
Ikuskizun zirkuitua



Zer daraBilbo?
Euskara erabiltzeko ekimenak



Ikusten duguna gara
D ereduaren alde



Euskararen dimentsioa
Sentiberatze kanpaina




Harrapazank
Gazteentzako aukera




Mikoleta
Eskolarteko ipuin lehiaketa



Bilboko euskaltegiak




Biribilko
Komertzioan ere euskaraz



nahidudalako.eus
Ikasketak euskeraz jarraitu



BertanBilbo
hiriburua eta euskera



Zinema euskeraz

B

www.bilbaoeuskaraz.eus


MAGNUS

ARGIAK 100 URTE

Euskarazko kazetaritzaren ajeak eta eztabaidak

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA ARGIA ARTXIBOA



ARGIAk mendea bete duela-eta *Zerukotik lurreko-ra* zikloa antolatu genuen maiatzaren 21etik 28ra Donostiako San Telmo Museoan. Honen baitan Elixabete Garmendiak aztertu zituen euskarazko kazetaritzaren ezaugarriak edo ajeak. Koldo Izagirrek, berriz, *Zeruko Argia*ko testu hautatuak irakurri zituen.

Biak ere irakurgai ederrak, elkarren osagarri: euskarazko kazetaritzak egindako bidea eta nahi eta ezinak ezagutuko ditugu *Zeruko Argia*n aritutako Garmendiaren eskutik, eta jarraian testuinguru horretan sortutako iritzi artikulu eta eztabaidak irakurri ditzakegu. Herrenak herren, "mendearen ume" izaten tematu ziren.

1980ko uztailaren 4an, Donostiako Okendo kaleko 22 zenbakiko *Zeruko Argia*ren egoitzan, Kaputxinoen ordezkariek eta langileek emandako prentsaurrekoa, *Zeruko Argia*tik ARGIArako aldaketaren berri emateko. Argazkian aurrez aurre, ezkerretik hasita: Elixabete Garmendia langilea; Jon Balentziaga kaputxinoen ordezkaria; eta Kaietano Ezeiza, kaputxinoa, *Zeruko Argia*ren lehendakaria.

Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat

ELIXABETE GARMENDIA

ARGIAren ehun urteek euskarazko kazetaritzaren bizkarrezurra marrazten dute. Ez da hedabide bakarra izan, beti eduki ditu hurbileko nahiz urrutixeagoko senideak, baina mende beteko genealogia erakutsi eta frogatu dezakeen bakarra *Zeruko Argia*tik datorren ARGIA da. Bizkarrezur horretan bermatuta, sartu-irtenak egingo ditut denboran zehar izan diren beste argitalpen eta proiektu batzuetara, euskarazko kazetaritzaren ezaugarriak –eta ajeak– bilatu eta azpimarratzeko.

NAHI ETA EZIN

Xabier Leteri lapurtuko diot esapidea: "Nahiaren eta ezinaren borroka-toki ekaitzez betea". Hor egon izan da ARGIA. Nahi eta ezin; euskarazko kazetaritzak bere historia islatuko duen lelo bat beharko balu, horixe aukeratuko nuke: nahi eta ezin.

Nahi eta ezin hori muga-mugara iritsi da historiako une batzuetan; halakoetan, euskarazko kazetaritza heroismora kondenatua egon da. Izan ere, ez al da heroismoa egunkari bat –euskarazko lehen egunkaria– gerraren erdian sortu eta argitaratzea? *Eguna* egunkaria izan zen hori, 1937ko hasieratik ekainaren 13ra bitartean kaleratu zena, Bilbon.

1990ean *Egunaren* edizio faksimil bat argitaratu zuen Jaurlaritzak, Joseba Agirreazkuenaga historialariak prestatua. Hor, euskarazko egunkariaren egile izan zirenetako batzuei hitz egin arazi zien Agirreazkuenagak: Augustin Zubikarairi, Eusebio Erkiagari eta Jesus Insausti *Uzturre*, EAJko buruzagi tolosarrari.

Haiek esandakoaren arabera, soldata Euzko Gudarostetik jasotzen zuten *Egunako* erredaktoreek, gudariak baitziren. Azpiegitura, berriz, jeltzaleen *Euzkadi* egunkariarena erabili zuten. Eusebio Erkiagak kontatua:

"Izan be, Eguna ez zan egunkari normala izan. Besteren ekipamenduz baliatu zan: idaztegela, paper, tipografi, erbesteetako albisten iturri... Kazetari-kumak, gudari auxiliarrak, osasunez erdi makal edo ikusmenean akatsak zituenak, 21-24 urteko gazteak inprobisazino moldakatxera behartuak. Goizetik gauera periodista bihurtuak".

Kazetari bihurtutako gudari haiek paradoxa galanta bizi izan zuten: gerrako egunkariak ez zeukan inor frontera bidaltzeko hango berri eman zezan. Izan ere, Erkiagak zioen bezala, *Eguna* ez zen egunkari normala izan, salbuespenezkoa baizik. *Eguna*, euskarazko kazetaritza ezaugarritzen duen ekintza militantea izan zen.

Euskaltzaleen artean egon zen gerra aurretik, Pizkundean, euskarazko egunkaria sortzeko proposamena, Lizardik eta abarrek bultzatua; *Euskal Esnalearen* buletinean eztabaidatu zuten aukera horri buruz eta, esaterako, *Euskal Esnalearen* zuzendariak, Gregorio Mujikak, kontrako iritzia eman zuen: egunkaria egiteko baldintza egokirik ez dagoela-eta, asterokoaren alde agertzen da. Hori bai, garbi uzten du zein akats ikusten dituen euskarazko aldizkarietan eta zein estilotako kazetaritza ez duen nahi:

"Ez al dauzkagu ba asteroko eta amabosteroko eta ileko ugari? Bai, noski, baina, egia esateko, kopeta beltza dute guztiek, astunegiak dira, apainegiak izketan, lotuegiak ibilkeran".

Kopeta beltz ikusten ditu Mujikak euskarazko aldizkariak: astunegiak, lotuegiak... Hau ere izan da euskal kazetaritzaren ezaugarria –eta ajea–; batzuetan transzendentzia erlijiosoak joko zituen, eta hurrena transzendentzia politikoak.

BORDATXOTIK OFIZINARAINO

1976an Damaso Intzarekin egon nintzen *Zeruko Argia*ren sorrerari buruz hizketan, kazetaritzako fakultaterako egin behar nuen lan baterako. Kontatu zizkidanen artean, hauxe: gerra garaian, nazionalak sartu zirenean, deklaratzera deitu zutela bera, Hondarribiko kaputxino batzuek alde egin ondoren. Gainera, frankistek bere lagun batzuk fusilatu egin zituztela, Martin Lekuona oiartzuarra eta Arrasaten zeuden beste hiru apaiz. Arriskuaren susmotan, nagusiek Txilera joatea pro-



posatu ziotela, eta hala egin zuen Intzak, 1936ko azaroan. Hogeita hamabi urtera itzuli zen exiliotik.

Une hartako *Zeruko Argia*ri buruzko nire iritzia eskatu zidan Damaso Intzak, baina erantzuna berak eman zuen:

"Seme bihurria atera zait. Lehen erlijiozko aldizkingia zen; orain ez du ja erlijiorik ematen, eta esaten duena, oker!".

Egungo ARGIA ikusiko balu! Baina pentsa, *Zeruko Argia* erlijioso, zintzo eta bedeinkatu haren egileak atzerrira jo behar izan zuen, euskarazko aldizkari bat sortze hutsagatik. Jazarpena jasan zuen, hizkuntzagatiko jazarpena.

Intza Txiletik itzuli baino urte pare bat lehenago, 1963an, berpiztu zen *Zeruko Argia*, Agustin Ezeiza kaputxinoaren eskutik. Laster bihurtu zen astekaria euskaltzaleen topaleku, urte haren amaierako zenbakietan ageri den idazleen zerrendak adierazten duen bezala: Juan San Martin, Carlos Santamaria, Jose Artetxe, Yon Etxaide, Nemesio Etxaniz, Martin Ugalde korrespontsal Venezuelatik... "Nere bordatxotik" atal finko ezaguna dauka Iñaki Eizmendi Basarrik, eta nola ez, honen eta Gabriel Arestiren arteko eztabaida saio bat ere ageri da; Arestik *Nire oficinatik* erantzuten dio "Nere bordatxotik"-en egileari. Bistan da Arestik ez zuela aukerarik galtzen bere posizioa markatzeko. Baina, bide batez, *Zeruko Argia* haren zabaltasuna adierazten du hitz-jokoak: Errezilgo bordatxotik Bilboko ofizinarainoko tarte sozial eta kulturala hartzen zuen aldizkariak. Aldi horretan hasi zen *Zeruko Argia* lurtar bilakatzen, eta belaunaldi erabakior bat aipatzekotan, "Gazte Naiz"-ekoa: Rikardo Arregi eta Ramon Saizarbitoriaren inguruan bildu zirenena. Baita zaharxeagoak ere, *Larresoro* –hau da, Jose Luis Alvarez *Txillardegi*– tartean. Eta Miren Jone



DANI BLANCO

Azurza, lehen zuzendari emakumezkoa. Hurrena Mikel Atxaga, *Amatiño* eta abarren garaia izan zen, kaputxinoen ordezkaria Kaietano Ezeiza zela.

1968tik 1974ra hamarren bat espediente ireki zizkion Informazio eta Turismoko Ministerioak *Zeruko Argia*ri. 1970ean, Burgosko Epaiketari buruz idatzitako editorialagatik deklaratzera joan behar izan zuen Mikel Atxagak epaitegira. Isunak, behin baino gehiagotan jarri zizkioten *Zeruko Argia*ri. Zentsurak ez zuen barkatzen.

PROFESIONALTASUN UKATUA

Franco hil eta berehala, Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zuten 1976a *Zeruko Argia*k, *Anaitasuna*k eta *Goiz Argi*k. Orduko espiritu haren islada gisa, Atxagak idatzitako editorialaren zati hau dakart:

"Euskal kazetaritza irmo bat sortu behar dugu. Euskaldunon iritzi, lan, arazo, jokabide eta ametsen berri emango duen kazetaritza behar dugu. Euskal leihatilatik munduari so egingo dion kazetaritza".

Hego Euskal Herriaren eta munduaren artean, Espainia zegoen, ordea. 1976an, Felipe González, PSOEko buruzagia etorri zen Donostiako Lintzirin hotelera prentsaurrekoa ematera eta Mikel Atxagak euskaraz egin zion galdera. Probokazioa hango askorentzat!





*Zeruko Argia*ren afaria Karlos Argiñanoren jatetxean. Zarautzen, 1979ko irailaren 27an.

Gonzálezen orduko emazteak, Carmen Romerok, bi kopa hartu eta brindisa eskaini zion Atxagari: *"Viva Euskadi nazi!"* esanez. Gertakariak dezenteko zalaparta eragin zuen hedabideetan. *La Voz de Españ*an, Miguel Larrea zuzendariak hauxe idatzi zuen: *"Un periodista no profesional"* izan zela Gonzálezi galdera euskaraz egin ziona. Atxagak ez zuen denbora galdu eta argitu zion Larreari *"un periodista no titulado, pero profesional"* zela bera. Euskarazko hedabideetan aritzen zirenak ezin –omen– ziren profesionalak izan, titulurik ez zeukatelako, eta hori gabe, ezin kazetari karnetik eduki.

Joan Mari Torrealdaik, geroxeago, 1982an, heldu zion karnetaren gaiari *Jakin*en, *Kazetari txartela adierazpen askatasunaren aurka* izenburuko artikuluan, eta zorrotz kalifikatu zuen afera:

"Karnetaren esigentzia hori kontrola besterik ez da, Estatuarena batetik (lehen eta orain), eta, batez ere gaur egun, kazetari-elkarteen talde interesena".

Interes horiek euskarazko kazetaritzan ziharduten profesionalen kontra jokatzen zuten betiere.

ZERUTIARTASUNA GALDUTA

1980ko uztailaren 13ko *Zeruko Argia*ren azalean, izenburu hauxe: *Zeruko Argia: aldaketak irailerako*. Barruan, bi orri gai horri buruz. Bertan, uztailaren 4an kaputxinoen ordezkariek eta *Zeruko Argia*kook elkarrekin emandako prentsaurrekoaren informazioa zetorren. Zehatzago esanda, dagoeneko Zeruko Argia Kooperatiba osatuta genuenok esplikatzen genuen, nola kaputxinoek aldizkaria gure eskuetan uztea erabaki zuten eta guk aldizkariarekin jarraitzea. Editoriala ere eskaini genion gaiari. Pasarterik esanguratsuena, hauxe:

" (...) Itxuraz, maitale asko du euskarak. Ia guztiek diote salbatu egin behar dela eta hau eta beste. Honekin kontsekuente izateko, jaun-andreok, bitartekoak jarri behar dira. Eta lehenengo erantzun behar duena, botere publikoa da. (...) erabakia ikusi egin behar nolakoa izaten den, oraingo itxurak ez dira behintzat onak. Entzun, entzuten baitira zurrumurruak, aitzakiak, ideologia-eta aipatuz".

Eusko Kontseilu Nagusiarekin egonak ginen gure arazoa planteatzeko, baina erantzunik ez. Ordurako Legebiltzarra eta Jaurlaritza ere osatuta zeuden, baina jaramonik ez. Editorialean aipatzen genituen ideologia kontuak, kaputxinoek zabaldu zuten idatzian esplikatzen ziren:

"(...) Zeruko Argia gero eta erradikalago bihurtzen joan da. Eta bortxaz –Meinhof taldeaz–, homosexualitateaz eta lesbianismoaz, edo feminismoaz eta abar" idazten genuela zehazten zuen agiriak. Eta hori ezin zutela onartu kaputxinoek.

Elebidun gisa aurkeztu ziren *Deia* eta *Egin*. Laster frogatu zen elebitasun hori diglosia zela

Ziur kaputxinoek protestak eta presioak jasan zituztela. Protesta horiek erredakziora ere iristen ziren. Lagin gisa, gutun anomino hau:

"Seksu obsesioa/ Gora Euskadi Askatuta/ bragetaren atean/ presoak kalera/gure obsesio hori da/presoak kalera/gezurtien saldoa/

NATURA
ONDAREA
EUSKARA



LEITZAKO UDALA
Elbarren kalea, 1
948 510 009
www.leitza.eus
leitza@leitza.eus

aundiena, gu gera/pene, pene, u-bi-a/ gure obsesio handia/esne txarra penean/kaka zaharra abian".

Anaitasuna-ren praileen letania zeraman izenburutzat idatzi horrek. Jomugan, izan ere, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia* zeuzkaten, garaiko bi aldizkari aktiboenak. Kontua da kanpaina antolatua egon zela harpide tradizionalen artean –jeltzaleen girokoen artean– harpidetzak bertan behera uzteko. Bistan da *Zeruko Argia*k ez ziola jada sektore horren estiloari erantzuten: hasteko, euskara batua eta zorioneko hatxea zeuden. Eta horrez gain, belaunaldi berriak zekartzan jarrera ezkertiar eta aurrerakoiak. Adibide bat, halako eskandalua pizten zuen sexualitatearen gaia nola tratatzen genuen ikusteko: emakumearen sexualitateari buruz Shere Hite sexologo feministak egin zuen txostenaren berri emanez, esaterako. Bide batez, Hite estatubatuarra da sortzez, baina nazionalitate alemaniarra hartu zuen, Ameriketan bere lanen ondorioz jasan zuen jazarpenagatik. Deabrutu egin zuten Shere Hite emakumeen sexualitatea lantzeagatik. Deabrutu egin gintuzten gu, halako gaiak dibulgatzeagatik.

ELEBITASUNAREN IRUZURRA

Gerra garaiko gudari-kazetari haiek *Egunа* egunkaria bertan behera utzi zutenetik berrogei urtera, 1977ko ekainaren 8an, kaleratu zen *Deia*ren lehen zenbakia; jeltzaleen eskutik zetorren. Hiru hilabetera, irailaren 29an, atera zen *Egin*en lehen zenbakia; proiektu honen atzean ere abertzaleak zeuden, ezkerrekoak. Elebidun gisa aurkeztu ziren proiektu bata zein bestea. Laster frogatu zen elebitasun hori diglosia zela.

Martin Ugalde *Deia*ko zuzendariorde izan zen, egunkari horren sorreran. Joan Mari Torrealdaik Ugalderen bizitzari buruz idatzi zuen liburuko atal batek izenburua hauxe darama: *Esperientzia etsigarria Deia-n*.

Torrealdairen galdera Ugalderi: "Euskarazko lana gutxietsia ikusi zenuen?". Erantzunetik, entresaka eginda, hauxe:

"Astean behin edo, orrialde osoko elkarrizketak egiten nituen, eta nire bizkar farrez sentitu ditut orrialde bat euskaraz nork irakurriko zuen, bada, broman hartuta!... Izpiritu honetan nire ahaleginak alferrikakoak zirela ikusiz, urtea bete nuenean, agur esan nien".


hots!
ARGIA

Zirrara eragiten du testigantza honek. Eskerrak, Ugaldek errebantxa hartu zien, nolabait, handik dozena bat urtera, Egunkaria Sortzen-eko kide egin zenean. Errebantxa, diot, ez alderdiaren kontra joateagatik, euskarazko kazetaritzaren alde egiteagatik baizik.

Diglosiak, izan ere, bazterkeria ezartzen dio, ez bakarrik hizkuntzari, baita hizkuntza horretan bizi eta garatzen den komunitateari, eta hizkuntza horretan diharduten profesionalei.

KAZETARITZA ESTIGMATIZATUA

Intrahistoria honek ekarri digun emaitzaren arabera, euskarazko kazetaritza izan da: ez normala, militantea, jazarpena pairatu du 36ko gerratik hasita; kopeta beltz jardun du; zentsurapean egon da; ukatu egin zaio profesionalatasuna, bazterkeria jasan du eta deabrutua izan da.

Errepaso honetan, nahita utzi dut bukaerarako *Euskaldunon Egunkaria*ren itxiera. Izan ere, 2003ko otsailaren 20an Juan del Olmo epaileak zuzendutako operazioak orain arte aipatutako ezaugarri eta aje horien guztien printzak biltzen ditu, arragoan nahastuta, eta... tortura gehituta.

Joan Mari Torrealdaik 2011. urtean *Jakin*en argitaratutako artikuluan ematen ditu gako batzuk.

"2002. urtean Guardia Zibilak idatzi zuen txosten batek bitan banatzen zuen euskalgintza: ona eta gaiztoa, instituzionala eta terrorista. Gure atxiloketen eta Egunkariaren epaiketaren oinarria txosten hori izan da: euskalgintza gaiztoa ginen. (...) Tesi horren indar espantsiboak euskalgintza soziala oso-osorik ETAren baitako bihurtzen du".

ETAren aitzakiarik ez dago jada. Dena dela, ETArena aitzakia koiunturala izan dela esan genezake. Izan ere, ibilbide honetan ikusi dugun bezala, ETA jaio aurretik, jada, estigmatizatuta zegoen euskarazko kazetaritza, eta ez dirudi erakunde armatua desagertzeak estigmatizazio hori erabat ezabatu duenik. ●

DURANGOKO
EUSKARA ZERBITZUA
Barrenkalea, 17
48200 DURANGO
Tel.: 94 603 00 16
Faxa: 94 603 00 26
euskera@durango.eus
www.durango-euskaraz.eus

Mendearen umeek munduari desafio jo zioten ekoa

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



DANI BLANCO

Koldo Izagirreren *Mendearen umeek munduari desafio* hitzaldiak ireki zuen maiatzaren 21ean *Zerukotik lurrekora* zikloa. 70 lagun inguru elkartu ginen Donostiako San Telmo Museoan, ARGIAren mendeurrena ospatzeko antolatutako zikloaren lehen ekitaldira. 1958 eta 1964 urteen arteko *Zeruko Argia*ko artikulu hautatuak irakurriz josi zuen Izagirrek hitzaldiaren haria. Besteak beste, gai hauei buruzko iritzi artikuluak entzun genituen: *Zeruko Argia*ko harpidetza pagatzeaz, Unamunoren balizko euskaltasunaz, langile klasearen eguneroko bizimoduaz, euskara maitatzeko zergatiez, "hemen euskaraz hitz egiten da" afixaren ekarpen ustelaz, erdaldundutako herrietan euskaraz irakastearen zentzuaz, eztabaida ideologikoetako poesia faltaz... Izagirrek (ia) osorik irakurri zituen artikuluak, eta entzuleak estimatu zituen artikuluen artean Izagirrek umore finez egin zituen lerro arteko irakurketak.

*Zeruko Argia*n soka luzea ekarri zuten iritzi artikulu bidezko eztabaidak entzunda, ondorio modura Juan San Martinen esaldi hau gelditu zitzaigun bati baino gehiagori buruan iltzatuta: *"Euskerazko astekari batek epelkerien lapikoa baino zerbait gehiago izan behar du".*

Hitzaldiari izenburua eman zion Gabriel Arestiren artikulu baten pasartea irakurriz (*Zeruko Argia*, 1964-03-14) amaitu zuen Izagirrek hitzaldia:

"Euskal kulturadun hutsak ezin bagintezke, asma dezagun kultura berri bat, munduko kulturaren abangoardian martxa gaitezen. Ahal duguna salba dezagun, eta apur hori eraberritu dezagun. Ateratzen denarekin, munduari desafio diogun. Horrela salbatuko gara".

Pasarte honi tiraka, honela biribildu zuen jarduna Izagirrek: "Kultura berri hori umotzen hasia zen eta Arestik berak ere lanak izan zituen, zenbaitetan, asimilatu ahal izateko. Nekez, zalantzaz, kontradikzioz, aurrerapusoz eta atzerajauziz, bazetorren euskalduntasun modenoaren hedatzailea izan genuen 1963 hartatik aitzina *Zeruko Argia* aldizkaria: Euskal Herriak 'hontan iraun ez dezan' saiatu zen sutsu garai hartako gazteriaren multzo kontzientziatua".

EZTABAIDARAKO ATALAK ETA IRITZIGILEAK

*Zeruko Argia*k eztabaida sustatzeko izan zituen atalak ezagutu genituen Izagirreren hitzaldiaren bidez, eta atal haietan idatzi zuten sinadurak.

1963an *Ezta...baida* atala estreinatu zen eta bertan ugari idatzi zuen Eibarko euskaltzaleen nukleoak: Juan San Martin, Serafin Basauri, Imanol Laspiur...



beste egile hauen artikuluak ere irakurri zituen Izagirrek: Joxe Azurmendi, Jose Maria Etxaburu "Kamiñazpi", Gurutz Ansola…

Garai berean *Esamesak* atala ere egon zen, hasieran Arantxa-k eta ondoren Urreta'tar Miren Arantxa-k sinatua.

1964an *Idoyaren egunerokoa* atala idatzi zuen Idoia Auñamendi sinatutako batek, "Idoia Estornes suposatzen dut" zehaztu zuen Izagirrek.

1965-1968 artean *Gazte Naiz* atala izan zuen *Zeruko Argia*k. Ramon Saizarbitoriaren sei artikulu argitaratu ziren lehen sei asteetan. Izagirreren hitzetan: "Sei artikulu hauek ildo bat markatu zuten, tituluetatik bertatik: *Jaiak, atseden / Gazte zarrak / Eginbeharrak / Ez naiz jatorra*…".

Sinadura hauek aurki daitezke *Gazte Naiz* atalean: emakumeak asko, Garbiñe, M. K. Uranga, Mari-Beltz, Ane Garin, Mari Karmen Garmendia, Arantxa Gurmendi, Maddi, Miren Olarreaga, Begoña Arregi, Itziar Bikendi, Alberdi'tar Miren Itziar, Maria Luisa Olaziregi, Ikerne Irizar, Mirentxu… eta gizonezkoen artean Iñaki Beobide, Ibon Sarasola, Ramon Saizarbitoria, Gomiga (Gotzon Garate), Anjel Zelaieta…

1967an *Gazte Naiz* atalaren barruan beste atal hau abiatu zen: *Hemen Gazteagoak*. Bertan idatzi zuten 18 urte inguruko gazte hauen artikuluak irakurri zituen hitzaldian Izagirrek: Joxemi Zumalabe, Itziar Bikendi, Antton Santamaria eta Rafa Egiguren.

Rafa Egigurenen artikuluak itzal handiko kultur gizonen erantzun katea ekarri zuten: Gabriel Arestik idatzi baitzuen kontra eginez, eta ondoren Carlos Santamariak, gaztearen alde.

Jarraian irakur ditzakegu Izagirrek bere hitzaldian deskubritu zizkigun iritzi artikuluetako batzuk, gaiez eta idazkeraz oraindik ere egungoak direnak. ●

RAFA EGIGUREN

Zeruko Argia, 1967/03/05

Arazo garbi bat

Mutil batekin manteni dut eztabaida bat eta oso interesgarria iduritu zait hemen komentatzeko. Adibide bakar batekin bereala konprenituko duzute haren pentsaera.

– Esate baterako euskai eskolak egitezkerotan –zion– Donostin edo Usurbilen edo... egin behar dira, ez Etxebarrin edo Barakaldon. Hango jendea ez da euskalduna, erdalduna baizik. Haien hizkuntza kastellanoa da, ez euskera. Horregaitik jarri behar dituzute hemen ikastolak, eta ez han.

Zelayeta bururatu zait (karta bat zor dizut), ta konprenitu dut haren lekua. Lan zalla benetan.

Jarraitu dugu eztabaida.

Esan diot, alegia, arras oker zebillela; ikastolak, Barakaldon, hemen baiño gehiago behar zirela; hemen euskera mintzatzen dala oraindik, han berriz, dirudienez, galtzeko zorian dagola. Hitz batez: Hura Euskal Herria dala.

Ihardetsi dit:

– Baiño erderaz hitzegiten balin ba dakite, zergaitik ikasiko dute euskera? Erdaldunak dira, zertarako euskera?


GAZTE NAIZ

SUFRIMENTUA MAITATZEN PROLEMA

HEMEN, GAZTEAGOAK

ARAZO GARBI BAT

Gauza jakiña da, ta dokumentoen bitartez demostratu diteke, diskusioen bukaeretan, bakoitzak hasieran zedukan ideiakin segitzen duala gehienetan. Noski, gurean ere bai.

Hau dala-ta alegi bat agertu diot Kristoren antzera:

– Hara –esan diot–, hi marxista haiz, ezta?... Baiño munduan, heorrek ba dakik, jende ta jende asko dago marxista eztana. Alaz ere hik, hire pentsaerara biurtu nahi dituk. Eta hor habil... Orduan, marxistak ez ba dira, zergaitik ez dituk paketan usten? Segitu dezatela orain arte bezela... Ordea hik ezetz erantzuten duk; daukakena, dakikena, eman behar dekala diok.

Antzeko zerbait gertatzen da euskaldunekin ere. Hango herria: Barakaldo, Etxebarri... euskal herria da, ta hango jendeak euskaldunak ez badira, beste gertakizun oso luze batzuengaitik da (ez ditut orain kontatuko).

Beraz, arazoa betikoan datza, euskaldun izan edo ez izan.

Marxista euskalduna edo erdalduna.



GABRIEL ARESTI

Zeruko Argia, 1967/04/23

Bilbaoko erdal herritik

Zu, Egiguren mutil gaztea, entzuidazu. Zurekin sartu nahi dut nire burua hizpidean, zure lagun marxista horrekin izan duzun sesioa dela kausa.

Hizpidea sortu nahi dut, ez diskusioa, txit ongi baitiozu diskusioen bukaeretan bakoitzak hasieran zeduan ideiekin segitzen duela gehienetan. Has gaitean hizpidean, atera ditzagun arrazoiak, izan gaitean persona formalak, eta bila dezagun egia. Gauza batez bainago komenzituta, Etxebarriko San Antonio hauzoan bizi diren erdaldunen haurrei euskal eskola batera bultza eta obligatzea deretxoaren kontrako bidegabe bat dela. San Antonio Etxebarriko atera dut hortzera, zuk aipatu duzulako, zuk ekarri duzulako paperera Anjel Zelaieta apaiz gaztearen izena, eta horrekin, toreo gaietan esaten den bezela, zezena koadratu didazu.

Dirudienez, bertan bizi den jentea, ez duzu ezagutzen. «Koreanoak» deitzen diete, mezprezioz tratatzen dituzte, haietzaz burlatzen dira. Nire fabrikan (ez da nirea zentzu burjes batean, alegia!), nire fabrikan bi langile San Antoniotar daude, Orenzio eta Isaias. Biak oso langile finak, oso gizon prestuak. Lehengo egunean Orenzio hurbildu zitzaidan despatxora: «Sr. Aresti, muchos recuerdos de parte de D. Angel». Nire lagunak dira, maitatzen ditut, nahiz eta sarritan haiekin hasarratu behar bainaiz ere. Orenziok lehengo egunean hogetamar mila pesetako frokela apurtu zidan deskuido batean. Apropos egin balu kalea kostako zion, baina deskuido batean egin zuen eta amonestazio batekin libratu zen, hurrengoan deskuida ez dadin. Bestea Isaias; hau palentziarra da jaiotzez. Lehengo egunean hanka bat apurtu zitzaion, eta bajatik dago. Bitartean alaba bat ekarri dio andreak. Crucesera betarik ez dute izan, eta gastuak fabrikak pagatu dizkio, seguruan sartzen ez zitzaizkiolako. Ugazabak eskuak libre utzten dizkit halako kasoetarako.

Ez nauzu konprenitzen, Egiguren? Betitik ibili naiz hoien artean; orain hauzo popular batean bizi naiz, hemen Basurtun. Nire portalean hogetazortzi familia bizi gara. Hiru euskal deitura daude bakarrik, aurreko transportista txorierritarra, beheko erlojeru donostiarra, eta ni... Hirurak andre gaztelatarrekin ezkonduak.

Hau ez da euskal herria. Hau erdal herria da. Lehengo egunean gure artean egon zen Xesus Alonso Montero gallego idazle haundia. Hau esan zigun: «*Llegamos al convencimiento de que Bilbao es una ciudad castellana, y podemos empezar a comprender el problema vasco*».
Nire erdal soneto bat honela hasten da:
La voz no dice nada, solo chilla.
Es el pueblo de Uribe empobrecido; acá y allá nacido.
Mas allá de portales ve la villa.
Desarrapada Miravilla,
Neguri embrutecido, Deusto adormecido,
Esto ya no es Vasconia; ya es Castilla.

Gaur egunean Bilbao, Etxebarri eta Barakaldo erdal herriak dira. Hemen euskaldun batzuk bizi gara; gure haurrentzat euskal eskolak eskatu behar ditugu (ez hortik ikusten diren ikastola burjesak), hori izanen baita gure libertatea. Ukatzen dizkigutenak izen erreza dute. Baina kalearte honetan dauden erdaldunentzat euskal eskolak zabaltzea, eta bertara erdaldun umeak bortxatu eta behartzea, hori faszismoa da.

Hemen batzutan txistuaren hotsak entzuten dira, baina ez hain sarri. Larunbat eta igande gauerdiero lotara noan orduan kalerik kale entzuten dudan soinua ez da txistuarena, gallego gaitarena baizik. Masustegiko estratatik gora ez dakit zenbat gallego bizi diren. Egun batean euskaldun mutil batzuk (ez dakit hain seguru euskeraz zekiten), euskotar etzale batzuk, gaita apurtu zioten gallegoari, inolako makilaldia eman ondoren. Ermuan hamar mila gallego bizi omen dira, eta bakarrik bi mila euskaldun.

Asko maitatzen dut euskera; asko maitatzen dut nire sorterria; baina are gehiago gizonaren dignidadea. Nire burua ez nuen jarriko gallegoari gaita apurtu ziotenen lerroen artean; nik gallegoa defendituko nuen.

Arrazoi berorrengatik Ermuko gallegoen haurrentzat eskola gallegoak zabalduko nituzke. Arrazoi berberorrengatik, ez nituzke Barakaldoko eta Etxebarriko haur erdaldunak euskal eskoletara obligatuko.

Nahiz eta horretarako nire arrazaz, leinuaz, hizkuntzaz, herriaz eta askaziaz ukatu behar dudan. Maiteago izan behar baitut erdal gizon bat, ezen ez euskal piztia basati bat.

ararteko | HERRIAREN DEFENDATZAILEA



arartekoa@ararteko.eus
www.ararteko.eus

ARABA
Prado, 9
01005 VITORIA-GASTEIZ
✆ 945 13 51 18 · Fax: 945 13 51 02

BIZKAIA
Albia Eraikina
San Vicente, 8-11. solairua
48001 BILBAO
✆ 94 423 44 09 · Fax: 94 424 18 44

GIPUZKOA
Arrasate, 19-1
20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
✆ 943 42 08 88 · Telefax: 943 42 72 97

CARLOS SANTAMARIA
Zeruko Argia, 1967/04/16

Gabriel Aresti, adiskide ta idazle ospatsuari

(...) Adixkide jator ori: gizonetan argi ta garbi jardun bear da beti. Zure azkeneko idazkia "Bilbaoko erdal herritik" izenekoa, Egiguren gazteari jarria, etzait gustatu. Nere ustez, sofisma batzuk sartu dituzu, sail ortan bertan. (Barkatu, adixkidea, obe bearrez nabilkizu). Enaiz sartuko idazki onen buru-buztan guztietan, jakiña. Gauza bat besterik ez dizut aitatuko nere desakortea jakin arazteko.

Zure erderazko sonetoa ederra baiño ederragoa iduri zait. Bere ritmoa, bere soiñua, oso pollita da, benetan. Ez, berriz, bere argumentoa.

Zuk au diozu zure sonetan:

La voz no dice nada, sólo chilla.

Es el pueblo de Uribe empobrecido; aca y alla nacido.

Mas alla de portales ve la villa.

Desarrapada Miravilla,

Neguri embrutecido, Deusto adormecido,

Esto ya no es Vasconia: ya es Castilla

Ez gizona, ez. Erri bat txirotua, lotua, zarpailla, astotua, gorria dalako, Castilla izango da? Nundik atera dezu Castillaren iduri ori? Barkatu, baiñan zure silojismoa ezin onartu det. Castillaren aldetik nik protestatu bear det agerpen orren kontra.

Nik, erdi gaztelar naizen aldetik – nere aita zana alde ontara Burgosetik etorri zan, ogei urte zituela 1874 urtean– ezin permititu dizut orrela mintzatzea.

Begira, Gabriel adixkidea, zuk soberaz dakizun bezela, zu bizi zeran erria ez da Castilla iñolaz ere, euskal kapitalismoak Euskalerri biotzean sortutako mostruo bat baizik. Nahaste-borraste izugarri bat, arimarik gabeko gorputz bat da, zuk diozun erria.


Bastola Zabala radio bidez **Lur berri billa**

Neskato martiriak

Gabriel Aresti, adiskide ta idazle ospatsuari

JOSE ZINKUNEGUREN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

An-emendik etorri diran jendeak bere lurra laja dute, betirako utzi, eta beste lur baten billa etorri dira. Biarko egunean, beren seme-alabak euskaldunak sentituko dira, zortzi izenak euskaldunak dituzten askok baiño geiago. Eta guk, Euskalerri ontan orain bizi geranok, zer eskeintzen diegu, zer eskeiñi ahal diegu? Nai ta naiez lur berri bat, txoko berri bat, berotasun berri bat.

Nundik atera dezu, Aresti adixkidea, iñork jende orri euskera bortxaz eta indarrez erakutsi nai dionik? Orrelako gauza pentsatu ere, zeñek egin du?

Nik au esaten dizut. Kanpotar oien seme-alabak eunaka etorriko dira, eunaka, euskera ikastera, naiko euskal eskolak izango diran egunean.

Gizonek, gizon guztiek, lur baten amorea bear dute, zugaitzak ta plantak bezela. Lurrik gabe ez da egiazko bizirik. Biarko edo etziko egunean, jende orren seme-alabak, ojuka eskatuko dute euskal kutsua. Baldin jatorrizko euskaldunak ortaz ez bazitzaien mintzatzen, arriak ta odeiak mintzatuko zaizkie. Eta euskaltasun berri bat sortuko da bere biotzetan.

Nere ustez, Egiguren gaztea ain oker etzebillen.



ANGEL ZELAIETA
Zeruko Argia, 1967/06/11

Motorraren Gañean (Bilbo egaleko historiak)

Gaur arratsaldean Bilboraño allegatu naz pelikula bat ikustera. Eguzki epela, giro biguna, arratsalde gustagarria... Ta ni motarraren gañean Bilboruntz; lenengo burdibide batetik behera, gero karretera yeneralean zear, motor gañean, Bilbora, zinea ikustera.

Pelikula polita izan da; ezta egon yente askorik; eta egoan yentea denpora-pasa sartutala zala zirudian. Begira nengoan begira, baña nere errikorik, Bilbo egal onetakorik, ez egoan iñor!

Gero barriro motor gañean, guanteekin, kaskuarekin eta bakarrik Bilbo egal onetara itzuli naz, behetik gora burdibide baltz batetik.

Nere barruan beste persona bat egoan ta ni kamiñoari begira txofertzen nentorrela, barrutik preguntaka egoan:

– Ba al daukak deretxorik olan alaiki ta zinera yuateko, ireak lanean triste diarduenean; ire umeak zikin xamar yantzirik, barrio zikin orretan, yoko zikinak egiten diarduen bitartean; ire barrioko andrak ontziak garbitu ondoren, etxeaurrean eguzki epeletan erropa zaharrak erreparatzen diarduen bitartean...

– Ba al daukak deretxorik ire yentea "ertzean" bizi dan bitartean i ortik zear alaiki, kamiño barrietan zear, zinera yuateko...

– Ba al daukak deretxorik ire yentea barrio triste batean buruak eta soiñak triste yantzirik dituen bitartean, i uri dotorera, zine elegante batera motor gañean yuateko...

Nere barruan etorren persona ori oso kargantea da; banengoan ardaua eskeiñi, mozkortu ta ixildu eragitekotan be, baña ezta olan izan.

Pentsatzen yarri naz, ta nere yenteak berak egin ta beretzat dan zine bat zelan egingo pentsatzen lokartu naz.

Angel Zelaietaren bi artikulu irakurri zituen Izagirrek. Bata, *Illuntzian* eta bestea, hemen irakur daitekeen *Motorraren Gañean*. Publikoaren gogoan iltzatu ziren bi artikulu hauek. *Zeruko Argia*ren 'Gazte Naiz' atalean idazten zituen artikuluak, "Bilbo egaleko historiak" azpitituluarekin.





Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA


ARGIA


IRTEERA

MODA INDUSTRIAREN ALTERNATIBAK

Josturak apurtu bestelako jantzigintza ehuntzeko


AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA PAULA ESTÉVEZ



Jantzia, berez beharrizan oinarrizkoa dena, kontsumogai bilakatu da. Erosi eta bota logikari jarraiki biratzen duen gurpil kontsumistaren parte izanik, jasangarritasun eza du ezaugarri moda eredu hegemonikoak ere. Ehungintza industriaren etengabeko hazkundea ezin daiteke ulertu ekoizpen prozesuaren baitako langileei eta ingurumenari eragiten dizkion kalteei erreparatu gabe. Arroparen benetako kostua ez baita etiketak dakarrena, ingurumen-inpaktua eta jendearen sufrimendua truke-txanpon gisa erabilita, prezio irrigarrietan saltzen diguten jantzien kostua garesti ordaintzen baitu askok. Zorionez, alternatiba interesgarriak badira.

Blogger (blog bidez jantzien inguruan jarduten duen pertsona) eta *influencer* (moda tendentzietan eragiteko gaitasuna duen norbanakoa) bezalako terminoak ohiko bilakatu diren garaiak bizi ditugu. Ingelesezko terminook zerbait berria dirudite, baina aurretiaz goraldia izan zuten antzerako beste zenbaiten moldaketa eguneratuak besterik ez direla ohartu gaitezke *coolhunter* (moda tendentzien ehiztaria) edo *it girl* (modan eragiten duen emakumea) zaharkituagoei erreparatuz gero. Badirudi modarena bezalako eremu kontsumista batean zaharkitze programatuak jantziei ez ezik lenguaiari ere eragiten diola, eta hor datza industriaren etengabeko hedapenaren gakoa: atzo bogan zegoena gaur zaharkituta geratzeak ziurtatzen dio biharko produkzioa, eta produzitutako ondasunen prezioa baxu mantentzeak bermatzen dio kontsumitzaile kopuru altua. Baldintza hauetan, ehungintza industriak ziurtaturik dauka geroz eta erritmo frenetikoagoa daraman gurpil kontsumistaren martxa.

Hain da eroa gurpilaren martxa, ezen jantziaren prezioek beheranzko norabidea duten bitartean, urtetik urtera gora egiten duen ehungintza industriak. Merkatuaren ikerkuntza egiten duen Euromonitor International-ek emandako datuen arabera, 2016tik 2017ra %1,2ko hazkundea izan zuen irabaziei dagokienez, eta %3,1ekoa bolumenari dagokionean. Industriaren irabazien eta arroparen prezioen arteko alde geroz eta handiagoa, ordea, ingurumenarekiko eta langileenganako errespeturik gabeko jokabidearen bidez lortu daiteke soilik. Zentzu horretan hurrengo datua argigarri gerta daiteke: industriaren bilakaerak datozen bost urteetan izango duen hazkundearen %65 BRICS herrialdeetan —Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikan— emango da, janzten ditugun arropen ia gehiengoa bertatik baitator egun. Herrialde inportatzaile hauen bizi kalitatearen kaltetan, arropa merke antzean saltzen digute esportatzaile nagusiak diren herrialdeetan —Europa eta AEBak— bizi garenoi.



ERAKUSLEIHO DEIGARRIAK, DENDAOSTE ILUNAK

Balioa maximizatu eta kostuak minimizatzeko xedez, material eta energia kontsumoari dagokionez intentsiboenak diren produkzio pausoak BRICS herrialdeetara bideratzen ditu industriak. Hala, arroparen produkzio katearen zein aldetan egon, ezberdina da herrialdeen testuingurua. Balio erantsi gehien eta ingurumen inpaktu gutxien eragiten duten egitekoak —arropen diseinua kasu— herrialde esportatzaileetan burutzen dira, eta inguru zein langileentzat kaltegarrienak diren prozesuak, aldiz, herrialde inportatzaileetan. Lanaren banaketa horrek desoreka egoeran jartzen ditu herrialde esportatzaile eta inportatzaileak, bigarren hauek izanik moda industriaren albo kalteak pairatzen dituztenak. Erakusleiho eta ibiltoki distiratsuetako fokuek argiztatzen ez duten norabidean, herrialde inportatzaileak dauden tokira behatuz gero, panoramak ez du glamourrik batere.

Ingurumenari eragindako kalteak ditugu batetik: petrolio industriaren atzetik, kutsadura gehien eragiten duen bigarren industria da ehungintzarena. Munduko uraren bosten bat kutsatzearen arduraduna da, Changing Markets Foundation-ek argitaratutako *Dirty Fashion* (Moda zikina) txostenak dioenez. Tratatu gabeko hondakin-uren isurketa indarrean dago sektorean. Horrek zuzenean eragiten du uraren kalitatean, berau kutsatuz eta lehen sektorea larriki kaltetuz: arrantzale, abeltzain eta nekazariei hain beharrezkoa duten lehengaia agortzen ari zaie, eta sarri ur hori kontsumitzeagatik gaixotu eta hiltzen dira. Horren adierazle argia da Bangladesh: herrialdea munduko ehungintza potentzia nagusienetarikoa izanik ere, oraindik orain bertako biztanleen %70a nekazaritzatik bizi da; baina ehunak tindatzen dituzten 700etik gora lantegiek hondakinak erreketara isurtzen dituztenez, fauna eta lursailak larriki kaltetzen dituzte, eta biztanleentzat ur edangarria eta janaria eskuratzea geroz eta zailagoa da.

Berotegi efektua eragiten duten gasen jarioari dagokionez ere nabarmentzen da hizpide dugun industria, munduko CO_2 jarioaren %5a baitagokio. Datu honi erreparatzerakoan interesgarria da Txinari behatzea, karbono dioxido gehien isurtzea leporatu ohi zaion herrialdea izan arren, ehungintzari dagozkion isurketen %72 esportatzeko jantzien produkzioak eragina baita. Esportaziorako diren jantziak alboratuz gero, txinatar batek europar batek baino bederatzi aldiz CO_2 gutxiago eragiten du jantzerakoan, estatubatuar batek baino hamabi aldiz gutxiago. Nondik begiratzen den, AEBetara

Euskaraz nahi dugu bizi
ORDIZIAKO UDALA
Euskara Zerbitzua
Kale Nagusia, 26 · 20240 Ordizia
✆ 943 805 622
euskara@ordizia.eus
Ordiziako Udala
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
Arian-arian euskara abian

eta Europara bideratzen diren jantziek "erantsia" daramate CO2 isuria. Balio erantsi hori gurean isurtzen den CO2 kopuruari gehituko bagenio, estatistikak oso bestelakoak lirateke.

Janzten ditugun arropek ingurumenean uzten dituzten arrastoak azaleratu ahala, jatorri ekologikoa duten jantziei balioa ematean hasi dira kontsumitzaile asko. Alabaina, sarri jasangarri eta naturaltzat saltzen den ehuna ez da berez dirudiena. Horren adibide dugu biskosa, zuntz begetaletatik ateratako ehuna izanik ekologiko bezala saltzen baitute ekoizle askok eta askok. Errealitatea oso bestelakoa da ordea, biskosak oso kutsagarria den tratamendu kimikoa behar baitu. Moda Zikina txostenak azaltzen duenez, "susmoa dago kutsadura hori dela (biskosa-fabrikek isurtzen duten hondakin-urek eragindakoa) minbizi kasuak areagotzearen arrazoi nagusietakoa". Egoera honen aurrean, ehunen jatorri ekologikoa bermatzeko ziurtagiriak sortu dira.

Kutsadura alde batera, ur gehien kontsumitzen duen industria ere bada ehungintzarena. Munduko uraren %70a nekazaritzara bideratzen da, ehungintzak gehien erabili ohi duen zuntzaren laborantzara: kotoia. WWF Naturaren Aldeko Mundu Funtsaren arabera, kotoizko kamiseta bakar bat ekoizteko 2.700 litro ur behar dira. Gainera, kotoi laborantzaren %0,5a besterik ez dago kotoi organikora bideratuta.

LANGILEAK BIZI-ARRISKUAN

Ingurumenari eragindako kalteez gain, BRICS herrialdeetako langileek ehungintza ezaugarritzen duten lan baldintza negargarrien albo-kalteak ere pairatzen dituzte. Emakumeen zaurgarritasunaz aprobetxatu eta prekarietatearen feminizazioa zein pobrezia betikotzen dituen produkzio moldea darabil ehungintza industriak, eta Bangladesheko jostunetatik Erdialdeko Ameriketako maquiletako langileetaraino, beronentzat lan egiten duten norbanakoen lan baldintzak antzerakoak dira: esplotazioa, tratu txarrak, produktu toxikoekiko esposizioa —eta ondorioz, gaixotasunak pairatzeko arriskua—, sindikatzeko oztopoak, hamalau orduko lan jardunak, gardentasun falta, oinarrizko gastuei aurre egitea ahalbidetzetik urruti dauden ordainsariak, lantegien egoera kaskarra, lan segurtasunik eza... Ehungintza industriari denak balio dio irabaziak areagotzeari begira, adin txikikoen eskulanari ere muzinik ez egiteraino.

Arropa Garbia kanpainak argi dioen bezala, "milaka pertsonak jarraitzen dute egunero beren osasuna arriskuan jartzen, eta askok bizia galtzen dute arropa josi bitartean". Rana Plazako tragedia dugu adibide muturrekoa: 2013ko apirilaren 24an, Bangladeshen, 1.134 pertsona hil eta 2.500 inguru zauritu ziren —gehienak emakumeak— Europa eta AEBetako moda enpresentzako arropa ekoizleen lantoki zen Rana Plaza eraikina zerraldo erortzearen ondorioz, eraikinaren egoera txarra medio. Gertakariak jo-puntuan jarri zuen ehungintza industria beste behin, eta hainbat arropa marka seinalatuak izan ziren —Primark, El Corte Inglés edo Benetton enpresentzako lan egiten zuten eraikinean, besteak beste—. Presio horren eraginez hainbat enpresak kontrol mekanismo zuhurragoak eta praktika onak egiaztatzeko iniziatibak promestu zituzten. Baina ordutik egoera ez da askorik hobetu, eta horren adierazle da urte hasieran Bangladesheko ehungintzako langileek beren lan eskubideen defentsan eta soldata igoera exijituz egindako greba, zeinetan pertsona bat hil zuen poliziak eta 5.000 pertsona kaleratu zituen gobernuak.

Prekarietatearen feminizazioa zein pobrezia betikotzen dituen produkzio moldea darabil ehungintza industriak

ALTERNATIBAK GUREAN

Zorionez, moda industriaren kontsumo gurpiletik jaistea ahalbidetzen duten alternatibak badira. Inditex musu huts uztea, esan ohi denaren kontrara, posible eta uste baino errazagoa da. Kontsumitzeko ereduz aldatzeko uste osoa izatea, besterik ez da behar. Aldaketarantz pausoa emateko ez dugu inora joan beharrik gainera, janzterako orduan gurean ere baditugu aterabide interesgarriak. Zenbait adibide ekarri ditugu orriotara.

Arestian aipatu dugunez, beharrizana zena hartu eta botatzeko kontsumogai bilakatu du moda industriak. Horregatik, kuriosoa da elkarrizketatutako ekoizle txikiak jantzigintzan nola hasi ziren entzutea, beharrizanetik ekin baitzioten hau eta beste josteari. Izarrako Sandra Soler-ek denetariko osagarriak egiten ditu: motxilak, poltsak, gerriko poltsak,



pistolerak... Beretzat osagarriak josten hasi eta Caostura marka sortzen amaitu du: "Behin diru-zorro bat egin nuen proba gisa, eta nire lagunei gustatu egin zitzaien. Hurrena gerriko poltsa bat josi nuen, eta hura ere gustuko izan zuten. Hori ikusirik, neure buruari proposatu nion era informalean bazen ere nire lanak ezagutzera ematea, eta gaur arte". Barruko arropa eta konpresak ekoizten dituen Garbiñe Tolosa donostiarra ere beharrizanagatik abiatutako ibilbideak eraman du Maripuri Tijeritas marka sortzera. Haurra izan zuenean, ez zituen oihalezko fardelak aurkitzen, eta Frantzian erosi behar izan zituen. "Neure buruari esan nion ez zela posible, eta fardelak josten hasi nintzen, saltzeko, ikusten bainuen jendearen partetik eskaria bazegoela", azaldu du. Ostean konpresak egiteari ekin zion, "arazo berbera medio", eta hurrengo pausoa izan zen barruko arropa egiten hastea.

> **"Gauzak ondo egin eta aurrerapausoak ematen joan nahi nuen, ez orain arte gaizki egindakoa errepikatu"**
>
> Garbiñe Tolosa

Egiten duena ogibidea bakarrik ez, "gauzak aldatzeko nire modua" ere bada Tolosarentzat. Hasieratik, moda jasangarria egitea izan du xede: "Jasangarri ekin nion proiektuari. Ez nuen nahi edozein materialekin egindako lentzeria sortu, horren beharrik ez dago, badira hori egiten duten beste marka asko. Gauzak ondo egin eta aurrerapausoak ematen joan nahi nuen, ez orain arte gaizki egindakoa errepikatu". Egiten duenarekin aberastuko ez dela argi dauka, baina bere helburua gauzak aldatzea izanik, kontent da horretatik bizitzea lortu izanaz. Jasangarritasuna bere zentzu zabalenean ulertuz, arropa iraunkorra ekoizten du, ahalik eta hondakin gutxien sortzea bilatuz eta produkzio prozesuaren parte diren alde guztiak zainduz: nekazariak, biltzaileak, ehuleak, tindatzaileak, jostunak, bezeroak eta lurra bera. Ez dira gutxi bide horretan topatutako zailtasunak: bere diseinuak josiko zituzten tailerrak bilatzen hastean ohartu zen desagertzear zeudela gurean, eta zeuden modistek ez zeukatela barruko arropa josteko makinarik, beraz gertuen zituen aukerei jarraika Portugaleko tailerrekin lan egiten amaitu du; material natural eta jasangarririk ere ez zuen aurkitu etxetik gertu (produkzio kontrolatu bidezkoak, biodibertsitatea zainduz eta ongarri zein herbizida sintetikoen ordez metodo naturalekin ekoitziak), eta kanpora eskatzen ditu, jasangarriak direla dioten ziurtagiriez (GOTS, OEKO-TEX) fidatzera beharturik.


Trabak traba, horiei alternatibak bilatzen dihardu. Urrutitik ekarri eta produkziorako ur asko eskatzen duen kotoia beste ehun batzuengatik ordezkatu nahi du: "Hemen baditugu betiko materialak, lihoa eta artilea kasu, eta hortik jo nahi dut". Horrez gain, tindu sintetikoen ordezkoak ere hasi da erabiltzen: anilarekin, asunarekin eta granada azalarekin tindatutako kolekzio bat atera du Aitor Bastarrikarekin. Handia da Tolosak materialari ematen dion garrantzia, ingurunearen, langileen eta kontsumitzaileen osasunari dagokionez erabakigarria baita honen jatorria: "Arropa gorputzari itsatsita daramagu, zer esanik ez barruko arroparen kasuan, eta gorputzak dena xurgatzen du, substantzia kimikoak pilatuz. Poliesterrari, kautxuari edo tinduei alergia dieten emakume asko etortzen dira nire postura".

Solerrek jasangarritasunaren beste ezaugarri bat dauka bere jardunaren erdigunean: animaliekiko errespetua. Oinarrizko zerbait deritzo: "Kapitalismoak jendartea bultzatzen du jasangarria ez den animalien kontsumo arduragabea egitera. Uste dut posible dela hauei minik egin gabe bizitzea, bai elikadurari dagokionez zein janzterakoan". Hala, animalia jatorria duten materialik gabe lantzen ditu osagarri guztiak. Horrez gain, lehengaiak gertuan erostearen alde apustu egin du: "Metraje txikiko telak inguruko dendetan erosten ditut; bobinak, kremailera eta uhalak, aldiz, Valentzia edo Alacantera eskatzen ditut, non ehungintza industriak *alma mater* izaten jarraitzen duen".

Jasangarritasunaren gaia mahaigaineratzearekin batera azaleratu da beste kontzeptu bat ere: *Greenwashing*. Terminoak erreferentzia egiten dio hainbat enpresa edota erakundek, modu engainagarrian, beren burua naturarekiko errespetutsu aurkezteko burutzen duten aurpegi garbiketari. Jantzigintza ez da praktika hauetatik salbu, eta moda jasangarria darabil hainbatek aurpegi garbiketarako txanpon modura. Tolosari gaia atera eta Gipuzkoako Moda Iraunkorraren Klusterra aipatzea, dena izan da bat. "Klusterra Laura Chamorrok darama, bloggerra bera, eta bere argazkietan Inditexeko jantziak erakusten ditu", dio. Klusterrak abiatutako *Green Fashion* katalogoa ere ezpal bere-



koa omen: “Honen baitako marka askok kolekzio jasangarri bakarra atera dute”, katalogoan tokia egin diena.



KONTSUMO EREDUA, ERALDAKETARAKO GILTZA

Azpeitiako Ilazki Lili Arrueri kosta egiten zaio ‘moda etikoa’ bezalako terminoen baitan kokatzea bere burua, erabat koherentea izatea ezinezkotzat baitu. Bere hitzetan, “nire baliabide pertsonalak, fisikoak eta ekonomikoak kontuan izanik, ahalik eta koherenteen lan egiten dut, Biziki [bere arropa marka] produktuak erostera datozen bezeroak ere kontzientziaz erostera bultzatuz”. Egiten duena termino batzuen baitan kokatzea erraza egiten ez bazaio ere, helburuen artean du kontsumo arduratsua sustatuko duen moda jasangarria egitea. “Proiektu lokala da, hornitzaile txikiekin egiten dut lan, kantitate txikiak erosiz, modu artisauan ekoitziz eta sortzen ditudan hondakinen %90a baino gehiago birziklatuz”, azaldu du. Aurrera begira, eta jasangarritasunari dagokionez pauso bat harago joan asmoz, ingurumenaren zaintza kontuan hartzen duten oihal hornitzaileen bila dabil.

Kontsumitzaileei buruz galdeginda, jendeak artisau-lana geroz eta gehiago preziatzen duela iruditzen zaio Solerri. Ez deritzo aldaketa makala, kontutan izanik “erosi, erabili —sarri hori ere ez— eta botatzen duen jendarte kontsumistan” bizi garela. Tolosak, ostera, oso ondo kontsumitzen dugula uste arren gaizki kontsumitzen dugula dio: “Niretzako garrantzitsuena galdetzea da, baina arropa erostean jendeak ez du nondik datorren galdetzen. Adibidez, nik badakit nondik datorren erosten dudan letxuga, baina jendeak ez du jakin nahi arroparen jatorria”. Liliri, aldiz, iruditzen zaio kontsumo ereduaren inguruan kontzientziazio lan asko egin dela elikadura alorrean, jantzigintzaren alorrean ez bezala.

> **“Kapitalismoak jendartea bultzatzen du jasangarria ez den animalien kontsumo arduragabea egitera. Uste dut posible dela hauei minik egin gabe bizitzea”**
>
> Sandra Soler

“Botere asko daukagu erosteko unean, baina ez dugu erabiltzen”, dio Tolosak. Ekoizle gisa, alor horretan ere eragitea bilatzen du, bezeroengan kontsumoaren inguruko hausnarketa bultzatuz: jendearen kontsumo erritmoa apaldu guran urtean kolekzio bakarra aurkezten du, modaren erritmo eroak baldintzatuko ez dituen arropa atenporalez osatua. Ez da lan makala kontzientziak astintzea, hainbat faktorek eragiten baitute kontsumo ohituretan, hirigintzatik hasita: “Hiria modu ez jasangarrian erosteko antolatuta dago; erdian daude dendarik handienak, bazter guztietan dago Amancio Ortega. Hori aldatu ezean, argi da zein izango den joera”.

Moda industriarekin lehiatzea ezinezkoa dela iritzirik, honen kontra borroka egiteari utzi eta beste estrategia batzuei ekitearen aldekoa da Lili: “Kontsumo joerak aldatzeko alternatiben ikusgarritasunaren alde apustu egin behar dugu. Horretarako elkarlana ezinbestekoa dugula iruditzen zait, elkarren konpetentzia izatetik bidelagun izatera igaro gaitezkeela ulertuz”. Elkarlan hori lagungarri suerta daiteke hirurek, ekoizle txiki gisa, aipatu duten sentipen bati aurre egiteko: lan karga handiaren aurrean sarri azaleratu ohi den bakardadea.

PATRIARKATUA ETA KAPITALA, ALIANTZA KRIMINALA

Moda industria, feminizatua eta prekarioa izanik, emakumeen lan esku merkeaz baliatzen da irabaziak lortzeko. Alabaina, kapitalaren eta patriarkatuaren arteko aliantzaren zantzu gehiago aurkitu ditzakegu sektorean. Setem Hego Haizea Gobernuz Kanpoko Erakundeak landutako *Indarkeria kontsumitzen dugu?* txostenak adierazten duenez, kontsumo kapitalistak lotura du indarkeria matxistarekin, eta moda



industria ez da horretaz salbu. Txostenak aditzera ematen duenez, indarrean den moda ereduak emakumearen kanon estetiko eskuraezin bat bultzatzen du, berau lortzeko emakumeen eta hauen gorputzen gaineko kontrola indartzen duena. Merkatuak kanon hori eskuratzea promesten duten produktu anitz jartzen ditu salgai, eta produktuok emakumeen gorpuztasuna eta sexualitatea goresten dute, emakumeak eta beren gorputzak kontsumogai gisa aurkeztuz. Tolosak argi ikusten du hori barruko arropen merkatuan: "Mertzerietan esaten dizute 'bete eta goratu' egin behar dela (titiak, bularretakoak erosterakoan). Hori da saltzen dena, oso zaila da betegarririk gabeko bularretako bat aurkitzea. 14 urteko batek zergatik izan behar ditu kristoren titiak?". Emakumeak gauzak bailiran aurkezteari dagokionez, Parisen egiten den lentzeria azoka batez mintzatu da: "Marka bakoitzak stand txiki bat jartzen du, kanpoan barruko arropa daraman super-emakume batekin. Bezeroak konjunto bat aukeratzen du, eta standean den modeloak jantzi egiten du, erakusteko".

"Desfileak eta pasarelak horrelakoak dira", dio itzulinguru barik. Berak, gorputzen aniztasuna aldarrikatzen duenez, joera hori hausteko saiakerak egin ditu, moda jasangarriaren azken desfilean kasu: "Beste emakume mota batzuk aukeratu nituen desfilerako; haurdun zegoen bat, nire adineko bat eta azalean orbanak dituen bat. Eurak oso pozik atera ziren, baina ikusleek ez zuten ulertu, barre egin zieten". Egoera honakoa izanik, beste moda eredu bat aldarrikatzeko beharrizana nabarmena iruditzen zaio, eta xede horrekin jardunaldi batzuk egiteko ideia darabil buruan: "Jardunaldietara, adibidez, beste mota bateko bloggerrak ekarri nahi ditut, beren buruari etengabe argazkiak ateratzen dabiltzan gazteei erakusteko badela janzteko beste modu bat".

> **"Nire baliabide pertsonalak, fisikoak eta ekonomikoak kontuan izanik, ahalik eta koherenteen lan egiten dut"**
>
> Ilazki Lili

Horrez gain, aipatu txostenak azpimarratzen duenez, moda eredu hegemonikoak sexu/genero arau bitarra indartzen duen edertasun kanonak darabiltza. Alternatibak garatzerakoan hori ere kontutan hartzen duten ekoizleak ere badira han-hemenka: genero arau zurrunak hausten dituzten kolekzioak sortzen dituzten Kataluniako Arte Porvo edo Murtziako Las Culpass kasu. Modaren munduan oraindik leherrarazteko jostura asko dagoen arren, apurka-apurka erresistentziak sortzen ari diren seinale. ●





MONDRAGON pertsonak elkarlanean

Industria, Finantzak, Banaketa eta Ezagutza dira Korporazio sendo eta dibertsi katu egiten duten oinarriak.

Merkatu desberdinetan marka liderrak ditu: Laboral Kutxa, Copreci, Danobatgroup, Eroski, Fagor, Maier, Orkli, Orona, Ulma, LKS, Orbea eta Urssa besteak beste.

Euskal Herrian sustraituta, kooperatibak 261 entitateak osatzen dute eta horretaz gain kanpoan 128 produkzio planta ditu.

Enpresa jardueraz gain, gestio demokratiko propiodun sistema baten bidez garatzen da, eta inguruko gizartean konprometituta dago.

Kultura, ohitura eta hezkuntza babestea da betidanik Korporazioaren ezaugarririk aipagarriena.

www.mondragon-corporation.com

GIZATASUNA LANEAN

MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

ANTIESPEZISMOA

Tradizioa besta ez denekoa

Askekintza Donostialdeko talde antiespezistaren *Gurean* dokumentalak eztabaidaren erdigunean jarri du gizakiz bertzeko animalien erabilera, besten esparruan. Herritarren protestek aldaketak eragin dituzte, azken urteotan, Euskal Herriko hainbat herritan, baina bertze anitzetan, ordea, animalien erabilera bazter uzteko aukerari aurre egin diote, tradizioaren izenean.

EDURNE ELIZONDO ASKEKINTZA - TRAS LOS MUROS





Askekintzak Euskal Herriko mugimendu antiespezistaren lelo bilakatu du 2014. urtean martxan jarritako bere kanpainaren mezu nagusia: Festak ospatu, animaliak askatu. Donostialdeko talde antiespezistak horixe du helburu, eta egia bihurtzeko bidean urratsak egiteko, eztabaidaren erdigunean jarri du auzia: *Gurean* izenburuko dokumentala egin eta zabaldu du, besten arloko gizakiz bertzeko animalien erabilerari buruzko gogoeta pizteko asmoz. Euskal Herriko bestetan ezein animalia ez zapaltzeko eskatu du Askekintzak, urtez urte, 2014an abiarazitako kanpaina horren bidez, eta ekinaldi horri segida eman eta biribildu du *Gurean* lanak, hain zuzen ere. 2018an aurkeztu eta gero, ikus-entzunezko Argia Saria jaso du urte hasieran. "Ohorea da guretzat, gure lana serio hartzen ari diren seinale".



Askekintzak eskertu du saria, eta haren bidez jasotako bultzada espezismoaren aurka borrokatzen jarraitzeko konpromiso bilakatu du. 2010. urtean sortu zuten taldea, eta geroztik izan duen garapenak ekarri ditu kolektiboak egun dituen azala eta mamia. Urratsez urrats, antiespezismoa zabaltzea helburu hartu duen talde bilakatu da Askekintza, eta, xede hori betetzeko asmoz, inguru hurbilean eragiteko, euskaraz aritzeko, mugimenduaren izaera politikoa nabarmentzeko eta tranbertsalitatea bultzatzeko apustua egin du.

> **"Gizarteak badaki jende politizatua mugitzen ari dela animalien alde, badela sektore bat ohartu dena hau guztia aldatzeko beharra dagoela"**
> Linas Korta

Gurean dokumentala egiteko asmoak bat egiten du helburu eta apustu horiekin: Askekintzak agerian utzi nahi izan ditu, urte oro eta besten esparruan, Euskal Herriko edozein txokotan gertatzen diren jarduera zapaltzaileak. "Herriko plazan gertatzen dira", salatu dute. Haien inguruko gogoeta eragiteko asmoz kaleratu du taldeak dokumentala, "jendarte justuago baten alde egiteko". Xede hori betetzea lortu du Askekintzak, neurri handi batean: "Ez gara Euskal Herriko etxe guztietara iritsi, baina argi dugu epe luzera dokumentalak eragin sakona izango duela. Emanaldi asko egin dugu, eta harrera ona izan da". Gainera, dokumentalak ekarri du animalien erabilerari buruzko eztabaida mahai gainean jartzea herri askotan, eta prozesu horiek baliatu nahi ditu kolektibo antiespezistak gizakiz bertzeko animalien alde lan egiteko.

Adibiderik argienetako bat da Hernanin gertatzen ari dena. Jai batzordean dira Askekintzako kideak, eta esparru horretatik aritu dira azken urteotan lanean. Lan horrek eman du emaitzarik, eta duela bi urte, adibidez, sokamuturra besta egitarauko egun batetik kentzea lortu zuten. Herrian bada aldaketa horri aurre egin dion talderik, halere: Sokamuturra Bai kolektibotik tradizioari eutsi nahi izan diote hainbat herritarrek, animaliak erabiltzen jarraitzeko.

Maiatzean mahai ingurua antolatu zuen Hernaniko jai batzordeak talde horren eta Askekintzako kideen artean,

Bakun
Arazoak dituzu testuekin?
Arazoak itzulpenekin?
Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak
Itzulpenak baino askoz gehiago!
Narkis Balentziaga, 2 · 20749 Arroa (Gipuzkoa)
✆ 943 148 306 · www.bakun.eus



hain zuzen ere. Aitor Jaurrietak parte hartu zuen Askekintzaren izenean, eta Chapu Apaolaza, berriz, Sokamuturra Bai taldearen izenean. "Naturarekin dugun harremana irudikatzen du sokamuturrak", erran zuen Apaolazak: "Sokamuturraren sokak garena irudikatzen du, gure nortasuna. Gure ohiturekin eta gure aurrekoekin lotzen gaitu soka horrek". Apaolazaren hitzetan, "zezenak ez du sufritzen". Askekintzaren koherentzia eskertu zuen sokamuturraren aldekoak mahai inguruan, gainera, eta erran zuen gizakiz bertzeko animaliak bestetan erabiltzea "dibertitzeko jarduera bat" bada, "txuletoia jatea ere" badela. Askekintzako kideek argi dute sentitzeko gai den ezein animalia erabiltzea dela espezista, eta erabilera horrek zapaltzen dituela norbanakoak. Berdin zezena edo haragi bilakatutako animalia.

ERRENTERIAN, KANPAINAREKIN BAT

Hagitz bertzelakoa da Errenteriko egoera. Herri horretan abiatu zuen Askekintzak Festak ospatu, animaliak askatu kanpaina. Hango jai batzordetik udalarekin egin dute lan talde antiespezistako kideek, 2014. urtetik, eta, egun, ondorioz, gizakiz bertzeko animaliarik ez dute erabiltzen herri horretako bestetan. Jai batzordeko lana protestekin eta bestak ospatzeko bertzelako moduekin uztartu dute urteotan guztietan antiespezistek , eta ahalegin horri esker, sokamuturra egiteko egunak murrizten joan ziren, hasiera batean, egitarautik desagertu arte, azkenik, 2017. urtean. Ez hori bakarrik: Errenterian egiten zituzten uso ehiza eta arrantza lehiaketak ere bertan behera utzi zituzten.

Gurean dokumentalak jasotzen du Errenterian egindako lanaren berri. Euskal Herriko hamaika txokotako bestetan gertatzen dena jarri du mahai gainean, eta gizakiz bertzeko animaliak erabiltzen dituzten bestak anitz direla agerian utzi du: zezenketak, entzierroak, ehiza eta arrantza lehiaketak, animalia erakusketak, zaldi lasterketak, idi eta zaldi demak... zerrenda, oraindik ere, luzea da.

Jarduera horien aurkako taldeek ere gora egin dute, eta Iruñean, adibidez, zezenketen aurkako jarrera garbia hartu duen kolektiboa sortu da, azken urteotan: Iruñea Antitaurinoa. Nabarmentzekoa da talde horrek ez duela urratsik egin entzierroen inguruko jarrera hartzeko. "Ez alde, ezta kontra ere"; esaldi horrekin azaldu zuen bere iritzia taldeak, jendaurrean aurkezteko zabaldutako manifes-







tuan. “Zezenketen aurka egin nahi dugu, jarduera hori bertan behera uzteko aukera badela uste dugulako”. Iruñeko Udalari ez diote zezenketen aurkako jarrera hartzeko eskaera zuzenik egin, halere. “Gizartean jorratu nahi dugu auzi hau; gogoeta piztu nahi dugu, herritarrek zezenketen aurka egin dezaten”.

Udalak bide beretik egin du, hain justu, azken urteotan: “Herritarren artetik sustatu beharreko aldaketa da”, nabarmendu du, behin eta berriz, EH Bilduko Joseba Asironek. 2015. urtean Nafarroako hiriburuko alkate izendatu zuten, eta urte hartako sanferminetan, bai eta hurrengoetan ere, jarrera argia hartu du zezenketen alde: zezen plazako palkoan eseri izan da, fraka eta txistera jantzita.

Nafarroako bertze hainbat herritan, galdeketen aldeko apustua egin dute udalek gizakiz bertzeko animalien erabilerari buruzko beren jarrera finkatzeko. Askekintzako kideek argi dute galdeketak ez direla zapaldutako norbanakoen eskubideen inguruan erabakitzeko modua. “Justizia kontua da; nola galdetuko diogu beste norbanako baten erabilerarekin eta sufrimenduarekin dibertitu nahi duenari jarduera horrekin aurrera egin nahi ote duen edo ez?”, galdetu dute antiespezistek. Nabarmendu dute, gainera, *Gurean* dokumentalak agerian utzi duen bezala, bestetan erabiltzen dituzten animaliok “agentzia” badutela: “Erresistitu egiten dira; saiatzen dira kalte egiten dien horri ihes egiten”.

Gizakiak erabiltzen dituen gainerako animaliok ere sentitzeko gaitasuna dutela erantsi dute Askekintzako ekintzaileek. Nerbio sistema zentrala edo antzeko funtzioa betetzeko organoak dituzten animaliek dute sentitzeko gaitasuna, eta hori nabarmentzen dute antiespezistek haien oinarrizko interesen alde egiteko. Bertzalde, gizakiz bertzeko animalien erabilera babesten dutenek, nagusiki, tradizioaren izenean egiten dute. Euskal Herrian anitz dira norbanakoak zapaltzen dituzten tradizioak, eta gizartea gai izan da horiek garatzeko, berdintasunaren eta justiziaren izenean. Irungo eta Hondarribiko alarde mistoen aldeko borroka da horren adibiderik argiena. Ez da bakarra: Euskal Herriko txoko anitzetan orain arte bakarrik gizonek hartutako plazetara atera dira emakumeak dantzara. Gizakiz bertzeko animaliak erabiltzen dituzten jardueren esparruan mantsoago doaz gogoeta prozesua eta aldaketa. Baina martxan da; eta zaila izanen da gelditzea. ●



LINAS KORTA
'GUREAN' DOKUMENTALAREN ZUZENDARIA

«Nire helburua da ekintzaile antiespezistei erremintak ematea»

Linas Kortak zuzendu du, Askekintzarekin batera, *Gurean* dokumentala. Ekintzaile antiespezistak egindako lehen lana da, eta animalien askapenaren aldeko borrokarako tresna izateko grabatu du. Gizakiz bertzeko animaliak erabiltzen dituzten Euskal Herriko besta guztien oinarrian espezismoa dagoela agerian utzi nahi izan du.



Zer da Argia Sari hau zuretzat?
Oso pozgarria izan da sari hau jasotzea. Edozein sarik zure lanaren aitortza ekartzen du, eta ARGIAren gisako hedabide batek emateak, gainera, berme gehiago du. Jarraitzen dudan hedabidea da; kritikoa da eta ikuspuntu zabalekoa; gustatzen zait. ARGIAk saria ematea, beraz, oso garrantzitsua eta pozgarria da. Balio izan du, gainera, dokumentala gehiago zabaltzeko, eta, batez ere, dokumentalak salatzen duena, berriz ere, mahai gainean jartzeko.

Zer helbururekin egin zenuen dokumentala?
Nik uste nuen beharrezkoa zela dokumentatzea Euskal Herriko festetan gertatzen den gizakiz besteko animalien erabilera; uste nuen hori guztia jaso egin behar zela, eta erakutsi; erakutsi, gainera, bere osotasunean, eta maila berean: hauek dira hemen ospatzen diren festak, eta hauek dira hemen zapaltzen dituzten animaliak.

Helburuak bete dituzula uste duzu?
Bai, erabat. Askekintzak ere, kolektibo antiespezista gisa, bere helburuak zituen, eta horiek ere bete direla uste dut.

Bestei eta animalien erabilerari buruz ari garenean, anitzek zezenak baino ez dituzte buruan; bertze animalia anitz erabiltzen dute Euskal Herriko hamaika txokotako bestetan, ordea. Hori agerian utzi nahi zenuen?
Bai. Garrantzitsua izan da, batez ere, abiapuntu beretik erakustea, adibidez, sokamuturra, zezenak eta antzar jokoa. Denen oinarrian espezismoa dago; denen oinarrian dago gizakiak beste espezietako animaliengana duen nagusitasuna. Erabilera horiek guztiak multzo berean jartzen dituzunean, agerian gelditzen da oinarri bera dutela. Niretzat garrantzitsua zen dokumentalaren bidez salatzea salatzen ohi ez diren jarduerak, ezkutuan gelditzen diren horiek. Euskal Herriko ia edozein festa egitarau hartzen baduzu, han eta hemen badira zapaldutako animaliak, eta garrantzitsua da hori jasotzea eta zabaltzea. Adibidez, arrantza eta ehiza lehiaketak egiten dira hainbat tokitan; herritarren gutxiengo batentzat antolatutako jarduerak dira, diru asko jasotzen dute, eta norbanako askoren heriotza eragiten dute.

Hemengo bestak, hemengo errealitatea, hemengo irudiak, hemengo espezismoa salatzeko. Inportantea zen hori zuretzat?
Bai. Garrantzitsua izan da, adibidez, zezenketak hemengoak direla erakustea. Hemen ere egiten dira. Inportantea da toki batean lan egiten duzunean bertako irudiak erakustea. Uste dut jendeak beste era batera hartzen dituela, eta erreakzioak ere ezberdinak dira irudi

HITZURUN
Hizkuntz Zerbitzuak
Morlans Bulego
Antonio Maria Labaien, 14-5.C
20009 Donostia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 598 626
hitzurun@hitzurun.eus
www.hitzurun.eus
bai euskarari
Ziurtagiriaren Elkartea

koop57 scci
finantza zerbitzu etiko eta solidarioak
koop57eh@coop57.coop
www.coop57.coop/eu/euskadi

hobelex
idite
Eguneratu zure euskara, indartu batasuna.
uzei.eus

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa
Baso Txiki 36, atzealdea · 20015 Donostia
✆ 943 32 72 08 · Fax: 943 27 49 77
www.baikara.eus · baikara@baikara.eus





horiek hurbileko zerbait islatzen dutenean. Hori guztiz beharrezkoa dela uste dut. Horregatik, nire proiektuak bi lan esparru ditu: tokiko lana egiten dut, baina ikuspuntu global batekin. Hau da, festak hemen gertatzen dira horrela, baina mundu osoan gertatzen diren jarduerak dira. Mundu osoan egiten dira horrelakoak ondo pasatzeko. Baina Euskal Herrian badute beren berezitasuna, eta hori da erakutsi duguna, hemen egiten dena.

Uste duzu *Gurean* dokumentaleko eta gisako irudiak ari direla lortzen herritarren arteko gogoeta piztea, animalien erabilerari buruz?

Gogoeta hitz potoloa da, eta jendeak, pentsatzen hasteko, behar ditu eraginen dioten gauza asko; dokumentala jendeari eragiteko elementu bat da. Hainbat sektoretan hasi dira gogoeta egiten, eta pozgarria da, noski. Baina Euskal Herrian, gizartea, oro har, animalien erabilerari buruzko gogoeta egiten hasi dela esatea gehiegi esatea iruditzen zait. Gaia hor dagoela badaki, hala ere, eta badaki politizatua dagoen jendea mugitzen ari dela animalien alde, badela gizartearen sektore bat ohartu dena hau guztia aldatzeko beharra badela. Gaia mahai gainean dago, eta uste dut dokumentalak lagundu duela horretan, auzia azaleratzen. Euskal Herriko txoko guztietan entzun da, behintzat, dokumentalaren berri.

Eta erakunde publikoak ari dira gogoeta egiten edo urratsak egiten?

Erakundeek kalean ikusten diotenari erantzuten diote. Erakundeak mugitu dira kalean herritarrek protesta egin dutelako. Jendea mugitu denean, udalek erantzun dute. Askekintzak, adibidez, protesta ugari egin zituen Donostian zezenketak kendu baino lehen; beste talde batzuek ere bai. Oreretan ere urrats handiak egin dira animalien erabilera bazter uzteko, eta hori gertatu da protestak egin direlako eta ekintzaileak mugitu direlako. Orain berdin gertatzen ari da Hernanin ere. Eta Nafarroako hainbat herritan ere gertatu da. Dokumentala erakundeen erantzuna eragiteko tresna bilakatu dela uste dut. Argi dago dena ez dela dokumental batekin konponduko, baina ekintzaileentzat tresna erabilgarria da, protestek gora egiteko, gaiari serio eusteko. Erabil dezatela.

Zergatik erabaki duzu zuk gizakiz bertzeko animalien alde lan egitea?

Erabilitako norbanako kopuruari so egiten badiogu, gizakiz besteko animaliak dira talderik zapalduena. Euskal Herrian bakarrik, 65 milioi hiltzen dituzte, urtean, hiltegietan. Munduan milaka milioi dira. Zoritxarrez, ez dute antolatzeko modurik. Protesta egiteko eta erresistitzeko gai dira, baina ez dute guk gure burua defendatzeko dugun gaitasun bera. Norbaitek egin behar du haien ordez. Zoritxarrez ere, jende gutxik egiten du. Horregatik nik uste dut esparru horretan lan egitea ezinbestekoa dela. Egoeraz jabetu nintzenean, ez nuen beste aukerarik: egin behar nuen.

Zergatik erabaki duzu lan hori irudien bidez egitea?

Irudiak tresna bat dira. Nire helburua da ekintzaile antiespezistei erremintak ematea. Irudiak oso tresna eraginkorra izan daitezke. Egun, irudiek inguratuta gaude, eta mugimendu sendo batek behar ditu kalitatezko irudi sendoak, profesionalak. Ni hori egiten saiatzen naiz. Gainera, beharrezkoa da kontrainformaziorako lan bat egitea. Animaliak esplotatzen dituzten industriak etengabe ari dira propaganda egiten; saltzen dizkigute behiak larreetan, txerri zoriontsuak; saltzen dizkigute festak ikuskizun polit baten gisa. Errealitatea oso bestelakoa da, eta, ondorioz, industriak zabaltzen duen mezu horri kontra egin behar zaio. Industriak esaten badigu hamar mila aldiz behiak larreetan bizi direla eta esnea nahi dutelako ematen digutela; eta guk hori gezurra dela erakusten duen irudia aurkezten badugu, gureak askoz indar gehiago du. Horregatik da tresna erabilgarria, eta eragin handia izan dezake. Nire ikasketak esparru horretan egin ditut, eta dudan ezagutza animalien alde erabili nahi izan dut.

Ekintzaileak ari zarete kazetariei dagokien lana egiten, neurri batean?

Bai. Ez da *Gurean* dokumentalaren kasuan, baina beste kasu askotan bai. Kazetariak zapalduen alde egin behar du, nire ustez, eta, ondorioz, animalien alde egin beharko luke ere bai. Kazetaritzak animalien aldeko jarrera hartu beharko luke, baina ez da hori gertatzen ari. Industriak errealitatea ezkutatzen du, eta hori zabaltzeko beharra dago. Arlo horretan, bai, ekintzaileok egiten dugu kazetariei dagokien lana. ●

MerkaERKIDE

Euskal Kooperatiben Plataforma Komertziala
Plataforma Comercial de las Cooperativas Vascas

¿Buscas proveedores de calidad?
Kalitatezko hornitzaile bila zabiltza?

Registrate en: Erregistratu zaitez:

www.merkaerkide.com

y recibe ofertas sin compromiso eta jaso eskaintzak konpromisorik gabe







Automoción
Automobilgintza
Maquinaria
Makineria
Ingeniería
Ingeniaritza
Electricidad
Elektronika
Mecanizados
Mekanizazioak
Automatismos
Automatismoak

Asesoría
Aholkularitza
Financiación y Crédito
Finantzaketa eta Kreditua
Artes Gráficas
Arte Grafikoak
Informática
Informatika
Limpieza
Garbiketa
Formación
Prestakuntza

Transporte y Logística
Garraioa eta Logistika
Construcción y Obra
Eraikuntza eta Obra
Mobiliario
Altzariak
Suministros
Hornidurak
Almacenaje
Biltegiratzea
Textil
Ehungintza

Más de 500 productos y servicios 500 produktu eta zerbitzu baino gehiago

Tel: 902 646 927 info@merkaerkide.com

ERKIDE
Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza, Consumo y Crédito de Euskadi

Ikudea

ANIMALIAK HAZI, HIL ETA JATEAZ

Beganismoa ingurumenaren mesede ala kaltegarri?

PELLO ZUBIRIA KAMINO ROSANNA MORRIS



Ingelesezko Wikipediak laburbiltzen duenez, beganismoak aldarrikatzen du uko egitea animalietatik eratorritako produktu orori, bereziki elikaduran, eta hari lotuta doa animaliak ondasuntzat erabiltzea arbuiatzen duen filosofia. Beganismoaren baitan zenbait kategoria bereiz daitezke. Elikadurazko beganoek [*dietary vegans, strict vegetarians*] uko egiten diote animaliazko edozein produktu jateari, ez soilik haragia, baita arrautza, esneki edo abereetatik eratorritako edozeri. Etikazko beganoek [*ethical vegans*] filosofia zabaltzen dute beren bizimoduko atal orotara, uko eginez abereen edozein erabilerari. Ingurumenezko beganismoak [*environmental veganism*] aldarrikatzen du abereetatik eratorritako produktuak egiteko horiek granja industrialean hazteak kalte egiten diola ingurumenari eta ez dela iraunkorra.

Beganoak, animalistak, antiespezistak... gure pretentsioa hemen ez da guztien aurkezpenik egitea, ezta beren ekintzek gure inguruan sortu dituzten erantzunena ere, ARGIAk badu Animalien Eskubideei lotutako albisteen atal bat.

Begano eta antiespezistei –osotasunean edo atal batzuetan– aurre egiten dieten planteamenduek ere gorputza hartu dute urteotan, indar kontserbadoreetatik sarri, baina baita jende aurrerazaleen aldetik ere. Hauen erakusgarri bat aipatzearren, 2019ko otsailean ARGIAk plazaratutako "Abeltzain txikiek animalista eta beganoei erantzun nahi diete" kronika, aurkezten zuena Frantziako Confederation Paysanne sindikatuko abeltzain txikien posizioa, ziurrenik Euskal Herriko nekazari txiki askok sinatu lezaketena.

Nekazarien eta begano-antiespezisten arteko harreman edo elkarrizketa beharrezkoa izango delakoan, artikulu bilduma bat osatu dugu –*Animaliak hazi, hil eta jateaz*– osorik ARGIAren webgunean irakur daitekeena; orriotara ekarri ditugu horietatik bi, animalien erabilera edo erabileraren ukoak ingurumenean eduki ditzakeen mesede edo kalteei buruzkoak.

*Animaliak hazi, hil eta jatea*z atala, orain artean, artikuluok osatzen dute:

"Zergatik bihurtu begano", William Gildea, Vegan Society elkarteko burua.

"Jasangarria eta etikoa al da haragia jatea?", elkarrizketa Simon Fairlie abeltzain eta kazetariari.

"Zer da beganismoa", Nor Euskal Herria Antiespezista elkartea.

"Laborarien hitza gizakiaren eta animaliaren arteko harremanez", Confederation Paysanne.

"Beganoak erabat oker ari dira", Paul Aries, Frederic Denhez, Jocelyne Porcher. ●



Rosanna Morris,
Erresuma Batuko Baserri Langileen Sindikatuaren 2019ko egutegitik.



William Gildea Britainia Handiko Vegan Society elkarteko zuzendaritzako kideak azaltzen ditu jendeak dauzkan arrazoi ugariak begano bihurtzeko, abereen produktuak murrizte hutsetik harago joanda. Artikulu hau *Why Go Vegan* izenburuz argitaratu du agroekologia britainiarrean erreferentzietako bat den *The Land* aldizkariak bere orrietan.

WHY GO VEGAN
The Land, 24 zenbakia, 12. orr

Zergatik bihurtu begano?

WILLIAM GILDEA

Zergatik egin begano? Arrazoi asko badira, baina ingurumenari dagokionez dieta beganoak lortzen ditu emaitza onenak negutegi eragineko gasen isurketei eta beste hainbat ingurumen arazori dagokienez.

Ekologista askok, arrazoiz, gutxitu nahi dute okela eta esnekien kontsumoa, baina zergatik ez saihestu osorik? Animalien produktuen erabilera zeroraino murriztea demostratu da dela Lurra planetan daukazun inpaktua txikiagotzeko bide sinpleetan onena.

NEGUTEGI GASEN ISURIAK

Klimaren aldaketa da, ezbairik gabe, gure garaiotako ingurumen arazo nagusia. Horri dagokionez zure pittina egin nahi baduzu, beganismoa da dietarik onena negutegi gasen isuriei dagokienez. Dieta beganoarekin ziurtatzen da Britainia Handian elikatzeak eragindako negutegi gasen isurien %60 moztea, alderatuz ohiko dieta omniboroarekin. Horrela erakutsi zuten Oxfordeko ikertzaileek "*Climatic Change*" izeneko azterlan batean. Ikerketak erakusten du dieta beganoak gainditzen dituela gainerakoak, haragi gutxiko dieta eta begetarianoa barne.

Berrikiago, Oxfordeko beste ikerketa batek erakutsi du ingurumenari laguntzeko daukagun "bide sinpleetan onena" dela dieta beganora pasatzea.

Arrazoi estrukturalak badaude horretarako. Dieta beganoak animalien produktuei egiten die uko eta abeltzaintzak berekin dakar hainbat inefizientzia. Animalien produktuak egiteko abereok elikatu egin behar dira, horiek [landareetatik] haragi, esne edo arrautza bihur dezaten, eraginkortasun tasa oso apalean. Abereari ematen zaizkion 100 kaloriatatik 12 eskuratzen dira; gainerako 88ak erre egiten dituzte animaliek beren mugimendu, zentzumen, arnas eta prozesu biologikoetan, Cassidy eta beste ikerlariek erakutsi dutenez. Horregatik da askoz ere eraginkorragoa landareak hazi eta zuzenean jatea horekin aziendak gobernatzea baino. Gainera, ukuiluetako abereek metano eta beste hondakin asko sortzen dituzte.

Batzuek diote larrean bazkatutako aziendek ez dutela laborerik jaten, kaloria galeraren arazoa saihestuz, eta larreko abelazkuntza klimarekiko abegikorra dela. Baina Tara Garnet Food Climate Research Networkekoak ikertu du abelazkuntzak karbonoa lurzoruan atxikitzearen kontu hori. Ikerketak erakutsi du ez dela egia: lurpean atxikitako karbonoa baino gehiago zen sortutako metanoa, alde handiz gainera. Honen arrazoietako bat da belarrak fibra asko daukala eta lixeritzerakoan negutegi gas horretako asko sortzen duela.

Datu horiek garbi hobesten dute beganismoa aukeratzea, batik bat IPCC Klimaren Aldaketarako Nazioarteko Panelak ohartarazi duenetik munduak 12 urte baizik ez dauzkala klimaren krisia konpontzeko. Gobernuen pasibitatea ikusita, eta bi graduko berotzea dagoeneko arrisku gabea ez dela jakinda, beganismoak hautu bikaina dirudi.

LURRA

Landare ekoizpenean oinarritutako ne-



kazaritzak behar duen lurraren halako bi erabili behar du abereak hazteak. Izan ere, abelazkuntza da munduan lur gehien erabiltzen duen sektorea, Nazio Batuen Erakundearen arabera. Populazioaren ugaritzerekin elikadura sistemari eragiten dion presioa ere handitzen ari delarik, zertan darabilgun gure lurra gero eta garrantzizkoagoa da.

Horrez gain, lur zabalera oso handiak beharko ditugu zabaltzeko oihanak, lurraren birikak. Nazioarteko Energi Agentziaren eta OECDren datuek erakusten dute mundu mailako gas isurketak berehala jaisten hasiko balira ere eta 2060rako zeroraino murriztu, hala ere zortzi milioi kilometro koadro beharko genituzkeela oihan berrietarako eta emisio negatibozko teknologietarako. Alegia, Indiaren lurrazala adinako bi.

Beraz, trantsizioa egin beharra daukagu abelazkuntzatik atera eta lurrari ahalik eta neurri handienean presioa gutxitzeko. Hau lortu beharko dugu batetik gaurko deforestazioa etenda, eta bestetik oihanen lurrazala zabaltzen hastea lortuta.

URA

Abelazkuntza da, lur gehien erabiltzen duena izateaz gain, urik gehien behar duena. Edateko uraren kutsaduraren eragile handia ere bada. Ur eskasia eta uraren kutsadura ere konpon ditzake landareetan oinarritutako jarduerak.

LURZORUA

Zenbaitek uste dute lurzoruaren kalitatea izan litekeela beganismoaren ahulgunea. Baina aziendek lurzorua zanpatzen dute, honela gehituz ura ez filtratzeko eta uholdeak sortzeko arriskuak. Eta sarritan esaten den arren mendi aldeak zailak direla aitzurrezko nekazaritza bertan ezartzeko, hala ere uraren ihesa eta uholde arriskuak larriagoak izan daitezke haietan.

Abereetan oinarritutako proteinak laga eta iraunkorragoak diren lekaleetara jotzea lagungarri gerta daiteke. Laboreok nitrogenoa lurrean finka dezakete aireari kendu eta sustraietan metatuz, lurzoruaren osasunaren lagungarri. Bestalde, lurzoruaren osasun galera etengabea da sintoma bat urtero uzta handiak ekoizteko egiten zaien presioarena. Lekale eta landareetan oinarritutako dietan zabaltzeak txikiagotuko du lurzoruaren gaineko presioa, laboreok zuzenean jatea eraginkorragoa delako.

BIOANIZTASUNA

Basoak eraisten direlako elikagaiak ekoizteko edo bazkatarako, bio-aniztasun alferrikako galerak ari da nozitzen. Bide batez esanda, abereetan oinarritutako nekazaritza da extintzioen eragile nagusia. Honek berriro garamatza efizientziarik ezaren puntura, eta hau landareetan oinarritutako eskemak konponduko luke.

ETA TARTEKA OILASKO PUSKA BAT JATEA?

Zein kalte egiten dio ingurumenari tarteka haragi zuri puska bat jateak? Zer diozue haragia murrizteko ideiaz? Zergatik da aukera zuzena erabat landareetan oinarritutako dieta?

Hasteko, nabarmendu animalien produktuen kontsumoa murriztea urrats positiboa dela. Inork ez du bere bizimodu osoa aldatzen gautik goizera, ahalegin guztiak dira txalogarri. Baina ekologistak urrunago joan behar luke.

Oilaskoak ingurumena txekorrek baino gutxiago kaltetzen dutela esatea ez da asko esatea. Oilaskoak jarraitzen du eragiten landarez ekoiztutako edozein produktu baino baliabide xahutze handiagoa, negutegi gas gehiago isurtzen du. Tarte handiz, gainera. Badirudi oilaskoak bere alternatiba diren landarezko jaki askoren karbono lorratza biderkatzen duela.

Zergatik den garrantzitsua? Gobernuak aski egiten ari ez direnez, beharko ditugu negutegi gasen isurien mozketa berehalako, sakon eta jarraiak. Bitartean mundu mailako isurketek handitzen jarraitzen baitute. Testuinguru honetan, norbanakoen ekintzak are dira garrantzizkoagoak. Batzuetan ezinezkoa da kutsadurari laguntzea; baina posible denean, ingurumena zaintzeko bide onena da klimarekiko abegikorra den dieta hautatzea.

Haragi murrizketaz gain, beganismoak baditu hobea egiten duten eragin gehiago: bizitzeko era bat da, definizio garbi batekin eta ulerterraza den aldarrikapen batekin. Burutsua da hurbiltzea gero eta eragin sozial, merkatu eta hedabideetako erakarpen handiagoa duen mugimendu ekologista baterantz.

ETA MUNDU GUZTIAK EGINGO BALU?

Irakurle askoren kezka izan liteke ea nolakoa izango litzatekeen mundu begano bat: nola ongarrituko litzateke lurra, eta abar. Baina tarte handia dago gaur begano bihurtzearen eta etorkizunik onena mundu guztia begano izatea litzatekeela sinestearen artean. “Nik zer egin behar dut” galdera kokatu behar da munduan besteak zertan ari diren testuinguruan. Haragi kontsumoa indartzen ari baldin bada eta Lurra planeta berotzen, gakoa hura ahalik eta gehien murriztean datza, eta honek eraman behar gaitu beganismora. Mundu begano batean simaurra falta litekeelako kezka arintzen da galdera hau eginez gero: nola lagundu diezaioket gehien planeta honi? Gero eta jende gehiagok sinesten du erantzuna beganismoan dagoela, eta gonbidatzen zaitugu mugimenduarekin bat egitera. ●





Simon Fairlie kazetari eta nekazaria ezaguna da Britainia Handian agroekologian interesa daukaten baserritar eta kaletar askoren artean. Begano/ez-begano eztabaidan leku bat egin du bere *Meat: A Benign Extravagance* [Okela, kalterik gabeko gutizia bat] liburuak. Esne-behiak eta txerriak hazten ditu Dorset eskualdeko Monkton Wyld Court etxalde kolektiboan. Sega ikastaroak ere ematen ditu. Elkarrizketa hau Low Impact webguneak plazaratu du *"Eating meat ethical or sustainable? Interview with Simon Fairlie, author of 'Meat: A Benign Extravagance'"* izenburuz.

SIMON FAIRLIE
NEKAZARIARI GALDEZKA

«Jasangarria eta etikoa al da haragia jatea?»

LOW IMPACT

Batzuetan jende bat galdezka datorkigu ea zergatik eskaintzen ditugun informazioak begetarianismoaz, beganismoaz eta abelazkuntzaz. Ez ote da kontraesankor samarra? Guk ez dugu hala uste, zeren eta gure asmoa da a) laguntzea kontsumitutako haragi kopuru totala murrizten, eta b) laguntzea jendeari bizimodua ateratzen baserri txikietan, eta hau askoz zailagoa da –ez denean ezinezkoa– abererik gabe.

Mundua bihar begano bihurtuko balitz, zenbateraino zailduko litzateke bizimodua baserritar txiki ekologikoentzako?
Beren aukerak murriztuta ikusiko lituzkete duda barik eta gutxitu egingo litzateke baserritar txikien kopurua. Funtsean murriztuko lirateke beren aukerak merkaturako ekoizteko eta behar bada beste zenbait gauza goxo ekoiztekoak ere bai, perretxikuak esate baterako. Azken finean, esan nahiko luke ezingo zenukeela etxalde txiki bat mantendu lurra goldatzeko modukoak ez diren eremu oso ugaritan.

Eta baserritar txikiei zenbateraino zailduko litzaieke bizimodua ateratzea soilik landareetatik? Askoz lan gehiago egin beharko lukete diru sarrera txikiagoen truke?
Hori da nire iritzia. Hori oso garbi ikusten da hemen, Monkton Wyld komunitatean. Hemen nik, lanaldi baten parte batekin, ekoizten dut esnekia den guztia –hau da, esnea, yogurra, gazta– gehi saltxitxa produkzio bat; eta hori 30 pertsonarentzako egunero, bataz beste. Aldiz, baratzeak bi pertsona dauzka lanean eta hala ere ez gara barazkitan buruaski izatera iristen, urrundik ere. Nabarmena da nola askoz lan gutxiagorekin elikagai gehiago ateratzen zaien animalien produktuei.

Nahi nuke ulertu zenbateraino zailduko litzatekeen bizimodua laborari txikientzako baldin eta ez balute aukerarik abereen produktuak ekoitzi eta saltzeko, behartuta lehiatzera laborantza industrialeko erraldoiekin.
Soroak egiteko lur oso onak ez dauzkaten baserritar txikiak ziurrenik negoziotik kanpo geratuko lirateke. Azokarako barazkigintzatik irabazi dezakezu bizimodua, baina horretarako zure lurrak laborantzarako oso kalitate onekoa behar du izan, ordokia, lurzoru onekoa, ez hezeegia, eta abar. Baina animaliarik gabe biologikoan ari den baserritar txiki bati askoz zailagoa litzaioke bizirautea kimikoekin ari den laborari bati baino, ez lukeelako simaurrik edukiko bere lurrari emateko –diru sarrera txikiagoak edukitzeaz gain–. Laboreak biologikoan ekoizten dituzten gehienek, esaterako, abereak ere badauzkate, hauturik burutsuena hori delako. Aldiz, kimikoan ari diren nekazari gehienek ez dauzkate zeren eta nitrogenoa erabiltzen baitute, erregai fosilez egina, eta lurzorua eraikitzen ez duena.

Fruitu arbolak baldin badauzkazu zure baserri txikian eta abereak ere bai, arbolapeko belarra da zure lehenbiziko uzta: arbolek ez dizute fruiturik emango



menturaz iraila arte, baina ekainerako uzta bat daukazu abereak elikatzeko belarrarekin, ordura arte arbolek hosto askorik ez edukitzeagatik eguzki guztia baliatu ahal izan duelako. Horrek ere zure etekinak handitu eta bizirauten laguntzen dizu. Aziendarik ez baldin badaukazu, orduan arazo bat daukazu: belarrak segaz moztea eskatzen du –edo okerrago dena, botikaz hiltzea– eta ez daukazu abererik zure arbolak ongarritzeko.

Britainia Handi gehienean, animaliarik gabe ez zinateke gai izango bizibidea irabazteko baserri txiki batetik. Horretarako goldatzeko moduko lur onak eduki beharko zenituzke. Eta orduan ere, goldatzeko lurrak dauzkan baserritar txiki bat baldin bazara zailagoa izango zaizu lehiatzea nekazaritza industrialarekin etxalde mixtoa daukan baserritar txikia baldin bazara baino, tamaina handiko etxaldeetan makinariak eta kimikoak erabiltzen dituztelako. Haragirik ez ekoiztekotan, askoz baserritar txiki gutxiago egongo lirateke –alde batera utzita azokarako ari diren baratzezainak– eta nekazaritza askoz gehiago industrializatuko litzateke.

Zure liburua aipatu dituzuna bezalako argudioz beteta dago. Zure ustez zein da eskaintzen duen ondorio nagusia?

Erakutsi dut munduko haragi eta esnekien %50 inguru ingurumenarekiko eragin handiz ekoizten direla, aberea elikatuz soroetan hazitako laborez, sistema oso ez-efizientea. Baina beste aldetik, landareki pila izugarri bat dago –landareak ekoizten berezitutako nekazaritzaren azpi-produktuak– gizakiok jaten ez ditugunak. Beraz, alferrik galtzeko jakiak dira –janarien hondarrak, eraldaketa prozesuetako hondakinak, hondatutako uztak, uzten soberakinak, goldatu ezin diren eremuetako landarekiak...– eta zentzurik ez du horiekin abereak ez elikatzeak. Zeren eta abereek simaurra ekoizten dute, lurraren emankortasuna bermatzen duena, eta kalitate handiko jakiak ere ematen dizkigute noski. Zentzurik ez du animaliak ekuaziotik kanpo uzteak.

Horren guztiaren gainetik, urte txar batean aski labore izango dela segurtatzeko, urtero plus bat uztatu beharra daukazu, horri deitzen zaio elikagai biltegia. Aziendek elastikotasuna dakarkiote elikadura sistemari. Ez balego aziendarik –edo beste zerbait, alkohola adibidez– zure gari, garagar eta beste labore soberakinak metatzeko, orduan jendeak ezingo luke nahikoa bildu urte txar batean eta horrek ekarriko luke uzta txarretako urteetan gosete arriskua handiagotzea jende askori. Arrisku hori saihesteko, labore soberakin bat sortu behar duzu urtero eta hori lortu duzunean, erabiltzeko modu eraginkorrena da horrekin abereak elikatzea. Ginebra ere egin zenezake, edo zure autoan erabili, baina modurik eraginkorrena urrundik ere da aziendak harekin bazkatzea, aukeran esnetarakoei, edo txerriei. Hala ez egitea, alferrik galtzea da. Zeren eta haragia eskuratzen duzu oso ingurumen eragin txikiarekin, nekazaritza sistemaren azpi-produktu bat delako.

Zu kritikoa zara haragi industrialaren sistemarekiko. Esango zenuke okela gehiegi jaten dugula?

Bai. Uste dut herrialde industrialetan gaur jaten dugun haragi kopurua heren batera jaitsi beharra dagoela baldin eta gelditu nahi badugu abereak laborez elikatzea –alde batera utzita lehen aipatzen nuen urte txarretarako gorde beharreko soberakin hori–.

Guk hartzen dugu saski batean haragi ekologikoa Yorkshireko baserri batek zerbitzatzen diguna. Robek, baserritarrak, esaten dit haragi kontsumoa denetan jaisten bada, haragi gutxiago jango duen edo okela erabat utziko duen jende hori bera dela normalean polilaborantzan ari diren baserritar txikiei erosten diena. Beraz, baserritar txikiek nozituko luketela kaltea baina granja industrialei ez liekeela eragingo.

Arrazoi ematen diot. Begano bilakatzen baldin bazara, alde batera uzten duzu haragi industriari presio egin eta abeltzaintza duin bat sortzeko daukazun indarra. Soilik haragi jasangarri bat kontsumitzen baldin baduzu –eta ni bezala beste askok aldarrikatzen dugu ez jatea granja industrialetako haragirik– orduan zu ere sortzen ari zara okela duin baten eskaria, eta prest zaude horren truke gehiago ordaintzeko, honela pizgarriak emanez baserritarrei haragia gizatasun handiagoz eta ingurumen eragin txikiagoz ekoitz dezaten. Baina okelari erabat uko egiten baldin badiozu, orduan ez duzu inolako eskaririk sortzen aipatutako produkzio duinarentzako, eta hori, lehen azaldu dizudanez, ez da batere ona ingurumenaren ikuspegitik.

Ados nago, ni ere, baina Robek esan ohi dit mezu honi arreta egiten dioten bakarrak direla gaiaz kezkatzen direnak, gehiengoak ez daukala arazorik granja industrialetako haragia jatearekin eta ez zaiela mezu hau axola.

Uste dut ideia hauek ari direla zabaltzen, kostata izan arren. Esate baterako, laster Britainia Handiko komertzioetan ez da egongo libre hazitako oiloen arrautzak baizik. Oiloak kaioletan edukitzea gauza txarra dela gero eta onartuagoa dago. Beraz, gauzak aldatzen dira.



Beganoei beste gauza bat esango nieke: mundua bihar bertan begano bihurtuko balitz, ezingo genukeela ehizatu ez untxirik eta ez oreinik –hauek berezko ehiztaririk ez daukate Erresuma Batuan–, edo ezingo genituzkeela abereak bazkatu fruitarbolen artean, edo basoetan, eta horregatik are habitat natural gehiago bihurtu beharko genukeela soro, labore eta barazkiak ekoizteko. Eta ziurrenik horrek ere esan nahiko luke gure janarietatik askoz gehiago egongo ginatekeela atzerritik inportatzera behartuak: soiaz egindakoak, platanoak, kokoak, arroza, eta abar.

Eta utziko bagenio arraina jateari –zenbait herrialdetan arrainak osatzen du jendeak ahoratzen duen proteinaren zati handi bat– askoz landa lur gehiago beharko luke laborantzak proteina horiek landarez ordezkatzeko, eta honek ere esan nahi du habitat naturalak murriztea. Egia da. Askoz lur eremu gehiago goldatu beharko litzateke gizakien janaria ekoizteko. Baina uneotan, laborantzako lur pila bat erabiltzen da abereentzako bazka ekoizteko. Beraz, [abereentzako bazka beharra kenduta] askoz lur gehiago geratuko litzateke erabilgai eta honek arinduko luke habitat naturalen aldatu beharra. Zalantzarik gabe, erabat dieta beganoan biziko bagina, lur gutxiago beharko genuke geure buruak elikatzeko. Baina larrean bazkatutako aziendek eragin onuragarria daukate lurrean. Belardian oinarritutako ekologia biziarazten dute, beti izan da horrela, belarjale basatien talde handiengatik, baina horrelakorik ez da gehiago gaur, ez bederen herrialde garatuetan. Behar duguna zera da: zuhaitz, belaze eta soro goldagarriz osatutako nahasketa txukun bat. Ez baldin badaukagu aziendarik, ezingo dugu horrelako nahasketarik eduki, ez badugu jokatzen suteekin edo erregai fosilekin eta makineriarekin. Eta hori zertan eginik ez dago. Abereek askoz eraginkortasun handiagoz egiten dute: beste edozerk baino hobeto egiten dute biomasa uztatu eta lurra ongarritzea.

Esperientziatik dakigunez, beganoek ziurrenik erantzungo dute ekologiak oso ondo egiten zuela hori bere aldetik gizakiek oihanak eraitsi aurretik belardiak sortzeko... ala hori ez zen ekologia "ona"? Gizakien aurretik ere baziren belardietan bazkatzen ziren abereak, eta beti egon da "gerra" bat –hala deitu nahi baduzu–zuhaitzen eta belazeen artean. Zuhaitzek konkurrentzia egiten diete belazeei itzala emanez, eta belardiak konkurrentzia zuhaitzei lurra estaliz zuhaitz hazirik bertan ez hazteko adina. Belazeak hori lortzen du abere belarjaleekin elkarlanean, zeren eta hauek belarra janez sortzen dute halako alfonbra gogor bat zuhaitzek eta zuhaixkek zeharkatu ezin dutena. Ezkur bat botatzen baduzu soropilean, ez da erneko, ez baitu aurkituko modurik lurzoruraino iristeko, lehenago iritsiko da abereren bat eta janen du ezkur hori.

Gizakiak ez zituen asmatu bazkatzen diren abereak, domestikatu besterik ez zituen egin.

Zer pentsatzen duzu argudio moralaz, alegia, gaizki dagoela abereak haztea edo izaki sentsible bat (sentitzen duen izaki bat) hiltzea? Iruditzen zait estukeria moral (*moral squeamishness*) kontua dela, benetan. Animali gehienen amaiera –baita gailurreko predatzaileena ere– da beste batek jana izatea noizbait, zahartu edo gaixotu direnean. Ez dut onartzen ere animaliek gutxiago sufritzen dutenik basatiak direnean abelazkuntzan baino. Abeltzainek zaindu egiten dituzte animaliak. Animaliek ematen dituzte okela, esnekiak, arrautzak eta baita lurrarentzako ongarria ere, eta abeltzainak bermatzen die bizimodu txukun bat, neguan elikatuta dauzka eta heriotza azkar bat ematen die. Horiek ezin dira bermatu bizimodu basatian.


Adibide bat jartzeko, basurdeek urtean 5 edo 6 kume hazten dituzte. Guztiak bizirik iritsiko balira heldutasunera, luze baino lehen mundua gainezka legoke basurdez. Baina denek ez dute bizirik irauten, inondik ere. Basurde kumeen %90 heldutasunera iritsi aurretik hiltzen dira. Horrela funtzionatzen du naturak: kume soberakin izugarria sortzen du eta horietatik gehienak edo predatzaileek jaten dituzte edo hiltzen dira gaixotasunez edo gosez. Gizakiak egiten duena da abereei bermatzea beren kumeak elikatuko dituela hiltegira bitartean, eta orduan heriotza azkar eta minik gabea izango duela. Ez dituzte hilko predatzaileek, zeinek sarritan ematen dizkieten izuzko minutu luzeak, eta ez diete utziko hiltzen oinazez edo gaixotasunez edo gosez. Animalia basatiek nozitzen dituzten beldur, agonia eta izuak oso urrun daude etxaldeetako animaliek bizi dituztenetik. Hau ez onartzeak, nire ustez, zerikusi handiagoa dauka norberak dauzkan sentsibilitate moralekin animalien ongizatearekin baino. Hau dena esatean soilik ari naiz animaliak kaiolarik gabe eta gizatasunez hazten dituzten abeltzain txikiez, ez nekazaritza industrialaz, honen kontra nago eta. ●

ITSAS MENDI Karabanak eta autokarabanak



Europako marka garrantzitsuenak:
KNAUS, HYMER, BENIMAR, PILOTE.
Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua
itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
Tel. 943 59 32 90

Ø200



Diametro 200.

Eskaintzen ditugun elikagaiak 200 kilometroko diametroko irudizko zirkunferentzia baten barruan hazi eta heldu dira.

Ona.

Zerbitzatzen ditugun jakiek ezaugarri organoleptikoak dituzte, lehen mailakoak dira eta bertan ekoitzita daude.

Garbia.

Jakiak metodo tradizional bidez prozesatuta daude, inguruarekiko errespetuari erabat eutsita. Ez dugu erabiltzen genetikoki eraldatutako animaliarik edota landarerik.

Bidezkoa.

Zinez uste dugu nekazari, abeltzain eta arrantzaleek bidezko ordainsaria jaso behar dutela.

Diametro 200
Slow Self Service eta kafetegia
Galarreta (Orona Ideo)
20120 Hernani
Tel. 943 26 50 22
Gureelikagai@gmail.com







▸ Orona Fundazioak
sustatutako proiektua

oronafundazioa.org

Orona
fundazioa



IÑAKI LASAGABASTER

Gasteiz, 1953. Bilbon bizi da eta EHUko Administrazio Zuzenbideko katedraduna da. Hamaika esparrutan aritu da, baina batez ere ingurumen gaiak, giza eskubideak eta, autonomia eta estatuaren antolakuntza moduko gaiak jorratu ditu. Sare-rekin aritzen da aholkularitza lanetan eta independentista katalanen auzian nazioarteko hamairu behatzaileen taldean dago. Frankismoan ELA-MSEko partaidea izan zen, gero ESB alderdikoa eta gaur egun ELA sindikatuko militantea da.

“Estatutu berria autonomiaren aldarrikapena geldotzeko ekimena da”

IÑAKI LASAGABASTER

Hamaika gaiez jardun daiteke katedradun arabarrarekin. Elkarrizketa honetan batez ere Euskal Herriko autogobernua, Katalunia eta hari egindako epaiketa, eta euskal presoen gaia jorratu ditugu. Bere ustez, Espainia nabarmen ari da egiten estatu autoritario baterantz.

XABIER LETONA IÑIGO AZKONA

Duela bi urte atera zenuen liburua, *Zuzenbide publikoa Euskal Herrian*. Nabarmen liteke ondorio nagusi bat?

Autogobernuaren ikuspegitik geldi samar gaudela. Hasieran autonomiak eman zizkigun eskumen batzuk ondo garatu ditugu, beste batzuk ez hain ondo, baina azken hamabost bat urtetik ona geldi gaude. Horrez gain, administrazioa apur bat lo ikusten dut. Egungo politikak nahiko burokratikoak dira, baina politikaren ikuspegitik ahulak.

“Estatu propiorik ez duen herri batek ez du bere askatasuna bermatzeko beharrezkoa den oinarrizko egitura politikoa”, esaten duzu liburuaren sarreran.

Horrekin estatua zein garrantzitsua den azaldu nahi nuen. AEBak edo Alemania estatuak dira, baina Baviera ere bai, edo Hanburgo edo Kalifornia... Jakina, estatu hauek daukaten boterea gurea baino askoz handiagoa da, batez ere botere politikoa. Euskal Herria eta Katalunia politikoki oso ahulak gara. Orain nor dago epaitua Katalunian? Parlamentua, Parlamentuko Mahaia, gobernua –Puigdemont ezik gainerakoak–, elkarte zibileko arduradun nagusietakoak... Hor dago gure botererearen neurria. Aipatutako herrialdeetan hori irudikaezina da. Adibidez, bat batean Ciudadanosek irabaziko balitu hauteskundeak Kontzertu gabe geldituko ginateke? Gure gizarte eta politikariek ez dute egoera estuaren kontzientziarik, edo nik behintzat ez dut halakorik ikusten, eta hori oso larria da. Hemen ere hasi ziren zigor politikekin Ibarretxe, Atutxa eta beste batzuekin, baina ez dugu ezer egin.

Hezkuntzaren ikuspegian, esaterako, unibertsitateko arloan izan dugun politika ahula izan da, azken urteotan bereziki. Energian ere gabeziak daude. Giza eskubideen arloan eta presoen eskubideen alde gauza gutxi egin dira, behintzat kanpotik ikusitakoaren arabera.

Beste adibide bat, lan harremanak. EAEn sindikatu abertzaleek gehiengo osoa dute, baina lan harremanetan oso mugatuak daude, Madrilgo legedia patronalaren aldekoa delako. Eta Eusko Jaurlaritzak ere onartzen du egoera hori, ongi datorkiolako. Alemanian länderrek dituzte telebista eskumenak eta salbuespen moduan federazioak ditu.

Begira zer gertatzen den telebistaren esparruan: guk baditugu eskumenak kulturan, baina plan teknologikoa, frekuentzien banaketa, estatuaren esku dago eta horrekin oztopatzen ditu gure harremanak. Estatutu berriarena ere oso prozesu ahula da. EAJren eta EH Bilduren akordioz eraman zen aurrera baina, egunkariek diotenagatik behintzat, esango nuke akordio hori erdi desagertuta dagoela. Azkenean, autonomiaren aldarrikapena geldotzeko ekimena izan dela uste dut. Beraz, legealdi bat “galdu” dugu. PSOEk ez ditu onartzen testu horietako planteamendu asko, baina une honetan EAJ eta PSOE eskutik doaz, eta oso pozik gainera. Beraz, EH Bilduk eta EAJk aurkeztuko dute halako estatutu berri bat PSOE aurka egonda? Ez dut ikusten halakorik. Horrez gain, hauteskundeak azarora aurreratu daitezkeela ere entzuten da. Gizartean ere galdu da autonomian sakontzeko edo erabaki eskubidearen aldeko tentsioa, alderdiek ez dute halakorik landu.



Ondo bizi garenez... Zertarako?
Ondo bizi gara ondo bizi garenak. Jende askok gorriak bizi ditu. Gazteen kontratuak nolakoak dira? Zergatik erabiltzen dugu hainbeste prekarietatea hitza? Kontratuak eta kobratzen dutena tamalgarriak dira. Zenbat balio du etxeak? Zenbat alokairuak? Jende asko iristen da ozta-ozta hilaren bukaerara, baina telebistan agertzen da gu besteak baino hobeto bizi garela eta kito.

“Gizartean ere galdu da autonomian sakontzeko edo erabaki eskubidearen aldeko tentsioa”

Gizarteak presio handia eginda ere gaitza da urrats esanguratsuak ematea, Katalunian ikusi den moduan; presiorik egin gabe, hemen bezala, jai dago.
Gizarte katalana oso indartsua da. Bakarrik pentsatzea Omniumek edo ANCk zer indar duten! Hemen pentsatu izan dugu indartsuak ginela, bagenuela giharra, baina elkarteen mundua asko ahuldu da. Ikusi erabakitzeko eskubidearen inguruko bozketak... Jende gutxik parte hartu du Donostian eta jende gehien bizi den Bilbon ez da egin. Jarri genuen martxan prozesu hori, baina ez dugu jakin izan nola amaitu eta fruituak ez dira izan pentsatzen zirenak.

Non egon daitezke gizartea norabide horretan aktibatzeko klabeak?
Kulturan, kultura oso zentzu zabalean



hartuta: kultura politikoa, egunkaria eta literatura irakurtzea, zinera joatea... Intuizioz diot, baina kulturaren ikuspegitik pauso bat atzera egin dugu. Gertakari handien aroan bizi gara, baina oinarrizko kulturan atzera goaz, auzoetan falta dira hitzaldiak eta bestelako ekitaldiak. Ni euskaldun berria naiz eta ETB ez zait batere erakargarria egiten. Entzuleria txikia izan daiteke, baina telebistaren rola ez da jende askorentzako bakarrik ekoiztea. Egia esan, ezkor nago eta bakarrik ikusten dut indartsu feminismoa eta neurri batean sindikalismoa.

Katalunia aipatu duzu lehen. Indar handia metatu dute, baina estatua etorri da eta sabaia jarri die. JxCat-ek estatuarekiko konfrontazioarekin jarraitu nahi duela dirudi eta ERCk gelditu eta indarrak metatzen jarraitu. Nola ikusten dituzu?

Presoak izanda oso zaila izango da prozesuarekin aurrera jarraitzea. Independentismoak ia gizartearen erdiaren sostengua lortu du, baina helmuga elkarrekin ikusten ez badute gaitza iruditzen zait gehiago aurreratzea. Geldiune bat izango da. Prozesu politikoa asko azkartu zuten, baina agian ez zuten ongi pentsatu independentzia aldarrikatu eta gero zer egin. Estatuak bere tresneria abiarazi eta gerarazi zituen.

Beraiek ez dakit, baina kanpotik hala gertatuko zela ikusten genuen.

Ez hain gogor. Inork ez zuen aurreikusi Zigor Kodea horren gogor erabiliko zutenik, matxinada delitua eta gisakoak erabiliz. Baina estatuak buruan zituen. Nik badut Javier Zaragoza fiskalaren 2015eko instrukzio bat non Guardia Zibilari eta Espainiako Poliziari agintzen zien kontrolatzeko mugimendu independentista eta bereziki ea ematen zi-

DOMINAZIO TRESNAK GAINDITZEKO



LIBURUA: ***Zuzenbide publikoa Euskal Herrian***
Lete argitaletxea, 2017
EGILEA: **Iñaki Lasagabaster Herrarte**

Nola daude eratuta euskal instituzioak? Historian nondik eta nola dator eraketa hori? Juridikoki nola egituratzen dira, zein eskumen dituzte, zein aukera garatzeko, zein elkarren harremanerako? Zein aukera dugu herri gisa gure burujabetza lantzeko? Galdera hauen erantzunak eta beste asko topatuko ditu liburuan murgiltzen denak.

Gaia kokatzeko Lasagabasterrek euskal zuzenbide publikoaren kokapen historiko laburra egiten du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa izen horiekin VIII. mendean eratzen direnetik edo Nafarroako Erresuma sortzen denetik eta gaurdaino. Liburuaren zatirik handienak, hala ere, Hegoaldeko instituzioen garapen autonomikoa jorratzen du. Neurri askoz txikiagoan, Ipar Euskal Herriaren prozesu institucionala ere lantzen da.

Zuzenbide publikoaren azterketa honetan garrantzi berezia izango dute *Ibarretxe plana* moduan ezagutu zen 2005eko EAEko Estatutu Berrirako proposamenak edo 2008an Eusko Legebiltzarrak onartu zuen Kontsulta Legeak. Lau kapitulu ditu liburuak. Lehenean errepaso historikoa egiten da. Bigarrenean oinarrizko kategoria juridiko-politikoak aztertzen dira: autonomia, eskubide historikoak, autodeterminazioa, lurraldea, hizkuntza…Hirugarrenean parlamentua, gobernua eta botere judiziala. Eta laugarrenean, Euskal Herriko lurraldeen arteko eskumenen eta harremanen araubide juridikoa.

Lasagabasterren esanetan, estatuaren teoriak eta teoria konstituzionalak gaur egun estatuen dominazio tresnak dira. Horien artean zuzenbidearen erabilera nabarmentzen du: "Izan ere, haren interpretazioaren bidez legitimatu egin nahi dira demokratikotzat nekez jo daitezkeen jarrera politikoak".

ELGOIBARko Udalean
euskara eta euskal kultura sustatzen

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua:
943 744 366 · euskara@elgoibar.eus
Kultura Zerbitzua:
943 742 158 · kultura@elgoibar.eus

Aita Agirre plaza 3, 1. solairua
www.elgoibar.eus · www.elgoibarreraz.eus
www.euskaraalaezkara.eus





2012an 1,5 milioi pertsona bildu zituen Diada ospetsuak.

Denbora horretan Kataluniako prozesua indartu egin zen eta gurea desagertu. 2014an Kataluniako lehen erreferenduma deitu zuten, gero debekuagatik prozesu parte-hartzaile deituko zutena. 2015ean Konstituzio Auzitegia birmoldatu zen, aurrerantzean auzitegiaren aginduak bete beharrekoak izango ziren eta bete ezean zigortzeko ahalmena eman zioten. 2016tik hona Konstituzio Auzitegia Kataluniako instituzioen aurka hasi zen fiskaltzaren laguntzarekin. 155. artikuluaz hiz egiten zen, baina ez Zigor Kodeaz eta kartzelaz. Egun batetik bestera agintari eta lider gorenak espetxean jarri zituzten.

ren matxinada eta sedizioa delituekin zerikusia zuten gertaerak. 2017an parlamentuak independentzia aldarrikatu zuenean nire burutik ez zen pasatzen hain delitu gogorrak leporatuko zizkietenik. [Jose Manuel] Maza fiskala zenak egindako espedientearen titulua zein zen? *Más dura será la caída* (Are gogorragoa izango da erorketa). Nire ustez, estatuaren aldetik nahita utzi zieten aurrera egiten eta gertaera batzuk probokazioa izan ziren matxinada delitua edo gisakoak bilatuz. Baina gizarte katalana txapela kentzeko modukoa da eta ez da probokazioetan erori.

Madrilen gero eta jarrera gogorragoa sumatzen da azken urteetan. Nola interpretatzen duzu hori?

Aznarrek 2000. urtean gehiengo osoa lortu zuenean Madrilen estatu autoritario bat eratzeko lehen mugimenduak hasi ziren. Ibarretxe lehendakariaren aurka jo zuten, Patxi Lopez beraren aurka... Gero etorri zen Kataluniako Estatutua 2006an eta PPk sinadurak eskatu zituen hura Auzitegi Konstituzionalera eramateko; 2008an kontsulta bat egiteko proposamena etorri zen Ibarretxerekin, 2010ean Kataluniaren aurkako Auzitegi Konstituzionalaren epaia, eta

Estatuko botere faktikoen indartze bat egon da azken urteetan, hori ikusten da Katalunian eta ikusten da Altsasuko kasuan. Azken hauen kasuan terroristak direla esatea, Auzitegi Nazionalean epaitzea, hamalau urteko zigorrak jartzea, Vox prozesuan egoten uztea... hori guztia ulertezina da Espainiako barne mugimendu horiek kontuan hartu barik. Gasteizen Ibarretxeren aurkako ekimenak bideratu zituen estatu abokatuetako bat orain Voxeko diputatu atera da. Beste adibide bat: Kataluniako prozesua zeraman estatuko abokatuak dimititu egin zuen esanez ez zegoela ados gobernua-

ogiaren egia
Galparsoro OKINDEGIA
Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak
Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

MARCOS okindegia
Benetako antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

TRADEBI TRANSLATION
tradebi@tradebi.com

rekin. Non dago? Ciudadanoseko Madrilgo hautagaitzan. Estatuaren sakoneko egitura politikoak oso gaizki ikusten ditu Katalunia edo Euskal Herriko mugimendu politikoak.

Tesi horren arabera, orain epaiketan zigor gogorrak egongo lirateke.
Hiru aukera daude. Bat, miraria, kartzela zigorrik ez egotea edo oso txikiak izatea, adibidez desobedientzia delituarekin. Bigarrena da bide bat uztea negoziatzeko. Eta hirugarrena, kartzela zigor handiak. Azken hau bada, uste dut estatuan sartuko garela askatasunen aurkako prozesu autoritario gogor batean. Besteak beste adierazpen askatasunaren aurka gogorrago joko da eta polizien eskumenak indartuko dira.

Eta instituzioen esparruan ere berdin, legebiltzar autonomikoek egindako legeen aurka Konstituzio Auzitegia hartzen ari den bidea botere banaketaren aurkakoa da erabat. Espainiako erregearen papera ere beste adibide bat da, ikusi zein mezu gogorra zuzendu zien katalanei. Eta zergatik bidali zien berak mezu hori, prozesu politikoan parte hartzeko eskumenik ez duenean? Berak agintzen duen guztia egon behar da ardura politikoa duen norbaiten sinadurarekin lagundua. Kasu horretan noren sinadura zuen? Hau da, erregea zuzenki sartu zen politikan eta Konstituzioaren arabera erregeak ezin du halakorik egin.

Katalan independentisten epaiketan nazioarteko behatzaile taldeko kidea zara. Nola ikusi duzu epaiketa?
Ni ez naiz penalista, baina bi gauza behintzat oso deigarri egin zaizkit. Bat, Manuel Marchena epaimahaiburuak une batean zera esan die abokatuei: *"yerra la defensa"* ("defentsa huts egiten ari da"). Baina nola da posible neutrala behar duenak hori esatea? Bi, Benet Salellas defentsaren abokatuak egin zituen hainbat galdera eta une batean Marchenak esan zion, galdera desegokia zela. Orduan Salellasek esan zuen ez zuela galdera gehiago egingo, "Bada, hobeto", erantzun zuen Marchenak. Baina hori zer da! Azokan, arraina erosten gerta liteke hori, baina auzitegi batean ez! Non eta zigor areto batean, garrantzitsuena epaimahaiaren inpartzialitatea denean?

Lekukoen adierazpenetan ere sekulakoak gertatu dira. Polizia bat esaten ari da erreferendumaren egunean eskoletan ziren herritarren aldetik biolentzia itzela izan zela eta abokatuak esaten duenean ikus dadila bideoan hala izan zen hala ez, Marchenak dio ezetz, hori bukaeran ikusiko dela. Baina nola? Metodologia errazena ikusteko lekukoak egia esaten duen edo ez bideoa ikustea da, eta gezurra badio zigorra merezi du.

Beste adibide bat. Guardia Zibilen arduradun Diego Perez de los Cobos eta Ferran López mossoen agintariaren artean kontraesan bat izan zen eta defentsak haien arteko bekaldura eskatu zuen, jakiteko nork esaten zuen egia. Ba ez, epaimahaiko lehendakariak ez zuen utzi, eta hori adibidez oso garrantzitsua zen, matxinada egoteko biolentzia egon behar delako eta esaten den biolentzia hori ez badago deliturik ere ez dagoelako.

Baina fiskaltzak esaten du horretarako nahikoa dela Generalitateak 17.000 mosso izatea bere agindueta-ra, hori indar armatu baten mehatxua dela.
Altxamendua izateko batzar bat izan behar da, non militarrek edo armatutako jendeak planifikatu behar duen ekintza militar bat, parlamentua okupatzea, telebista... Ez da horrelakorik gertatu. Beste gertaera bat: polizia bat ari da esaten manifestariak ari zirela gauza gogorrak jaurtitzen, eta abokatuek ea zer zen, eta poliziak "gauzak", ez zekiela zer... eta laugarren aldian Marchenak berak galdetu zion, "baina ea, botatzen zituzten gauzak ala ez?". "Ez", erantzun zuen poliziak. Halakoez josia da epaiketa.

Beste kontu bat, hitzen erabilera. Ohiko bizitzan nork eta non erabiltzen du "tumultuoso" hitza? Epaiketan behin eta berriro ikusten dira polizia lekukoak esanez, "si, había un tumulto..." ("bai, bazen iskanbila..."). Zergatik egiten dute hori? Zigor Kodean sedizioa definitzen duen esaldian "tumulto" erabiltzen delako. Kontua ez da hiru lekukok iskanbila egon zela esatea, baizik eta iskanbila egon zela frogatzea. Horrek erakusten du, gainera, nola duten prestatuta epaiketa.

Ikuspegi juridikotik oso modu deigarrian gertatzen ari dira halakoak?
Nire ustez bai, baina jakina, guk ere gure begiekin ikusten dugu.

Nola ikusten duzu Espainian noizean behin ateratzen den federalismoaren ideia?
Federalismo hitza erabiltzen da baina ez da esaten zer den hori. Azken finean, federalismoa teknika politiko bat bes-







terik ez da, baina estatuko arazoa plurinazionalitatea da. Federalismoa izan daiteke irtenbide bat, baina hasi behar da esaten Espainiako Estatua estatu plurinazionala dela eta, bereziki, esan behar da Katalunia eta Euskadi nazioak direla, eta nazio gisa gure izaera politikoa errespetatu behar da. Hortik abiatuta pentsatu behar da estatua. Bestela, beti zaude Konstituzio Auzitegiak dioenaren menpe. Beste lurraldeek ere hori egin nahi dutela? Ondo, haiek ikusiko dute. Gu nazio gisa errespetatzeko, lehenengo baldintza litzateke ez jotzea gure aurka Zigor Kodearekin planteamendu politiko bat egiteagatik. Eskozian egin dezakete erreferenduma eta hemen ez? Han egiten duzun gauza beragatik hemen kartzelara zoaz? Katalanen auzian Auzitegi Gorenean egon naizenean nik han umiliazio politikoa besterik ez dut ikusten.

Oraintxe hautatu ditugu batzar nagusiak. Garai batean indartsua izan zen Lurralde Historikoen Legeari buruzko eztabaida. Gaur egun guztiz itzalita dago. Nazio eraikuntzaren ikuspegitik ez ote da egokiagoa Eusko Jaurlaritza indartsu bat, hau eta hiru diputazio indartsu baino?

Dudarik gabe. Arlo batzuetan Jaurlaritzak ezin ditu politika sendoak egin diputazioek dituzten eskumenengatik. Hori gertatzen da politika fiskalean. Guztiz beharrezkoak diren iruzurraren aurkako planak ezin dira era bateratuan egin. Eskumenen banaketa nahiko finkatua dago, baina hainbat politika aurrera eramateko gabeziak ditu: adibidez, lurralde antolamenduan ere beste horrenbeste gertatzen da. Ingurumenean eta atzerritarren adin gabekoen politiketan ere antzeko zerbait esango nuke. Kudeaketan dabiltzala ikusten dut, baina politika egiterakoan ahul ari dira.

“Sakabanaketa eta urruntzea gauza desberdinak dira, presoak egon daitezke sakabanatuak baina gertuko kartzeletan”

Ipar Euskal Herriarekiko harremana, esaterako, ahuldu egin dela uste dut.

Maiatzean ezagutu zen Gorka Frailek espetxe urruntzeaz Estrasburgoko Auzitegian jarritako helegitearen epaia, eta arrazoi eman dio Espainiari. Nola baloratzen duzu epaia?

Uste dut hemengo hedabideak nahiko ezkor agertu direla epaiarekin. Batetik, Estrasburgok esan du presoek eskubidea dutela euren etxetik gertu diren espetxeetan egoteko – [Mikhail] Jodorkovskiren kasuan ere horixe esan zuen 2014an–. Bestetik, helegitea aztertzen ari da ETA oraindik desagertu gabe zegoen garaiaz eta esaten du sakabanaketa politika ETAren jarduerari lotua dagoela. Beraz, ETA desagertzen denean sakabanaketak ez du zentzurik eta 2018an desagertu zen. Alde horretatik baikorra naiz.

Komeni zaigu gauza bat azpimarratzea: sakabanaketa eta urruntzea gauza desberdinak dira. Presoak egon daitezke sakabanatuak baina gertuko kartzeletan. Zergatik daude Algecirasen Euskal Herrian edo Logroñon lekua dutenean? Hurrengo epai batean aldaketarako aukera ikusten dut, baina zoritxarrez epai hauek hiru edo bost urtez behin ateratzen dira. ●



Mondragon Unibertsitatea



Learning from reality

BERRITZAILEA
Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea.

PRAKTIKOA
Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, «learning by doing» ez da slogana, geure DNAn txertatuta dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.

HURBILA
Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonistak.

KONPROMETITUA
Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura.

www.mondragon.edu



ARRANGOITZEKO LEHEN IKASTOLA, 1970

Beheko taldean, ezker-eskuin: Aitor Gallastegi,
Mikel Arandia (bizkar), Maitena Garate, Mikel Muñoa (bizkar).
Goikoan, Patrizia Daguerre, Ane Driolet, Maider Zabala,
Xabier Iriart eta Libe Goñi andereñoa.
Argazkitik kanpo, baina bertan zeuden, Claire Daguerre eta Aitor Arandia ere.

IANN TRULLE

Euskarazko irakaskuntzaren aldeko 50 urteko borroka

50 urte bete ditu aurten Seaskak, Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioak. Egun, 3.600 ikasle biltzen ditu 36 ikastetxetan. Murgiltze eredua hasi eta buru eskaintzen duen sare bakarra dugu. Sortu zen unetik, etengabe egin behar izan du borrokan.

MIEL A. ELUSTONDO

Haste hartan, Arrangoitzen du hazia Seaskak, 1969an, eta ama bat izan zuen aitzindari: Argitxu Noblia Richard. Haur txikiak zituen, eta lanean ari zen. Oraingo egunean bezala, lehenengo amak lagundu zion haurrak zaintzen, baina horrek ez zuen luze iraun ahal. Nobliak berak kontatu zigun Argian (2.201 zbkia). Ama baten hiru haurren istorioa da: "Aitor, Mikel eta Ellande, hiru haur banituen".

Ama hark bazuen kezka, haurrak elkarrekin euskaraz mintza zitezen nahi zuen, euskaraz bata besteari, euskaraz adiskide eta lagunekin. Ama hark ez zuen, ordea, euskara ttipitik ikasi, neke gertatu zitzaion ikastea. "Eta, hain zaila izan zen niretzat ikastea, pentsatu dut hastapenetik hasi behar dela euskara erakusten. Egun batez, senarrarekin eta beste lagun batekin hitz egiten ari nintzela, esan nuen: 'Norbait aurkitu behar dut haurrekin euskaraz hitz egiteko, jolasteko eta bizitzeko. Ez nuke nahi laguntzaile bat, irakasle bat baizik'. Han gurekin zen lagunak esan zuen ezagutzen zuela norbait. 'Gipuzkoatik heldua da, Donibane Lohizunen bizi da, lanik gabe. Bazuen gogoa eskolak emateko, errefuxiatuen haurrekin-edo. Baina ezer ez du. Ez du lortu ez Monzonekin hitz eginda ez beste inorekin. Badoa Parisera, ikasketak jarraitzeko, eta ikusi gero'. Senarrari esan nion: 'Joan zaitez Donibane Lohizunerat, aurkitu neska hori eta ekarri!". Libe Goñi Garate izan zen neska hori, andereño hori. Lazkaon sortua, Ipar Euskal Herriko ikastolako lehenbiziko andereñoa izan zen.



HENDAIAKO IKASTOLA, 1985

HASTAPENA, 1969

Ez zen aise izan, hala ere. Nobliak berak hartu behar ukan zuen ardura. Gerra ondoan Ipar Euskal Herrian babes hartu zuten hegoaldekoen ondokoak ez zitzaizkion bildu. "Guztiz frantsestuak ziren. Nire gain etorri zitzaidan lana. Deliberoa hartu behar ukan nuen. Libe Goñi etorri delarik, pentsatu dut: 'Nik eginen dut ikastola, nire haurrekin!'". Nobliak sentitu zuen haurren ardura zuela, eta etxeko ganbaran ezarri zuen lehenbiziko ikastolaren hazia, bere haurrekin. Hiru urte zituen Aitorrek; bi Mikelek; hilabeteetako haurra zuen Ellande". Laster, haurrak euskaraz mintzatzen hasi zirelarik, hartaz ohartu ziren ondoko jendeak; batzuk, harrituak ere baziren. Eta horrela galdegin zioten Nobliari: "'Nik ere badut haurra, ekarri ahal dizut, pixka bat euskarazteko?'". Eta Nobliak baietz. Lehen hiru haur, eta gero bost, eta gehiago gero... Eta tokia arazo. "Etxe hura ez zen egokia: bigarren estaian ginen, igogailu gabe, tokirik gabe, teilatupean... Eta bost haur dituzularik hor, zure gainean korrika, laster nekagarria da". Eta beste toki baten bila abiatu zen, Miarritzen. Etxetxo bat, baratzearekin. Menturaz, orduantxe egin zuen eureka! Nobliak: "Bai, han ginelarik, ikastola



DANIEL VELEZ

Ikasleak Korrikan, 1989an.

muntatzeko gogoeta etorri zaigu, eta beste lokal bat aurkitzen hasi ginen, beste haurren errezibitzeko. Eta Baionan hasi ginen, Cordeliers karrikan, Enbataren lokalean, Mixel Burukoa medikuaren laguntzarekin". Enbata mugimenduaren egoitzan ere ez ziren laketu, ordea. Hilabeteak besterik ez zuten eman: "Hura ere ez zelakoz toki egokia: lehen estaia zen, karrika ttipi batean, gela hertsia, argirik ez... Besterik behar genuen. Mixel Burukoaren lehengusu Jacquesekin mintzatu gara, Miarritzeko Braouko parrokiaren lokal baten ukaiteko. Han egon dira haurrak. Haurren guraso elkartearen izenean nik sinatu nuen. Han hobekiago ginen, baina ohartu ginen ez zela luzarorako izanen, eta xerka ari izan gara beti, beste lagun baten bidez –Lulu Garat, pintatzailea–, Arrangoitzeko lokala ukan dugun arte".

Orduantxe aldi batez baretu Argitxu Noblia, Libe Goñi, eta batetik bestera zebiltzan dozena erdi, zortzi bat haurrak. Elkarterik ez zuten artean, eta Nobliaren izenean ziren egiteko guztiak, Goñi andereñoaren izena Gizarte Segurantzan ematea barne. Horrek, eta lokal aldaketak legearen arabera egin ahal izateko, elkarte egitura hartu behar izan zuten. Horrelaxe sortu zen Seaska, Noblia lehenbiziko lehendakari, Manex Pagola idazkari eta Ramuntxo Kanblong diruzain zituelarik. Seaska. "Behin, *Haurtxo txikia sehaskan dago*... kanta entzun nuen Miarritzeko ezker paretan, Oldarra balletaren jaialdi batean, eta elkarteari izena emateko sasoian izen horixe heldu zitzaidan: sehaska". Oraingo eguneko Seaska, alegia.

Eta horrelaxe, agirietan esaldi bakar batez laburturik datorren bidea: "1969an sortu zen Iparraldeko lehenbiziko ikastola, Arrangoitzen".

1969. Baiona (1970, Arrangoitze). Bost haur. 50 urte iragan ondotik: 2019. Ipar Euskal Herria. 36 ikastetxe: 11 ama ikastola, 20 lehen maila, 4 kolegio (11-15 urte), eta lizeo bat (15-18 urte). Orotara, egun, 3.689 ikasle ditu Seaskak eskolatuta.

URTEAK BEZAINBAT BORROKA

Manifestaldiak, okupazioak, protestak, bilkurak... sortze beretik dira borrokan Ipar Euskal Herriko ikastolak. Etengabekoa da gatazka, Frantziako Konstituzioan bertan behaztoparri handiena duena, Frantziak ez baitu "eskualdeetako hizkuntzarik" ezagutzen, izan euskara, izan katalana edota okzitaniera. Parisek ez die ofizialtasunik aitortu nahi izan. Zerutik jakina da Frantziako Gobernuak ez duela Europako Hizkuntza Gutxituen Karta berretsia. Zenbaiten irudiko, hizkuntza gutxiturik ofizialtzen ez, eta errespetatzen ere ez ditu Frantziako Gobernuak. Jendearen nahikaria eta borroka temazuari esker egin du aurrera hizkuntza gutxituen irakaskuntzak Frantzian. Bide horretan, bada urte mugarririk aski.

Hasmentan, Seaskak bere gain hartu zuen ikastolen finantzazioa. Hala ere, ikasle kopuruak emendatu eta, ondorioz, gastuak ere handitu ahala, Seaskari ezinezko izan zitzaion berak bakarrik gastuari gain hartzea. Orduantxe erabaki zuen Seaskak Hezkuntza Ministeriora eta tokiko erakundeetara jotzea, diru-iturriak eskuratzeko asmotan. Sozialistak (PS) Frantzian boterera heltzearekin hasi ziren lehen bilkurak, hitzarmen bila, bai eta erdietsi ere 1982ko uztailaren lehenean. Orduko hartan milioi bat libe-



rako –152.449 euro– dirulaguntza ukan zuen Seaskak, eta dirulaguntza hori luzatu egin zen ondoko urtean.

1983. Zenbaezinak izan ziren manifestaldiak, okupazioak, gose grebak eta gainerakoak, eta horren ondorioz, Frantziako Hezkuntza Ministerioaren lehen ezagupena lortu zuen Seaskak, 1983an. Urte horretan, hiru urteko hitzarmena izenpetu zuen Seaskak Hezkuntza Ministerioarekin, zeinaren bidez Seaskak urtero bi milioi eta erdi libera –381.123 euro–, jasoko baitzituen. Urte horretan bertan sortu zen Herri Urrats, diru premia handiari erantzun nahian. Haatik, haziz ari zen Seaska: ama ikastolak irekiak zituen, eta haietatik lehen mailak sortu ziren; hauetatik, bigarren mailak.

1985. Hitzarmen berria Seaska eta Hezkuntza Ministerioaren artean. Ikastoletako irakaslegoa Hezkuntza Ministerioan integratzeko. Frantziako legebiltzarrak finantza lege bat onartu zuen horretarako, baina horren kontra jo zuten oposizioak eta irakaskuntza publikoko irakasleen sindikatuak, eta bertan behera utzi zuen legea Frantziako Konstituzio Kontseiluak. Eskuinak boterea berreskuratu zuelarik, Seaskak kontratu pribatuak izenpetu behar izan zituen Hezkuntzarekin, baina ez ziren errespetatuak izango. Urte zailak izan ziren, eta hainbat irakaslek hilabeteak egin zituzten lanean, soldatarik jaso gabe. Hurrengo urtean boterera itzuliko dira sozialistak, eta negoziazioen bidetik segituko du Seaskak.

1989. Negoziaketa neke eta luzeak eta gero, 1989an irakasleen zati bat –ama-ikastolako eta Lehen Mailako 61 irakasle–, Hezkuntza Ministerioaren gain ezarriko zuen lehen hitzarmena sinatu zuen Seaskak. Kolegioa eta lizeoa hitzarmen horretatik kanpo gelditu ziren (1993 arte ez zen hitzarmena kolegioari hedatuko). Ordurako, kasik mila ikasle eta hogei irakasle ziren.

1994. Irakasleak integratzeaz gain, hitzarmena izenpetu zuten Seaskak eta Frantziako Hezkuntza Ministerioak, ikastetxe pribatuen estatutu bera eskainiz ikastolei, Elkarte Kontratuaren bidez. Ikastola, irakaskuntza murgiltze ereduan oinarritzen duen eskola elebiduna izanen da. Kontratuaren ondorioz, sare pribatuan diren eskolei dagozkien neurriak bete behar dituzte ikastolek: programen aplikazioa, irakasleen ebaluatzea, ikasleen frantses mailaren neurtzea... Kontratu modu horrek ekarri zuen ikastolek dirulaguntza berriak jaso ahal izatea tokiko egitura eta erakundeetatik. Aipatu hitzarmenaren arabera, Parisek Seaskaren egitekotzat aitortu zituen hala irakasleen prestakuntza nola haiek bateko eta besteko ikastoletara bideratzeko kudeatzea.

1996an, Bernat Etxepare lizeoa Baionara aldatu zen. Kanbon izan zen ordu arte. Handik bi urtera, Ziburuko Piarres Larzabal kolegioa ireki zen, eta 1999an, berriz, Donaixtiko Manex Erdozaintzi kolegioa. Ikastolak ireki eta ireki jardun zuen Seaskak beti.


2000. hamarkada honetan, Seaskako ikastolak publifikatzeko eztabaida sortu zen. Negoziaketak ere izan ziren, baina Seaskak ez zuen publifikatzea onartu, Frantziako Estatuaren aldetik aski berme ez baitzuen jaso. Bestalde, Bretainiako Diwan eskolek ere gisako negoziatzea burutu zuten, eta publifikatzea onartu, alferretan, Estatu Kontseiluak akordioa hautsi eta Diwaneko eskolak eta Seaskako ikastolak sare pribatukotzat jo baitzituen.

2009. 40 urte Seaskak. D ereduko eskaintza bakarra Ipar Euskal Herrian. Iragan mendeko 80ko hamarkadan eredu elebiduna sortu zen eskola publikoan eta pribatuan, hastapenean ikastolei kalte egiteko asmoz, iduriz, nahiz eta azkenean ikastolak garatuz joan diren, baita eskola elebiduna ere. Urte honetan 27 ikastola ziren Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. 23, Lehen Mailak ziren; hiru, kolegio; bat, lizeo. 2.700 ikasle zituen Seaskak 2009-2010 ikasturtean, 180 irakasle, 110 langile. Urte guztiz, ikastola berriak irekitzen ari ziren.

2019. Seaska etengabe garatu da. Ikastolak, ikasleak eta zerbitzuak, denak handitu ditu. Seaska mugimendu saihetsezina bilakatu da Ipar Euskal Herrian, dela irakaskuntzako eragile gisa, dela euskararen aldeko eragile gisa ere. Irakaskuntzan, ISLRF Frantziako Errepublikako Hizkuntzen Institutu Goreneko kide da, non Bretainia, Okzitania, Katalunia, Alsazia eta Euskal Herriko ikastolak biltzen baitira, denak ere murgiltze eredua ezarria dutenak. Euskararen garapenari denaz bezainbatean, Euskal Konfederazioaren, Euskal Kultur Erakundearen eta Hizkuntzen Akademia Kontseiluaren partaide da.

50 URTE, IRAGANETIK GERORA

Sortu zen une beretik, etengabe jardun behar izan du borrokan Seaskak. Frantses politikaren itsukeria izan du beti kontra. Egia da aitzinamendu handi bat izan zela 1994an lorturiko elkarte kontratua –eskola pribatuaren estatutu juridikoa, finean–, hitzarmen hura sinatuz Seaskaren eredua salbatu baitzen. Epe luzerako aterabidea izan zen, ikastole-



Ikastolen mapa

● Ama eskolak eta lehen hezkuntza ● Kolegioak ● Lizeoa



Donibane Ziburu Donibane Lohizune	1970	**Errobi** Kanbo	1976	**Baigorri** Baigorri	2005
Amikuze Donapaleu	1971	**Aloze** Aloze	1978	**Arberoa** Donamartiri	2008
Gure Ikastola Hendaia	1971	**Xalbador** Kanbo	1980	**Bidarte** Bidarte	2009
Zaldubi Senpere	1971	**Ortzaize** Ortzaize	1985	**Arrokagarai** Itsasu	2010
Azkaine Azkaine	1972	**Bernat Etxepare** Baiona	1985	**Baigura** Lekorne	2010
Donibane Garazi Donibane Garazi	1972	**Oztibarre** Izura	1991	**Kaxkarotenia** Ziburu	2012
Eperra Sohüta	1972	**Olhain** Sara	1992	**Beskoitze** Beskoitze	2013
Ezkia Hazparne	1972	**Urruña** Urruña	1995	**Munhoa** Azkarate	2015
Louis Dassance Uztaritze	1972	**Piarres Larzabal** Ziburu	1998	**Biez bat** Basusarri	2015
Miarritze Miarritze	1974	**Manex Erdozaintzi Etxart** Lartzabal	1999	**Biriatu** Biriatu	2015
Oihana Baiona	1974	**Kimua** Angelu	2002	**Hatsa** Bokale	2017
Hiriondo Baiona	1974	**Ametza** Hiriburu	2003	**Eztitxu Robles** Baiona	2017

tako irakasleak ordaintzen hasi baitzen orduan Hezkuntza Ministerioa. Dena den, hor da oraindik Frantziaren eredua, eta menturaz hor da Seaskak daraman borrokaren zioa. Gisa horretara mintzatu zen Ixabel Charritton 2004an, Seaskako lehendakari zela: "Europa osoan Frantzia da eredu zentralizatua garatzen duen herrialde bakarra. Beste ereduak ondoan dituela, lagun dezake mentalitateak aldatzen Frantziaren baitan. Gure haur eta bilobentzat gauzak alda daitezke. Historia ez da nehoiz bururatzen". Baina urteak iragan dira, eta borrokan beti Seaska.

PARISTIK URRUN, TOKIKO HAUTETSIEN LAGUNTZA

Iparraldeko ikastolen buru izan zelarik, Ixabel Charrittonek zioen giroa aldatzen ari zela, bertako hautetsiak ohartuak zirela, euskara salbatzekotan, beharrezkoa zela zerbait egitea, izan zitezen abertzale, ezkertiarrak edo eskuindarrak. "Tokiko hautetsien mentalitateak ireki dira. Seaskari laguntza ekartzen diote gure proiektuak eta helburuak gauzatzeko. Ahal dutena egiten dutela uste dut. Arazoa da erabakia hartzeko ez dutela egiazko botererik". Charrittonek esplikatzen zuen egoera ez da sobera aldatu, edo batere ez. "Parisen hautetsi, diputatu eta senatari direnen artean gauza ez da batere aldatu. Iparraldean, aldiz, euskalgintzak eramandako lanak erakutsi du elebidun, edo eleaniztun, bizi daitekeela, euskaldunok ez garela identitate hertsi batean bizi, baina munduari begira". Iparraldean bertako hautetsiek hori ulertu badute ere, lehengo sineste berean dira Parisekoak, hala uste du behintzat Paxkal Indo Seaskako gaur egungo lehendakariak: "Haiei ez zaie kabitzen elebidun, edo eleaniztun, izan daitekeela, Frantzia, ehuneko handi batean, elebakarra baita, ez baitaki zer den beste



ikastola
elkarrekin
hezkuntza
eraldatzen
www.ikastola.eus

ikastolenelkartea

hizkuntza baten ikasteko interesa. Hor du bere iragan kolonialista, gainera: frantses batek uste baitu mundu osoan ibil daitekeela frantsesez hitz eginez".

Hor bada giltza bat, Charrittonek aipatua, tokiko hautetsiek egiaz indarrik ez dutela, alegia. Eta horretan bat dator Indo. Eta badu aski azalpenik. "Iparraldea 300.000 laguneko toki tipi bat da, 65 milioiko herrialdean. Gaur egun, badugu egitura bat, Euskal Hirigune Elkargoa sortu baitugu duela gutxi [2016], baina hirigune elkargo bat baizik ez da, ez da departamendu bat, ez eskualde bat ere –Akitania bezala–, eta ez du botere handirik". 65 milioi biztanle diren herrialdean, 300.000 lagun biltzen dituen egitura. Eta, ondorioz, bi diputatu eta erdi baizik ez dituena Parisen –bat Biarnoarekin banatzen baitute–. Zenbakien borroka inposiblea berriro: bi diputatu eta erdi, 576 diputaturen artean. "Eraman dugun lanak eman du fruitu, euskalgintzak gaur egun zutabe onak baditu hirietan, herri ttikietan, hirigunean, departamenduan, eta Akitanian ere. Baina ezin Parisen!". Paristik zer etorriko zain edo begira egon gabe egin behar izan du bidea Seaskak, urtero ikastola irekiz.

HIZKUNTZA POLITIKAREN ERAGILEAK

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) zuzentzen du hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian. Bertakoa da, Indok esan digunez. "EEP ez da egitura arrotza, baina Iparraldeko populazioak hautaturiko tresna bat. Egitura publikoa eta Frantziako Estatuaren barne izanik, ez da baitezpada dena lortzen, baina hala ere, tresna ezin hobea da eta, argi eta garbi, Iparraldean gauza asko egin dira euskararen alde tresna horri esker". Euskararen Erakunde Publikoak hamar urte ditu. Euskal Hirigune Elkargoak, hiru. Laguntzaile dira euskararen normalizazioaren bidean, mugak bistakoak badira ere. "Bretainian, departamenduak bi milioi euro ematen ditu bretainiera eskolentzat. Guk 350.000 euro jasotzen ditugu urtero EEPtik gure funtzionamendurako". Seaskaren funtzionamenduan dirulaguntzak %25 baizik ez dira. Horrek erran nahi du autogestioan ari garela, eta horrek gurasoen indarra galdegiten du". Horrek ere badu girbina, dirua lortzeko lan egin beharrak, bestelako lanak egiteko denbora galarazten baitu. "Eta ez dugu lan hori estrategian, hezkuntza proiektuetan eta dinamika berrietan. Seaskaren paper handia da gaur egunean beti eta beti diruaren eske joatea ezker-eskuin, eta akigarria da, eta frustragarria". Indok esan digunez, egitura berari eutsi beharrak dakarren lan nekeak, ez die uzten gogoan dituzten ametsak egiazki gauzatu ahal.

Seaska 50 urte ari da lanean, eta ezin ukatuzkoa da euskararen normalizazioari ekarri ederrik egin diola. Askok baino gehiago egin du, neketan eta penetan, baina egindako lanak izan du sari. "50 urtez egindako lanak errespetu zerbait ekarri digu Seaskan. Bai jende arruntaren kasuan, bai hautetsien buruetan. Seaskak irakasteko gaitasuna erakutsi du eta hori eginez normaltasun zerbaitean jarri du baliatzen duen hizkuntza, erran nahi baita, euskara". Euskararen normalizazioaz ari, Seaska parte-hartzaile handia izan da orain arteko bidean, AEK, Ikas, Euskal irratiak eta beste askorekin batera. "Euskararen aldeko hainbat egitura izan dira, eta, nonbait, denak batera lortu izan dugu tiratzea. Hori oso inportantea da, Iparraldean lortu baitugu euskalgintza eta euskara politikatik aparte eramatea. Aspaldi pentsatzen da Iparraldean euskara ez dela abertzaleen kontua, ez dela euskaldunen kontua, denena baizik, munduaren ondarea dela, eta dugun estrategia da denek batean tiratu behar dugula euskararen alde, ez dugula mugarik horretan, bakoitzak duen indarra behar dugula". Indok badu hori ilustratzeko baliatu ohi duen adibidea. "Beti erran dut: Seaskan behar ditugu hamar urtez egonen den lehendakari bat, baina, baita ere, badugu urtean egun bakar batez guraso bakar baten beharra ere, nahiz hiru talo edo talo bakar bat saldu. Inplikazio guziak behar ditugu, tipia ala handia", horixe baita Seaska, eta seguru, euskalgintza Iparraldean.

MURGILTZE EREDUA HERRI GUZTIETAN

Seaskak 36 ikastola, lau kolegio eta lizeo bat baditu gaur egun Ipar Euskal Herrian. Eta gehiago datoz, Indok aurreratu digunez. "Bosgarren kolegioaren irekitzea martxan ezarri dugu ja. Lau edo bost urteko lana izanen da orain. Bestalde, heldu den urtean Arbonan edo Ahetzen izanen da ikastola bat". Seaskak egiten ez badu, inork ez duelako egingo. Badakite hori. "Gaur egun ikasleen %10 eskolatzen dugu, eta badakigu, Unescok ere hala erraten baitu, bederen heren batek jakin behar duela hizkuntza, hura aitzina eraman ahal izateko. 30etik urrun gara oraindik, herenaren herena baizik ez dugu! Maleruski, ez dugu haur aski euskalduntzen Iparraldean, eta horretarako, derrigortuak gara ikastolak herri guzietan irekitzera". Eta Seaskaren lemari egin dio aipu: "'Ikastola, herri eskola' erraten genuelarik, zen herri bakoitzeko eskola ere izan behar zela ikastola". Gaur egun, lema hura egokitzera jo dute. "Orain diogu ez dugula baitezpada ikastola behar herri guzietan, baina bai D ereduko euskal hezkuntza behar dela herri guzietan".

Produkzioak abar
www.abarprodukzioak.com
kooperatiba soinueder
www.soinueder.com





Borroka da Frantzian tokian tokiko hizkuntzaren alde saiatzea eta murgiltze ereduaren faboretan entseatzea. Hor da beti Frantziako Gobernua Parisen, gaizki mintzo. Apirilean, Lurralde Kolektibitateekiko Harremanen Frantziako ministro Jacqueline Gouraulte, Alsaziako lurralde kolektibitateari buruzko eztabaidan, eskola publikoetan murgiltze eredua ezartzearen kontra mintzatu zen. Maiatzean, Jean-Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroaren txanda izan zen: hizkuntza gutxituak murgiltze sisteman irakastearen kontra mintzatu zen, frantsesa ongi ez ikasteko arriskua dagoela esan zuen. Indoren erantzuna: "Gure eguneroko borroka delarik ikasleek euskara ongi mintza dezaten!". Murgiltze ereduaren baitan ere ikasleak frantsesera lerratzen baitira erraz.

Hala ere, Seaskan, eta Alsazian, eta Katalunian, eta Okzitanian... aspaldi dakite Parisen zer dioten murgiltze ereduari buruz. Frantses nazionalismoarekin loturik dator prediku hori, Indoren irudiko. "Badakigu ezen, hain nazionalistak diren, hain elebakarrak diren, azken finean, hain zozoak diren, non ez duten ulertzen zein diren elebitasunaren eta eleaniztasunaren abantailak eta alde onak. Ezin ulertu dute, ez zaie kabitzen haien frantses buru ttipian". Ez dituzte, dena den, jendearen esanak, baina ministroen mizto estu zorrotzetik datozenak. "Oraindik horrelakoak entzun behar, eta ez edozeinen ahotik! Lurraldeekiko ministroa, batetik, eta Hezkuntzakoa, bestetik. Hain zuzen, Seaskak dituen bi loturak, bai lurraldea eta bai hezkuntza, biek dute zerbait erran gure sistemaren kontra, murgiltze ereduaren kontra. Ezin ulertua da, zeren eta ikerketa guzi-guziek erakutsi dute murgiltze ereduaren onura. Ez dakit zer beste erran ahal zaien, zeren ikerketaren emaitzetan ere ez baitute sinesten!". Indoren hitzek bat egiten dute Stephanie Stoll Bretainiako Diwan eskoletako lehendakariak aipatu Hezkuntza ministroari zuzendutako hitzekin: "Ez da posible halakorik esatea. Hark oso ondo daki murgiltze sistemak ez dakarrela elebakartasuna, baizik eta elebitasuna bermatzeko eredu bat dela. Informatuta dago. Ezin dut sinetsi halakorik erratea". Sinetsi ezinik batzuk eta besteak, Parisek uste ustel horietan fermuki iltzaturik segitzen baitu.

> **"Unescok ere erraten du, bederen heren batek jakin behar duela hizkuntza, hura aitzina eraman ahal izaiteko. Gaur egun ikasleen %10 eskolatzen dugu"**
>
> Paxkal Indo
> Seaskako lehendakaria

ETORKIZUNAZ BAIKOR

Karguaz jabetu zelarik 2005ean, Ixabel Charritton Seaskako lehendakari hautatu berriak zioen erdi betea ikusten zuela ontzia, "bestenaz ez nuen kargua hartuko". Charrittonek, dena den, euskara aitzinatzekotan Hegoaldearekin harremanak indartu behar zirela ikusten zuen. "Euskara da gure lotura, harreman horietan ematen diogu erabilera soziala euskarari. Iparraldeko garapen orokorra harreman horiei lotua da, izan zedin hizkuntza mailan, maila sozialean edota ekonomian". Eta, buruan, zioen: "Bordele eta Parisentzat ttipiegiak gara. Ez dute herri honetan interesik. Hegoaldeak, aldiz, bai". Hari horretatik tiraka, Indok uste du Hegoaldeko administrazioen aldetik laguntza badela, baina ez aski. "Ez dio erantzuten gure egiazko beharrei. Krisia zela, hautu politikoak zirela... gaurko errealitatea, nonbait, horretan da. Espero dut Euskal Erkidegoak egun batez berriz hartuko duela Iparraldea eta hizkuntza politika egiazki laguntzeko prozesu berri bat. Argi da, dirua da gakoa, eta beste gobernu batzuekin izan da diru askoz gehiago", esan du.

Bitartean, bidea luze, pausoa labur. "Baina ari gara, ttuku-ttuku. Erraz ez delarik, sasi guzien gainetik eta hodei guzien azpitik pasatu behar gara, bistan dena. Iduritzen zait, hala ere, zerbait lortzen ari garela herriaren indarrez, eta ez besteren indarrez". Herriak nahi duen artean izango da, beraz, Seaska, izango dira ikastolak, izango da murgiltze eredua Ipar Euskal Herrian. "Beharbada nire buruari sekulako gezurra erraten diot, baina nik geroa baikor ikusten dut. Zerendako? Bestenaz ezingo nuke horrenbeste urtez borroka eraman". Indok nahi du sinetsi, eta sinesten du oraindik, baikor izan behar duela, baikor dela bidea. "Eta inkesta soziolinguistikoek horren alde erakusmen zenbait ematen dute. Euskara igerilekuan itotzen ari zelarik, iduri du igerilekuaren zola hunkitu dugula, eta zola hori hunkitzean ahal izan dugula indar hartu berriz gora joateko". ●

APP ((112)) SOS Deiak

Larrialdietarako kit-a



Larrialdi guztietarako

Eskura ezazu

ANDROID APP ON Google play

Available on the App Store

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



SKOLAE

Hezkidetza, hezkuntza aldatzeko begirada hori

Nafarroako ikastetxeetan hezkidetza bermatzeko plana da *Skolae, berdin bidean*, maila guztietan "bazterkeriarik gabeko errealitatea" sustatu nahi duena: berdintasun ezarekiko ikuspegi kritikoa, hezkuntza afektibo-sexuala, autonomiaren lanketa, ahalduntzea, elkarbizitza...

SAIOA ALKAIZA GUALLAR



MALETA HEZITZAILEA

Gorputz kontzientzia handitzeko, erlaxatzeko eta emozioak lantzeko biodantza egiten dute Berriozarko Mendialdea ikastetxean (ezkerreko orrialdeko argazkian). Ondoko irudian, maleta hezitzailea, genero ikuspegia duten liburuz eta komikiz beteta, ikasleek nahi dutenean irakur ditzaten.

Nola jaiotzen dira txoriak?", 4 urteko haurrez beteriko biodantza klasean airera bota du galdera irakasleak; "arrautzetatik!", oihu egin dute ikasleek, aho batez. "Ongi da, beraz, jarri bikoteka eta bat arrautza izango da eta bestea, txoria". Lurrean eseri dira, binaka, bizkarrezurra kiribilduta eta burua bularraldera eramanda ipini dira arrautza izatea egokitu zaien horiek; bitartean, txoriarena egiten dutenek babes postura osatu dute, besoekin bestea inguratuz. Pixkanaka, arrautza hautsi eta jaio berri den txoriarena egiten hasi dira eserita zeuden haurrak, besoak hegoak nola astinduz. Gorputz kontzientzia handitzeko, erlaxatzeko eta emozioak lantzeko biodantza egiten dute Berriozarko Mendialdea ikastetxean.

Egun berbera, ikastetxe berbera, baina beste gela bat, Haur Hezkuntzakoa hau ere. 5 urte dauzkate ikasleek. 14:40ak dira, gelara sartzeko unea, eta beraz, goizean eta jolas-orduaren ostean egin ohi duten errutinaren ordua da: sintoniaren ordua; bost minutu hartzen dituzte, erlaxatzeko. Musika lasaia entzuten dute estresa gainditzeko. Haur batzuk lasai-lasai daude, aulkian eserita, ukondoak mahaian, begiak itxita, arnasaldi patxadatsuan, bakarrik; hiruko taldetxo bat elkarri ilea orrazten ari da, eskuen laguntzaz, hitzik esan gabe; eta dozena erdi bat lurrean dago, kuxinen gainean eserita, trena osatuz, elkarri bizkarra ukituz, masajea emanez. Norberak hautatu du non egon nahi duen, nola lasaitu nahi duen eta norekin. Behin atsedena amaituta, bare-bare dago ikasgela, eta lanari ekin diote.

Ariketa horiek ez dira kasualitatea. Ikasleak berdintasunean hezi nahi dituzte Mendialdean, eta horren harira pentsatu dituzte dinamikak, "kultura berdinzalea" sortzeko Nafarroako Gobernuak iaz abiatutako *Skolae, berdin bidean* hezkidetza programan parte hartzen duen ehundik gora ikastetxeetako bat baita Berriozarkoa. Iaz plana martxan ipini zutenean, hamasei ikastetxe pilotuetako bat ere izan zen. Bigarren urtez ari da, beraz, genero, arraza, jatorri, identitate eta beste ezein arrazoirengatik sorturiko zapalkuntza eta bazterkeriari aurre egin nahi dion plana aplikatzen. "Modu transbertsalean egunerokoan lantzen ditugu gaiak, eta gero tutore bakoitzak saio batean propio lantzen ditu hezkidetza, hezkuntza emozionala, talde kohesiorako ariketak...", azaldu du Ixiar Lujanbio ikastetxeko ikasketa buruak, pozik lortutako emaitzekin, "oso positiboa" baita zentroaren esperientzia. Eta bide beretik jo du eskolako zuzendari Marga Naranjok: "Bizikidetza arazoak prebenitzeko lana da hezkidetza lantzea. Hezkidetza aplikatuz, oso arazo gutxi izan ditugu".

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak 2017-2021 ikasturterako diseinaturiko egitasmoa da Skolae, lau ardatz jorratzen dituena: bat, berdintasun ezarekiko gaitasun kritikoa eta aldaketarekiko konpromisoa; bi, autonomia, inde-

pendentzia pertsonala eta enpleguaren zentraltasuna; hiru, lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala; eta lau, sexualitatea, elkarbizitza eta indarkeria prebenitzea. 0 eta 20 urte arteko haur zein gazteei bideratuta dago eta adinaren arabera eduki ezberdinak lantzen ditu, lau ardatz horietan oinarrituta.

Sexualitatea. Horra hautsak harrotu dituen ardatza. Puntu hori baliatu dute eskuineko alderdiek zein talde ultrakatolikoek Skolaeren lanketaren kontra jotzeko. Nolanahi, Nafarroako Gobernuak egindako lana defendatu eta aurrera jarraitzeko asmoa azaldu du.

Planaren sortzaileetako bat da Miguel Ángel Arconada, irakaslea eta maskulinitate berrietan aditua eta, haren aburuz, programak ziurtatzen du hezkuntza hezkidetzailea izango dela, orain artean ez bezala: "Programa integrala da, hezkidetza jorratzen duena ikasleek berdintasunean bizitzeko duten eskubidea bermatzeko. Ardatza hezkuntza komunitatean jartzen du, zeren eta bestela beti egongo da gaiarekiko interesa duen irakasleren bat edo batzuk, gaia lantzen dutenak... baina borondatearen menpe geratuko da. Hezkidetzari antolakuntzatik ematen dio planak erantzuna, zentroak publikoki esan behar du berdintasunarekiko konpromiso hori duela, esan eta egin". Orain arteko dinamikak tokian tokikoak eta irregularrak izan direlakoan dago, Skolaek, baina, "hezkuntza sistema osoari" begiratzen dio. Sare publikoko ikastetxe guztietan txertatuko dute aurrerantzean, baita eskola kontzertatu gehienetan ere –eskola kontzertatu batzuek uko egin diote Skolae lantzeari eta berdintasunarekin loturiko plan propioak garatuko dituzte, beti ere Hezkuntza Sailaren onespena jaso ostean–.

ERANTZUNAK EMAN BEHARREAN, GALDERAK SORTU

Kritikotasuna lantzea. Hori da ezinbesteko elementua berdintasunean hezteko. Horrela uste du Arconadak. Izan ere, hori izan da Skolaeren metodologiaren zutabea, ikasleek beren buruari galderak egitea. "Geletara berdintasunaren inguruko zalantzak eraman ditugu, baina kritikoek esaten digute gure helburua doktrinatzea dela. Doktrinatzea! Sutu egiten naiz hori entzuten dudanean. Nola ote da posible hori esatea oinarrizko metodologia ikasleek beren buruari berdintasunaren inguruko galderak egitea denean? Ezinezkoa da amaierako emaitza erantzun bakarra eta erabatekoa izatea".

Iaz, planaren ezarpena ez zen nolanahikoa izan, asko pentsatu zuten nola txertatu. Lehenik eta behin, egitasmoaren planteamendu teorikoa egin zuten; bigarrenik, proba pilotuak, hamasei ikastetxetan; hirugarrenik, eta ikastetxe horiek aholkatutako hobekuntzak jasota, "aberastu" egin dute; eta azkenik, zabaltzeko prozesuan daude orain. Tartean, ehunka irakasle eta adituren proposamenak txertatu dituzte. Gau-



ELKARREN ARTEKO ZAINTZA
Irudian, ikaskide bati gauza positiboak idazteko ariketa, norberaren eta ingurukoen zaintzan oinarrituta.



zak horrela, edukia "oso-oso landuta" dagoela dio Arconadak: "Irakasleak dira gaia lantzen dutenak, ez kanpotik etorritako adituak, baizik eta hezitzaileak eurak; horretarako, formakuntza handia jaso dute, bai ikastaro presentzialak baita sare bidezkoak ere. Gero, ikasgelan, metodologia eta ariketak askotarikoak dira, eta guztietan mantentzen dena ikuspegi kritikoa da".

Ez da bakarrik norbanakoen kontua, gainera: Skolaeren garapena jarraitzeko, batzordeak sortu dituzte ikusguneetan eta, beraz, horiek dira nola ote doan aztertzeaz gain, praktikotasunean egiturazko beste zenbait arlori so egiten diotenak, jolastokiaren egituraketari edota zentroaren materialei, kasurako. "Zentroaren hezkidetza beharrekin zerrenda egin eta bide-orri bat garatu behar dute, izan daiteke jolastokiaren berrantolaketa, edo liburutegia berritzea genero aldetik parekidea izan dadin, edo arduren banaketaren inguruko azterketa... Guztira hamahiru lan lerro ezarri dizkiogu eta tokian tokian erabakiko dute zer den haientzat lehentasunezkoa", dio Arconadak.

Gainontzekoan, ikastetxeak berak erabakitzen du nola landu edukia gelan; Lehen Hezkuntzan, tutoretza klaseak erabiltzen dituzte batez ere, gainontzeko ikasgaitan txertatzearekin batera. Dena dela, ez dago eskema itxirik. "Irakasle batzuek, ematen duten ikasgaiaren arabera, esaten ziguten: 'Baina nik nola landuko dut berdintasuna fisika edo kimika ematen badut?'. Bada, programa honen bitartez ideiak lantzen dira zehar lerro gisa berdintasunarekiko kontzientzia izateko".

TEORIA, ESKOLA EGINDA

Berriozarren malgutasun horren adibide bizia dira: ariketa batzuk Skolae programatik bertatik hartzen dituzte; besteak sortu egiten dituzte. Makina bat ekintza praktiko dituzte: maleta hezitzailea, berdintasunarekin loturiko liburuz beteriko maletatxoa; irakasleentzako eskuliburua, talde kohesioa eta emozio hezkuntza lantzeaz gainera, Skolaek egindako fitxak dauzkan liburu mardula; patio-laguna ekimena, zaintzaren inguruan egituratua, jolastokian inor bakarrik gera ez dadin; jolastokiko liburutegi ibiltaria, irakurketa ere jolas bihurtzeko; agenda feminista, hainbat emakumeren biografiak biltzen dituena eta haur guztiei ematen dietena ikasturte hasieran; "Emakumeak izendatu" dinamika,

> **"Programa integrala da, ikasleek berdintasunean bizitzeko duten eskubidea bermatzeko. Hezkidetzari antolakuntzatik ematen dio planak erantzuna, ikastetxeak publikoki esan behar du berdintasunarekiko konpromisoa duela, esan eta egin"**
>
> M. A. Arconada

Skolaek lau ardatz jorratzen ditu

1. Berdintasun ezarekiko gaitasun kritikoa eta aldaketarekiko konpromisoa
2. Autonomia, independentzia pertsonala eta enpleguaren zentraltasuna
3. Lidergoa, ahalduntzea eta partaidetza soziala
4. Sexualitatea, elkarbizitza eta indarkeria prebenitzea



Datutan

106
2018-19 ikasturtean Skolae eman duten ikastetxeak
9 ikastetxe 0-3 adinekoak
94 ikastetxe publiko
6 ikastetxe itunpeko

17.467
Programa jasotzen duten ikasleak.
Ikasle guztien %15,13
Kontuan hartuta bai 0-3 adina, bai derrigorrezko hezkuntza osoa, bai Lanbide Heziketa.

1.253
Skolaen parte hartzen ari diren irakasleak

Ekintzak

Berdintasunarekin loturiko liburuz beteriko maletatxoa.

Patio-laguna ekimena, jolastokian inor bakarrik gera ez dadin.

Jolastokiko liburutegi ibiltaria, irakurketa ere jolas bihurtzeko.

Agenda feminista, hainbat emakumeren biografiak biltzen dituena.



euskal eskola publikoa
denona, denontzako
ehige
Gurasoen elkartea
info+ 944 169 360 / ehige@ehige.eus / ehige.eus / Ronda 27, 1ezk, 48005 Bilbo

paretan hainbat emakume ezagunen izenen eta bizitzen berri emateko...

"Begirada da aldatu zaiguna, orain dena egiten dugu genero ikuspegiarekin". Naranjo zuzendariaren irudikoz, jarduteko formak beste molde bat hartu du, eta Lujanbiok berriz, hezitzaileen ardura aipatu du: "Lehenbiziko aldaketa da irakasleok beste jarrera batekin ari garela lanean, eta hori transmititzen dugu".

Irakasleak nola, ikasleak hala. Jarrera aldaketa da sumatu dutena, Naranjok dioenez: "Ikasleak gero eta kritikoagoak dira desorekaren aurrean, gelan esaten dute, ez dute onartzen, adibidez, ikusten badute dena genero maskulinoarekin idatzita gaztelaniazko klasean, zaintzaren lanarekiko sentsibilizatuago daude, lan banaketa dagoela kontziente dira...".

Eta kontzientzia hori lortzeko, ez dira gutxi egin dituzten ariketak: norbere etxean etxeko lanak egin eta argazkiak ateratzea, jolastokiaren azterketa egitea taldean, propaganda katalogoak hartzea eta genero ikuspegiz begiratzea, kantak aztertzea, beren gorputzaren mugak zeintzuk diren jakitea... "Besteak beste, ikasi dute zaintza oso inportantea dela, batez ere mutilek; neskei hori beti transmititu izan zaie, baina orain mutilek ere kontzientzia hori hartu dute", Naranjoren hitzetan.

> **"Kontra daudenen jarrera arriskutsua iruditzen zait, mugak jartzen ari baitira, eta esaten ari baitira zein den familiarik egokiena, eta bakoitzak izan behar duela identitate bat jaiotzeko sexuaren araberakoa, hori bai dela mugatzea"**
>
> Marga Naranjo

Lan hori guztia ez da soilik eskolan egin, Berriozarren kasuan udalak ere berdintasunaren aldeko kanpaina garatu du eta familien partaidetzak ere izan du mamia. Naranjoren arabera, oso ongi hartu dute familiek ekimena eta hori giltzarria izan da. "Sarri familiek parte hartu behar dute eskolako lanetan, adibidez, etxerako lanak egin eta gurasoek argazkiak atera behar dituztenean. Oso garrantzitsua da hori. Programak ongi funtzionatu dezan ez da bakarrik eskolan gelditu behar, familiek ere jorratu behar dute, eta inportantea da herri mailan zaintzea, nola ez; hemen udala oso inplikatuta dago. Izan ere, lana alferrik da gero eskolaz kanpoko jardueretara bazoaz eta hor ez badute ikuspegi horrekin lan egiten", azpimarratu du Lujanbiok.


Azpiegiturari dagokionez, jolastokia berrantolatzen ari dira, "eskaintzak berak transformatzen baitu non dauden neskak eta mutilak; haurrak non dauden eta zer egiten duten zehazten dute jolasek", zuzendariaren aburuz. "Lehen, mutilak erdian batuta zeuden, baina zenbat eta gehiago zabaldu eskaintza, orduan eta errazago difuminatzen da genero bereizketa, eta arazoak ere askoz gutxiago dira". Oraindik ere futbol zelai handia dute patio erdian, baina helburua da zelaia bazter batean jartzea eta erdigunea bestelako jolasetarako uztea. Mendixka batzuk daude, haurrak gainera igotzeko, baita berdegune bat ere. Eta txikien gunean aldaketak egin dituzte jada: bertako egurrarekin egindako bankuak dauzkate, erretxina kutsakorrik gabeak, etxola bat, zubi bat, koloretako gurpilez eta egurrez egindako azpiegitura bat, enbor bat lurrean zeharka jarrita, gainean igotzeko, eta espazio huts zabala, umeak euren kasa aritzeko.

Aldaketak aldaketa, prozesua erraza izan da Mendialdean, "inongo erresistentziarik" ez dute aurkitu eta bai ikasleek, bai gurasoek, baita irakasleek ere besoak zabalik hartu dute programa. "Gurasoek bikain hartu dute, hasiera-hasieratik azaldu zitzaien eta", zehaztu du Lujanbiok, eta ikasleekin antzera pasa da: "Mutilek ez dute ikusten pribilegioak dituztenik, ez dute ikusten galtzen ariko balira bezala. Gauza normal bat bezala hartzen dute, denek irabazten dutela ikusten dute". Horregatik, ia ulergaitza zaie Skolaeren kontura batzuek hauspotutako sua.

POLEMIKA ITURRI

Inposizioa. Genero ideologia. Umeen doktrinamendua. Horiek dira eskuinak eta talde ultrakatolikoek erabilitako





gaitzespenetako batzuk. Ez da makala izan genero berdintasunean eta sexualitatean sakontzen duen planak jasotako kritika: UPN, PP, Ciudadanos eta Vox kontra azaldu dira eta Guraso eta Familiaburuen Espainiako Konfederazio Katolikokoak auzitegietara jo du, "genero ideologia" zabaltzen duen "inposizioa" delakoan. Plana idatzi zuten bost pertsonak eta beste bost tutorek deklaratu egin behar izan dute Nafarroako Auzitegi Nagusian, M18 elkarteak, Concapak eta guraso talde batek aurkezturiko demandei erantzunez.

UPNko buru Javier Esparzaren aburuz, "generoa eta sexualitatea ulertzeko era bakarra" du xede programak. Bide beretik jo du Nafarroako parlamentuan bi ordezkari baino ez dituen alderdi popularrak: "Haurren buruan genero ideologia txertatzeko baliatu nahi duten zentzugabekeria da, eskandalua", esan du Ana Beltrán PPko bozeramaileak.

Change.org webgunean, Nafarroako Gobernuak egitasmoa bertan behera utz dezan sinadura bilketak daude martxan eta horietako batek 28.000 sinaduratik gora bildu ditu. Txanponak badu beste aldea ere sarean: hezkidetza programa Espainiako Estatura zabaldu dadin eskatzen duena. Gatazkaren tamainaren lekuko izan da Nafarroako Parlamentua: hainbat parlamentari Skolaeren aldeko kamisetak jantzita joan dira. Horixe da gatazkaren pisua. Ziklo politikoaren zurrunbiloaren erdian egon da. Eta titular mordoa sortu dituzte haren kontura.

Urak mugituta badaude ere, polemikaren benetako neurria zein den zehaztu beharko litzatekeelakoan dago Arconada: "Formazioa egiten ari zen %5ak baino ez du utzi. Oso kopuru txikia da". Kanpotik, kritika zenbait; barnetik, harrera ona. Gisa horretakoa izan da errealitatea, dioenez. "Irakasleen balorazioa oso positiboa da, anitza izan da edukia, online formakuntza eta praktikak. Formakuntza jasotzen duten irakasleek ez dakite polemika nondik datorren ere, esaten dute: 'Nola esan dezakete hori, lantzen ari garen material honi buruz?'. Ulergaitza da".

Testuinguru horretan, ezinbesteko galdera: nola liteke hezkidetza programa batek halako eztabaida sortzea? "Ez dagoelako gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko kontsentsu sozialik. Beraz, proiektu batek esplizituki landu nahi duenean gai guztiak jorratuz, sumindura pizten da". Argi du Arconadak. "Hezkidetzatik zalantzan jartzen denean gizonok matxista izaten jarraitzen dugula, gauza batzuei uko egin beharko geniekeela... pertsona batzuek ezbaian ikusten dute beren identitatea; egun, ez da onartzen maskulinitatearekiko eta horrek dakartzan pribilegioekiko jarrera kritikorik izatea. Erresistentziak daude". Ustezko gizarte itun batzuk daudela dio, "genero biolentziaren kontra mundu guztia dago" adibidez, baina iritzia ez da horren argia berdintasun gaiekin.

> **"Sutu egiten naiz doktrinatu nahi dugula entzuten dudanean. Nola ote da posible hori esatea oinarrizko metodologia denean ikasleek beren buruari berdintasunaren inguruko galderak egitea?"**
>
> M. A. Arconada

Harridura. Horixe da bai Lujanbiok bai Naranjok polemika klasifikatzeko erabilitako adjektiboa. Zuzendariak egin du hausnarra: "Hemen ez dugu inor behartzen identitate konkretu bat izatera edo familia konkretu bat izatera. Kontrakoa, berdin tratatzen ditugu familia guztiak: bi ama, bi aita, bakarra... Inoiz ez dugu deus kolokan jarriko familiaren arabera. Eta mutilak eta neskak izango dira beraiek sentitzen duten hori, eta guk onartuko ditugu. Kontra daudenen jarrera arriskutsua iruditzen zait, mugak jartzen ari baitira, eta esaten ari baitira zein den familiarik egokiena, eta bakoitzak izan behar duela identitate bat jaiotzeko sexuaren araberakoa, hori bai dela mugatzea". Erabiliaren erabiliaz higatutako "inposizioa" terminoa "berdintasunean ez heztea" litzatekeela uste du, halaber. "Kontra dauden ikastetxe horietan familia tradizionaletik at dagoen eredu edo pertsonaren bat egonez gero, nola sentituko da?". Galdera luzatu die Naranjok Skolaeren kontra mintzatzen direnei. ●


aldizkariak
ESKU-ORRIAK
liburuak
katalogoak
AGENDAK
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
LOGOTIPOAK
INPRENTA
offset eta digitala
DISEINU
GRAFIKOA
DISEINU
EDITORIALA
antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus



5 ibilbide oroimenerako

Ezagutu isildutako historia, gure arbasoek urratutako xendra eta kaleetan barrena.

URKO APAOLAZA AVILA



1 Enaren bidea



NON
Nafarroa, Zuberoa eta Biarno

IRAUPENA
Lau eguneko oinezko ibilbide zirkularra

LUZERA
65 km (Ibilbide leunagoa egiteko aukera, kolore zuriz)

ZAILTASUNA
Mendian ibiltzen ohituta dagoenari zuzendua

INFORMAZIOA
www.larutadelasgolondrinas.com





Mauleko espartin lantegietara joaten ziren emakumeek egindako ibilbideari jarraitzen dio proposamen honek. XIX. mende amaieran eta XX. mendearen hasieran, asko ziren Nafarroatik eta Aragoitik mendiak gurutzatuz lanera abiatzen zirenak Zuberoako hiriburura nola Biarnora, Oloroera; udazkenean zein udaberrian joaten ziren, eta "ainarak" (enarak) deitzen zieten sarritan.


Handik ez zituzten soilik janzkera, orrazkera edo kanta berriak eramaten etxera, migrazio horrek utzitako arrastoa askoz sakonagoa zen. Nekazaritza edo artzantzara ohituriko emakumeek lan guztiz ezberdina egin behar zuten tailerrean, baldintza ez oso honetan; urte erdiz bizi ohi ziren ideia aurrerazaleagoak egosten ziren Zuberoako gune industrializatuetan.

Eta bidean bizi izandako esperientziak ere ez ziren makalak: hiru edo lau egun irauten zuen oinezko bidaian arrisku ugari izaten zituzten –berez, legez kanpokoa zen muga horrela gurutzatzea–, askotan lainoak galduta.

Erronkariko espartingileen ingurukoak zaizkigu ezagunenak; Mendiak Bizirik elkarteak urteak daramatza historia hori berreskuratzen, enarak igarotako tokiak balizatu eta informazioa paratuz. Lau eguneko ibilbide zirkularra osatu dute: Belagua-Linza, Linza-Laskun, Laskun-San Martingo Harria, San Martingo Harria-Belagua. Inguruko gailur ezagunenak igoko ditu bidaiariak (Hiru Erregeen mahaia, Petretxema, Auñamendi...) Txamantxoiako oihan zabaletan edo Larrako paisaje ikusgarrietan barrena.

Berrikitan, eskualdearteko proiektu bat jarri dute martxan, antzerki, erakusketa eta dokumental batekin emakume horien bizimodua ezagutarazteko. Horri esker, Zaraitzu ibarrean haien izenak eta argazkiak biltzen hasi dira orain gutxi. ●

2 Joakin Iturbe bidelapurraren artadian



NON
Gipuzkoa (Mendaro)

IRAUPENA
Goiz pasa bat

LUZERA
8,3 km

ZAILTASUNA
Bidea marra hori-zuriz seinalatuta dago, baina sasiak janda askotan

INFORMAZIOA
www.debabarrenaturismo.com






Euskal historiografiak gaizkile gisa irudikatu izan ditu XVIII. eta XIX. mendeko bidelapurrak, agiri ofizialetan ere ez da gauza onik haien inguruan. Manuel Antonio Madariaga *Patakon* famatua salbu, gainerakoak ahaztuta izan ditugu, eta ahoz aho iritsi izan zaigu haien oihartzun lausoa. Aitzitik, gero eta froga gehiago ditugu esateko mendian ezkutuan aritzen ziren pertsona horiek ez zirela lapur hutsak, askok bazutela estimurik herritarren artean, bandolero sozialak zirela alegia. Hor dugu, esaterako, Batxi Landa *Tretatxu*, Bizkaiko *lapurren gobernadorea*. Hektor Ortegak liburu eder batean azaldu digu botereari erresistitu zitzaiolako egin zutela menpeko klaseek "heroi", justizia nahi bat zegoelako atzean. Seguruenik, zerikusia izan zuen XVIII. mendean kapitalismoa baserriko lehengaiekin espekulatzen hasi izana.

Arno mendiaren inguruak ere bidelapurren kabi izan ziren. Txomin *Beltza* ikazkinaren berriak iritsi izan zaizkigu, edo Joakin Iturbe *Santua* elgetarrari buruzkoak. Azkeneko hau trabukoa eskuan ibili ei zen denbora batez Gipuzkoa eta Bizkaiko mugan dagoen Arnoateko lepoan, Mendaron. Handikiei dirua lapurtu eta maizterrei bueltan itzultzen ziela dio kondairak. Kortsario ere ibilia, *Santua*-k makina bat aldiz egin zuen ihes korrejidorearen atzaparretatik, lagun zituen herritarrei esker. 1799an harrapatu eta Donostiako Motako gazteluan hil zen giltzapean.

Ibilbide honek, bidelapurraren atzetik garamatza PR Gi-43 xendra jarraituz. Mendaroko Sahatzu baserrian abiatu, Arnoatera igo, eta berriz ere Mendarora itzultzen da. Tartean, bidelapurren ezkutaleku izan zen artadi itxia igaroko dugu, egun Gipuzkoako zabalena. Eta zeinek daki, agian haietako batekin topo egiteko zortea izango dugu. ●

3 Martxoaren 3ko memorial ibiltaria



NON
Araba (Gasteiz)

IRAUPENA
2 ordu inguru

LUZERA
1,6 km

ZAILTASUNA
Ez du inolako zailtasunik

INFORMAZIOA
www.gasteizm3m.org
(ezinbestekoa da bisitak egin aurretik izena ematea)





Gasteizko hiriaren izaera aldarazi zuen iragan hurbileko gertaera baten berri bertatik bertara jakiteko aukera ematen du bisita gidatu honek. 1976ko martxoaren 3ko langile sarraskiaren eszenatokiak ikusiko ditugu Zaramaga auzoan barrena.

Frankismoaren azken urteetan mugimendu asanbleario zabala sortu zen Gasteizko lantegietan; arriskutsuegia erregimenaren erreformistentzat. Hala, 1976ko greba orokorra odolez zapaldu zuten, bost langile hil eta ehunka zaurituz. Erantzule politikoek oraindik ordaindu gabe daukate krimena.

Ibilaldi honetan bost geldialdi egingo dira eta gida baten eta audioen bidez azalpenak jasoko dituzte bisitariek orduan gertatutakoaz. Toki bakoitzean martxoaren 3ko oroimenari loturiko artelan bat dago paratuta. Manifestariak babestu ziren San Frantzisko elizara sartzeko aukera ere badago, eta *collage* teknikaz osaturiko proiekzio batekin poliziek irratitik emandako aginduak entzungo ditugu, hormigoizko paretak ere dardaraziko dituen hotzikara bat sentitu arte.

Memoriala osatu daiteke *Oroitour* tour politikoa eginez. Gasteizen barrena, XIX. mendetik hasita gaur egun arte hiriak izandako bilakaeraren bestelako kontakizuna da, bertsio ofiziala borrokatzeko diseinatua eta ulertzeko 70eko hamarkada ernaldutako langile mugimendu indartsu horren jatorria zein den. ●

4

GR-225
Ezkabako ihesa gogoratuz



NON
Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea

IRAUPENA
Lau eguneko oinezko ibilbidea

LUZERA
53 km

ZAILTASUNA
Sasoi betean dagoen ororentzat

INFORMAZIOA
www.gr-225.org





1938ko maiatzaren 22an Ezkaba mendiko San Kristobal gotorlekuan giltzapetutako 795 preso errepublikarrek ihes egin zuten. 1934tik kartzela-laborategi gisa erabilia, gerra zibilaren beroenean 2.500 lagun pilatu zituzten frankistek, hotza, gosea eta miseriazko baldintza penagarritan.

Ihes egindakoetatik 206 mendian hil zituzten ehizakiak balira bezala, inguruko herrietan antolatutako pertsekuzioen ondorioz; azken urteetan, epaiketa gabe hil eta lurperatutako askoren gorpuzkinak azaleratzen ari dira. Gainerako gehienak harrapatu egin zituzten eta berriz ere gotorlekuan sartu zigor oso gogorrekin –horietatik 14 Iruñean fusilatu zituzten, ihesaldiaren antolatzaileak zirelakoan–. Lau presok baino ez zuten lortu muga igarotzea.

Ihes egitea lortu zuen haietako batek ustez egin zuen bideari jarraitzen dio GR-225 ibilbideak, Urepeleraino. Lau etapatan banaturik (Ezkaba-Olabe, Olabe-Saigots, Saigots-Sorogain, Sorogain-Urepel), Jovino Fernández Leongo anarkistak sasian zela bi astez urratu zituen bidezidorretan barrena, aukera izango dugu "bizipenen arkeologia" egiteko eta hein txiki batean jakiteko zer sentitu zuen kasik hanka hutsik Ultzama eta Arga herioan igaro zituen miliziano hark.

Nafarroako Gobernuak gertaera hura gogoratzeko abian jarritako proiektuaren parte da GR-225 ibilbidea. Europako ihesaldi handiena izan zen Ezkabakoa, baina hala ere orain gutxi arte ilunantzean egon izan da. Zeharkaldian informazio panelak daude eta mendian fusilatutakoen hainbat hobi ere bisitatu daitezke, oroimen ariketa etengabea eginez. ●

5 Txango bat bunkerren erraietan



NON
Bizkaia

IRAUPENA
Ibilbidearen arabera

LUZERA
80 km (soilik zati batzuk seinalizatuta)

ZAILTASUNA
Ez du zailtasunik, autoz ere bisita daitezke toki zehatzak

INFORMAZIOA
***www.gogora.euskadi.eus* edo *www.cinturondehierro.net* (Sancho de Beurko elkartea)**





1936ko Gerran Bilbo eta inguruak tropa faxistengandik defendatzeko eraiki zuten Agirre lehendakariaren gobernuaren aginduz "Burdinazko Gerrikoa". Muskizko Punta Luceron hasi eta Fikan amaitzen zen gotor-lerroa; gutxi gorabehera 80 kilometro zituen, lubaki, metrailadore-habi eta bunkerrez osaturik.

Ingeniaritzako obra erraldoi hori osatzeko, arkitektu eta aparejadoreez gain, 14.000 langile aritu ziren lanean –tartean adin guztietako emakumeak–; inguruko bide eta errepideak ere hobetu zituzten, komunikazio sare sendoa osatzeko. Lanak 1936ko azaroan hasi zituzten eta 1937ko ekainean frankistek erasoa jo zutenean oraindik erabat amaitu gabe zeuden.

Askoren usterako "menperaezina" zen Burdinazko Gerrikoak, bi egun besterik ez zituen iraun zutik. Euskal imajinarioan traizio baten sinbolo gisa ageri zaigu hesiaren erorketa: Alejandro Goikoetxea ingeniariari egotzi izan diogu errua, planoak frankistei eman zizkielako. Ondoren frogatu den gisan, azpiegiturak funtsezko akatsak zituen, eta taktika militar berriei aurre egiteko desegokia zen. Hala, abiazio italiarraren eta Condor legio alemaniarraren bonbapean gudariek apenas izan zuten aukerarik.

Gerrikoaren zati handienak dinamita bidez lehertu zituzten ondoren, barruko burdina ateratzeko, baina bunkerretako aztarna ugari iritsi da guganaino erdi erorian. Eusko Jaurlaritzaren Gogora institutuak 2016tik bultzatutako lankidetza proiektu bati esker ondare hori balioesteko "Memoriaren ibilbideak" osatzen ari dira seinaletika bateratuarekin. Oraingoz, gerrikoaren zati batzuk zeharkatu daitezke Gueñesen (12 km), Ugaon (2,5 km) eta Galdakaon (6,9 km, 3,6 km eta 1,5 km-ko hiru ibilbide).

Burdinazko Gerrikoaren osagarri moduan, beste hainbat lerro ere jaso ziren 1937an. Esaterako, Artxanda mendian badaude lubakiak eta 2 km-ko zeharkaldia egin daiteke, Bilbo azken unera arte defendatu zutenen omenez Aterpe 1936 elkarteak jarritako eskulturatik hasita. Horrez gain, Larrabetzun, Sopela eta Berango artean, eta Laudion ere badago aukerarik gerrikoari buruzko interpretazio zentroak bisitatu edo ibilbideak egiteko talde memorialisten eskutik. ●

Atxega Jauregia

jatetxea



Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Hego eta Ertamerika disputan

AURRERA EGIN AL DA
GOBERNU AURRERAKOIEN GARAIAN

Z. OLEAGA

Aurreko mendeko ziklo neoliberala atzean utzita, Abya Yalako edo Hego eta Ertamerikako politikaren grabitate zentroa ezkerrean egon da 2000. urtetik. Mugimendu eta protesta herritar eraginkorrak, kontinente mailako aliantza berriak, gobernu ezkertiar edo aurrerakoiak herrialde gehienetan. Azken urteetan, ordea, eskuinak hainbat gobernu eta posizio ideologiko berreskuratu ditu, gorabidean dago. Zer lorpen eta gabezia agertu ditu ziklo aurrerakoiak? Zergatik ari da aurretik irabazitako hegemonia galtzen? Zer irakaspen atera daitezke?

1980ko eta 1990eko politika neoliberalek paisaia latza utzi zuten Hego eta Ertamerika osoan: pribatizazioak, muturreko pobrezia eta bortxa, ezkerreko mugimenduen txakalaldi luzea, AEBekiko menpekotasun osoa, besteak beste—Kuba, honetan ere irla izan zen—. Abya Yala, Panama eta Kolonbiako Kuna herriak horrela deitzen zion kontinenteari Kristobal Kolon heldu aurretik eta hainbat mugimenduk azken urteetan berreskuratu egin dute deitura. Basamortua igarota, ezkerra taupada berreskuratzen hasi zen: Argentinako *caceroladak*, Boliviako Uraren Gerra, Venezuelako *Caracazoa*, Mexikoko zapatismoa eta besterekin. Urte gutxiren buruan indar ezkertiar edo aurrerakoiek gobernatzen zuten herrialde askotan: Ekuador, Bolivia, Brasil, Paraguai, Uruguai, Argentina, Venezuela... Hegemonia berria gorpuztu zen Abya Yalan.

"Ziklo aurrerakoia" deitu izan zaio gutxi asko bi hamarkada hartzen dituen epealdi horri, gobernu berriak ikur nagusi. Baina eztabaida askorako ere eman du terminoak, gobernuei onartzen edo ukatzen zaien izaera ezkertiarraren arabera. Janaina Strozake brasildarra da, Lurrik Gabekoen Mugimenduko (MST) militantea 1984tik. Urteak daramatza Kantabrian (Espainiako Estatua) bizitzen, baina 2008tik Euskal Herriarekin lotura estua garatu du elikadura burujabetzaren eta MSTren inguruko ekimen ugari tarteko. Bere ustetan, ziklo aurrerakoia kapitalaren hegemonia historikoan "anomalia garaia" izan zen, langilegoaren garaipen batzuekin eskubideen arloan. "Onenean Ongizate Estatu eredura hurbil zitekeen, baina urrun xamar geratu zen. Garaipen horien oinarria langile klasearen eta burgesia nazionalen arteko akordioak izan ziren. Hortik arau kapitalistetatik kanpo eraikitzeko mugak". Txefi Roco Sanfilippo argentinarra da. Unibertsitatean mugimendu piketeroarekin loturiko talde batean aritu zen. Hamaika urte daramatza Bilbon bizitzen, Joxemi Zumalabe fundazioan edo *Trabajadoras no Domesticadas* kolektiboei denbora eskaintzen, besteak beste. Hizkera ezkertiarra baina oso bestelako praktikak garatu dituzten gobernuak izan direla dio, baina une interesgarria sortu zela: "Ortzi muga ezberdina begiztatzen genuen, beste une batzuetan pentsaezinak ziren gauzak egiteko aukera. Olatu baten antzekoa izan zen, ezkerrek Gobernuen kudeaketa eskuratuz. Aurretik herri protesten olatua izan zen, gobernu berrientzako aukerak zabaldu zituzten horiek".

Definizio batean edo bestean esperientzia guztiak berdintzea errealitatea faltsutzea litzateke, ordea. Aniztasuna handia da. Luismi Huarte Pozas Gizarte Antropologiako irakaslea da EHUn, eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea. Bere ikerketa lerro nagusia Abya Yalako prozesuen azterketa izan da azken hamabost urteetan, eta Paraguain, Bolivian eta Venezuelan bizi izan da sei urtez. Gobernuei dagokienez, Huartek "gorri eta arrosen" artean bereizten du. Gorriak gobernu ezkertiarrenak lirateke, Venezuela eta Boliviakoak: "Teorian behintzat bazuten oligarkiari aurre egiteko eta kapitalismoa atzean uzteko asmoa". Arrosak, gehiengoak, helburu erreformistagoak zituzten, hala nola: "Cristina Fernandezek Argentinarako eskatu zuen 'kapitalismo serioa', edo Lula da Silvak brasildarrei proposaturiko 'klaseen arteko kontziliazioa'".

ZIKLO AURRERAKOIA: AMAITUA EDO DISPUTAN?

Abya Yalak eskuinera egin du indarrez hamarkada honetako bigarren erditik aurrera. Ziklo aurrerakoia amaitutzat eman eta ziklo kontserbadorea zabaldu dela esaten dute batzuek; ziklo berria disputan dagoela beste askok. Txefi Rocoren ustez, "argi dago eskuinak posizio asko irabazi dituela. Esparru instituzionalean gobernu asko hartuta, zein jendartean nagusitzen diren diskurtsoei dagokionez ere".

Mikel Moreno Calzada bilbotarrak sei urte daramatza Caracasen bizitzen. Euskal Herrian gazte mugimendu independentistan edo presoen aldekoan aritua da. Venezuelan Pakito Arriaran Fundazioan militatzen du, eta herrialdeko erakundeekin zein herri mugimenduekin du harremana. Calzadak bat egiten du zikloa disputan dagoela diotenekin: eskuineko gobernu askoren egonkortasuna txikia delako; Venezuela, Bolivia edo Kuba zutik dirautelako; ezkertiarra izan gabe ere Mexikon Lopez Obradorrek irabazteak garrantzi geopolitiko handia duelako. Luismi Huarte ere iritzi berekoa da.

Dikotomia sinplistak eta "txuri edo beltz" begiradak ekiditearen garrantzia azpimarratzen digute hainbat aldiz hizlariek. Herrialde bakoitzaren errealitatea oso ezberdina delako, errealitate bakoitzak konplexutasun, aniztasun eta kontraesan asko barne biltzen dituelako. Nor bere posizio eta errazkerietan gotortzeak ez digulako lagunduko eraldaketaren erremintak zorrozten.



JANAINA STROZAKE

Brasildarra, Lurrik Gabekoen Mugimenduko (MST) militantea 1984tik. Kantabrian bizi da baina Euskal Herriarekin lotura estua du.



TXEFI ROCO SANFILIPPO

Argentinarra, hamaika urte daramatza Bilbon bizitzen. Jaioterriko zein Euskal Herriko herri mugimendu ugaritan militatu du.



LUISMI HUARTE POZAS

Iruindarra, EHUko irakaslea. Hego Amerikan bizi izan zen urteetan, eta hango prozesu aurrerakoiak aztertzen dihardu aspalditik.



MIKEL MORENO CALZADA

Bilbotarra. Sei urte dira Caracasen bizi dela. Hainbat herri mugimendutan militatu du Euskal Herrian zein Venezuelan.

HERRI MUGIMENDUEN EGINAK ETA EZINAK

Herri mugimenduak erakundeen eta gobernuen aurka edo aparte borrokatzera daude ohituak, kaletik eta kaleari begira. Are gehiago erakundeak eta gobernuak estatu mailakoak direnean, beren aurkarien edo etsaien eskuetan egoten baitira ia beti. Ezkerra gobernura heltzen denean galdera eta eztabaida, arrisku eta aukera berriak sortzen dira. Strozake, Roco, Huarte zein Morenoren ustetan, ziklo aurrerakoian herri mugimenduen ekarpen nagusietarikoa agenda erradikala mantentzea edo mahai gaineratzea da. Kapitalismoa, patriarkatua, demokrazia ordezkatzailea gaindituko duten proposamenak eta praktikak garatzea. Baina Abya Yalako mugimenduek jarrera anitzak agertu dituzte gobernu aurrerakoien testuinguruan.

Huartek hiru jokamolde nagusi identifikatzen ditu: "Batetik, gobernuen menpe jarri eta autonomia galdu dutenak; bestetik, agenda iraultzaileari tinko eutsi diotenak, baina oso kritikoak izanik ere gobernuak babestuz aldi berean; azkenik, taktika eta estrategia nahastuz gobernua etsaitzat hartu dutenak, nahiz eta agian planteamendu teorikoetan arrazoia izan". Herrialde gehienetako mugimendu indartsuenak lehen eta bigarren jarreraren artean mugitu izan direla dio.

Rocok testuinguru berrian erakundeen itzalera hurbiltzeak dakartzan arriskuak bizi zan ditu Argentinan: "instituzionalizazioa, oso mingarriak izan diren kooptazio prozesuak, mugimenduen zatitzea eta indargabetzea". Baina urruntze erabatekoari ahuleziak ere ikusten dizkio: "Mugimendu autonomistek ekarpen teoriko eta praktiko oso interesgarriak egin dituzte, begira zapatismoa. Baina zenbait testuinguruetan, hiritarrak adibidez, jarrera erabat autonomoak eta autogestionatuak sabaia jartzen dizu gaitasunei dagokionez".

Brasilen, Langileen Alderdiaren (PT) gobernu garaian mugimendu batzuk borrokan mantendu ziren eta beste batzuk ez, Strozakeren esanetan. Sindikatuak gobernura gehiegi hurbildu zirela uste du, oinarriak ahaztuz. Aldiz, MSTk autonomia mantendu zuela dio, eguneroko bizitza hobetzeko lorpenak eskuratuz baina helburu estrategikoak galdu gabe. Instituzionalizazioaren arriskua mugimendu bakoitzaren indarraren eta formazio politikoaren araberakoa dela argudiatzen du, historiaren eta kapitalismoaren ezagutza gakoak direla hori ekiditeko.

Ziklo aurrerakoian mugimenduen gaitasunak handitu zein txikitu egin dira. Non jarri arreta, hor dago gakoa

Venezuelan herri mugimenduetako kide asko erakundeetan eta gobernuan zuzenean sartu dira, Morenok dioenez: Militanteak herri mugimenduetatik atera eta lan institucionalera jarri dira; ardura karguetan, ministerioetan-eta". Lorpenetik eta akats larritik, bietatik duela uste du bilbotarrak. "Herri mugimenduen aldarrikapen batzuk aintzat hartu dira, kasu batzuetan gobernuak helburu propio gisa ere hartu ditu". Aldi berean, ordea, aldarrikapen horiek praktikara eramateko giharra galdu da herri mugimendua ahuldu egin delako. Beste herrialdeetan ere eman da militanteen leku aldatze hori, herri mugimenduetatik erakundeen gestiora. Baita mugimenduen ahultzea ere, ondorioz.

Ziklo aurrerakoian mugimenduen gaitasunak handitu zein txikitu egin dira, hortaz. Non jarri arreta, hor dago gakoa. Handitu, zenbait politika publikok eragiteko baldintza aproposagoak sortu dituztelako edo baliabide gehiago izan dituztelako. Gaitasunak gutxitu, "lagunak" gobernuan egotean presioa egiteko zailtasunak izan dituztelako, edo ipar iraultzaileak eta autonomia galdu direlako. Elkarrizketatuak entzun ostean, dena den, oro har gaitasunek behera egin dutenaren sentsazioa gailentzen da.

GOBERNUEN EGINAK ETA EZINAK

Hizlariek antzeko frekuentzian hitz egiten dute gobernu aurrerakoien politiken alde positiboak eta negatiboak aletzean. Lorpenen artean: baztertuen duintasuna berreskuratzea; aberastasunaren birbanaketa politikak; pobreziaren gutxitze nabarmena, batez ere muturrekoa; hezkuntzarako sarbidea zabaltzea edo alfabetatzea orokortzea; neoliberalismo garaietan pribatizatutako zenbait sektore eta enpresaren birnazionalizazioa; Abya Yalako herrialdeen arteko aliantzak eta artikulazioa AEBen inperialismoari mugak jarriz.

Gabezien artean, nagusiena kapitalismoaren ondorio makurrenak leuntzetik harago ez joatea litzateke. Produkzio modu kapitalista ez da auzitan jarri, eta eredu estraktibista mantendu ez ezik sakondu ere eginda zenbait herrialdetan. Rocok eskuineko gobernuen ohiko praktika asko errepikatu dituztela nabarmendu du: autoritarismoa, sektore erlijiosoei emaniko boterea edo genero politikak, ustelkeria edo bortxa polizialaren jarraipena. Strozakeren ustez go-

Alegiako Udala
euskararekin bat!
Alegiako Udala
Enparantza nagusia z/g - 20260 Alegia - 943 65 10 87 - www.alegia.eus



Venezuelako presidente Hugo Chávez AEBetako presidente Barack Obamari Eduardo Galeanoren *Las venas abiertas de América Latina* liburua oparitzen, 2009an. Aurrekoek bezala, Obamaren gobernuak ere inperialismoa praktikatu eta ageriko zein ezkutuko estatu kolpeak sustatu zituen.

bernatzearen potentzialitate handienetako bat da herritarren antolaketa eta politizazioa sustatzea, baina ez da egin.

Luismi Huartek dio kapitalismoaren eredu neoliberala gainditzeaz harago ez joatearen zergati nagusia ez dela ezina, baizik eta nahi eza. Venezuelan bai, egon dela saiakera, baina salbuespena dela. Strozakee bat dator: "Gaur egun estatu burgesaren barnean gobernatzea ez da bide iraultzailea, kapitalaren indarra eta langilegoaren desantolaketa direla eta". "Neguko jauregia hartzeak ez du ezer bermatzen", dio Rocok. "Munstroa ezin da barrutik eraldatu, zer edo zer berria eraiki behar da", Morenok.

Kritika ugari badituzte ere, gobernuen lorpenak balioan jarri behar direla uste dute lauek. Baina ez dute uste nahikoa denik. Gobernatzean inposatzen diren murru praktiko zein mentalak apurtzeko, kanpotik eta beste paradigma batzuetatik ere aritu beharra azpimarratu dute. "Kanpotik eta herri mugimenduekin batera ez bada, ezin dira proiektuak erradikalizatu", dio Morenok Caracasetik.

HERRI MUGIMENDUEN ETA GOBERNU EZKERTIARREN ARTEKO HARREMANAK

Mamitsua bezain gatazkatsua da gaia. Mugimendu, pertsona eta tradizio politiko batzuk gobernuekin harremanik izatearen aurka agertzen dira. Alde agertzen direnen artean, aniztasuna handia izanik ere zenbait ideien inguruan adostasun zabala izan ohi da, besteak beste: herri mugimenduek autonomia mantendu behar dutela; gobernuarekiko kritikoak izan eta agenda propioari eutsi behar diotela; gobernuek autonomia eta kritikotasun horiek errespetatu behar dituztela, eta entzuten jakin; adostasun zein desadostasunak eztabaidatu eta konpartitzeko esparru eraikitzaileak sortu beharra dagoela. Bestelako kontua da printzipio orokor horiek eta beste batzuk interpretatu eta praktikatzeko moduak bat etortzen diren.

Praktika teoria baino konplexuagoa eta gatazkatsuagoa izan ohi da. Huarteren ustetan herri mugimenduen eta gobernuen arteko harreman horizontalak ezinezkoak dira, botere asimetria dela eta. Bakoitzaren gaitasunen arabera bertikaltasun maila handiago edo txikiagoa

ANTZUOLAKO UDALA
Herriko plaza 8
20577 Antzuola
Tel.: 943 766 246
Faxa: 943 787 100
udala@antzuola.eus
www.antzuola.com

ANTZUOLA eta BERGARAko udaletan euskaraz lanean

Udal barruko eta kanpoko harremanak euskaraz bideratzea da gure helburua

Bergarako Udala
San Martin Agirre Plaza
20570 Bergara
Tel.: 943 779 100
euskara@bergara.eus
www.bergara.eus



Brasilgo presidente Luiz Inácio Lula da Silva Lurrik Gabeko Nekazarien (MST) mugimenduko militanteen artean. Herri mugimenduen eta gobernu aurrerakoien arteko harremanak ez dira errazak izaten.



Mexiko, zapatisten herri bat. Zapatismoa da, ziurrenik, praktika autonomo eta autozentratuen ahalen erakusgarri emankorrena.

izango da, edonola ere. Baina proiektu askatzaile batek ipar irault zailea galdu ez dezan herri mugimenduak ezinbestekotzat ditu. Hori dela eta, "zure helburu estrategikoetako bat gobernura heltzean herri boterea indartzea izan behar du", dio. Ordea, "prozesu gehienetan ez da errespetatu edo ulertu herri mugimenduen funtzio politikoa, kezkagarria oso, eta gobernuaren jarraitzaileak izatea eskatu zaie".

Strozakeren ustez, "hauteskundeak irabazteko lehiatzen den alderdi politikoaren eta herria irault zarako antolatzen duen mugimendu herritarraren artean ezberdintzea oso garrantzitsua da". Bi espazio horien artean harremana beharrezkoa da, baina ezin du erraza izan. Brasilen, MSTren eta PTko gobernuaren artekoa "ia inoiz ez zen izan harreman lasaia; pozak eta dezepzioak izan ziren". Rocok dio badaudela ministerioak kudeatzen ari diren mugimenduak, dekolonialitateaz, feminismoaz edo antikapitalismoaz hitz egiten dutenak. "Ikusi beharko da praktika noraino heltzen den, baina interesgarria iruditzen zait". Morenok ikusi du praktika horietan mugak agertzean gobernuetatik pazientzia gehiegi exijitzen dela batzuetan. "Jendeari esaten zaio ez dela unea, batasuna ezin dela apurtu... Noski, batasuna behar da, baina zeren inguruan?". Exijentziarekin batera, pazientzia aldarrikatzen du Rocok: "Ezkerrak gobernuetara heltzean zaila da. Jendeak berehalako aldaketak espero ditu, alde bietatik falta da pedagogia politiko apur bat".

Herri mugimenduak; gobernuak zuzentzen dituzten alderdiak: ziurrenik nork bere gaitasunak idealizatzeko joera biek dute, bereziki aurkakotasunak agertzerakoan. Gotortze jarrera dikotomikoak elikatzeko zaletasuna. Jendarte osoa hartuko duen irault za lortzetik nahiko urrun daude denak, ordea. Eta dikotomiek faltsutik asko dute beti. Logika instituzionala eta kapitalista edozein alderdik bezain barneratuagoa duten herri mugimendu asko dago—hierarkikoak, korporatibistak, botere zaleak, diru-laguntzen menpe bizi direnak...—; instituzioetan logika herrikoi eta askatzaileetan saiatzen diren pertsonak eta alderdiak ere badaude.

Horrek, ordea, ez du esan nahi lanerako logika eta espazio guztiek eraldake-





tarako potentzialitate berbera dutenik. Jauregitik kanpokoa beti izango jokaleku interesgarriagoa, ezeren berme ez bada ere. Posible al da jauregia, Estatua edo bere erakundeak boterea berreskuratzeko eta galtzeko erabiltzea aldi berean? Goitik lapurtutakoa berreskuratu eta zentralizatu —enpresek, nazioarteko egiturek, komunikabideek, inperioek lapurtua—. Berreskuratutakoa beherantz bideratu eta sakabanatu, herri mugimendu eta herritarren eskuetara bideratzen joan. Paternalismorik eta fiskalizazio autoritariorik gabe. Gai al lirateke mugimenduak eta herritarrak boterea jasotzeko logika institucionalak eta boterekeria erreproduzitu gabe? Venezuelako komunen saiakera bide horretan zijoan. Esperientziaren argi-itzalek beste erreportaje oso bat mereziko lukete.

"Boterea pilatzea oso ona da, bana zirkulatu behar du, deszentratu. Komunaren kudeaketa Estatutik harago", dio Rocok. Huartek erronka bikoitza ikusten du:"Abya Yalan zein Europan. Alderdiari zentralitate gutxiago eman, eta Estatua beste modu batez ulertu. Bi gako hainbat botere esparru kentzeko Estatuari eta Alderdiari".

ESKUINAK ZERTAN ASMATU DUEN, EZKERRAK ZERTAN HUTS EGIN

Zer egin du ondo eskuinak gobernuak eta eremu ideologikoa irabazteko ezkerrari? "Ez dio utzi herriarekin zubi komunikatiboak eraikitzeari, izan mediatikoak, izan komunitatea sortzen duten eliza ebanjelikoak", dio Strozakek. Rocok bi lorpen aitortzen dizkio eskuinari. Batu egin da, eta "kontsumoaren bitartez biztanleriak dominazioa barneratzea lortu du". Zer egin du txarto ezkerrak? Strozakeren ustetan oinarri-lana egiteari utzi zaio "iluminatutako abanguardien alde egin da, herriaren kudeaketa eta autoantolaketa bultzatu ordez; formazio politikoa, komunitateen eraikuntza...". Rocok dio Argentinan ezkerraren hausturen arrakaletatik sartu dela eskuina. Eta herrialde gehiagotan aipatzen den beste kontraesan bat mahai gaineratu du: "Ezkerrekin bizitza maila materialaren hazkundea egon da, kontsumo mailarena ere, eta galtzeko mehatxua dagoenean arazoak datoz". Izan ere, krisi ekonomiko garaian herritar horiek dira hautua ezkerretik eskuinera aldatu dutenak.

> "Iluminatutako abangoardien alde egin da, herriaren kudeaketa eta autoantolaketa bultzatu ordez"
>
> Janaina Strozake

EUSKAL HERRIRAKO IKASGAIRIK?

"Batzuetan Europatik Abya Yalako herri mugimenduen emaitzari begiratzen zaie, gustukoa da, baina borrokaren inspirazio eta energia iturriei gutxi begiratzen zaie", hausnartu du Strozakek. Marx eta marxismoa aldarrikatzen ditu MSTko militanteak, Europan bezala Euskal Herrian gutxietsia ikusten dituen eraldaketarako erremintak: "Postmodernismoaren garaipena ikusten da, zatitzea, ez da klaseez hitz egiten, 'sektore sozialak' dira denak. Aldi berean, feminismoaz edo zaintzaz gurean asko ikasi duela adierazi du. Helburuen garrantzia azpimarratu du: "Zeintzuk dira gure helburuak? Klaseetan banatutako jendarte batean gobernu izan? Edo jendarte berri bat eraiki? Helburuak argi izan ezean, erraza da Gobernu 'laguna' izatean dena lortutzat eman eta iparra galtzea. Espainiako Estatuko edo Euskal Herriko alderdirik erradikalenak gobernatzera heltzekotan, bere erradikaltasunetik zenbat bilakatuko da politika erreal estatu burgesaren mugen barnean? Beste galdera bat loratzen da Strozakek luzatutakotik: zenbatetan alboratu dute haien erradikaltasunaren muina ezkerreko alderdiek gobernatzeko lehian aukerak izateko? Zenbatetan egin dute igarobidea, nagusiki euren baloreak jendartean gehiengo bilakatu nahi izatetik, nagusiki jendartearen baloreen arabera eurenak moldatzera?

Abya Yalaren eta Euskal Herriaren arteko desberdintasunak asko badira ere, antzekotasunak "esparru subjek-

bagera
Donostiako Euskaltzaleen Elkartea
Hernani kalea 15, behea. 20004 Donostia
✆ 943 005 074 · bagera@bagera.eus
www.bagera.eus

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea
Andutzeta 15, 3.
31760 ETXALAR (NAFARROA)
✆ 948 635 254
bulegoa@bortziriakzabor.com
www.bortziriakzabor.com

aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala
EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN BIDEAN DOAZENEN AHOLKULARITZA
aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

tiboan" aurkitzen ditu Huartek. Ezkerraren indarra ematen duena baino apalagoa omen da: "Irabaz ditzakezu hauteskundeak, zure proiektua jendartean gehiengoa izatea beste gauza bat da". Eskuinaren hazkundean ikusten du parekotasuna Rocok, kezka azalduz: "Adi egon beharra dago: Estatu mailan aliantzak sortu behar dira".

Posible al da pausoz-pauso erreformak egitea erreformismoan erori gabe? Posible aldarrikapen eta praktika iraultzaileak denboran luzatzea eta herritarren artean hedatzea, autokontsumoan eta autokonplazentzian erosotu gabe?



Venezuela, El Maizal komuna. Estatua barrutik eraldatzea ezinezkoa zela iritzita, komunen aldeko apustu iraultzailea egin zuen Venezuelako Gobernuak, erakundetze paralelo bat helburu.

Morenok Venezuelako bizipenetik eta Euskal Herriari begira ateratzen duen ondorio nagusia orekaren beharra da: "Herri mugimendu potente batek gobernu baten norabidea markatu dezake. Beste interes batzuen mesedetan bere burua ahultzen badu, ordea, adibidez gobernua sendotzeko, munstroaren aurka borrokatzeko gaitasuna galtzen duzu. Barrutik bakarrik ezin da, kanpoa egon behar du". Huartek bi gako gehitzen dizkio horri: ezinbestekoak diren gizarte politika birbanatzaileetatik harago joan beharra dago ekonomian EHUko irakaslearen ustez, langileen kudeaketa autonomo edo partekatuen esperientziak aintzat hartuz, besteren artean; burujabetza nazionala berreskuratu behako litzateke, bestetik, eta aldi berean nazioz gaindiko aliantzak ehundu, Europar Batasunari alternatiba emateko.

Gauzatutako zein saiatutako estatu kolpe zuzen zein zeharkako ugarietatik beste irakaspen bat ere atera daiteke, ziurrenik: sistemaren barnean litekeenaren muga beti estuak are gehiago estutu dira azken urteetan. Ez diote gerra Venezuelari egin soilik; baita Lularen Brasili edo Cristina Fernandezen Argentinari ere. Hau da, klase kontziliazio proiektuak eta kapitalismoaren Ongizate Estatu bertsioa ere onartezinak dira egun.

Oreken eta uztartzeen beharra ondorioztatzen da Strozake, Huarte, Roco eta Morenoren hitzetatik. Begirada laburra eta luzea; erakundeen barneko jarduna eta kanpokoa; kritika, autokritika, adostezintasunak eta batasuna; utopia iraultzailea eta gaur eta hemen daitekeena: osagai bakoitza proportzio egokian nahastea ez da erronka erraza. Posible al da pausoz-pauso erreformak egitea erreformismoan erori gabe? Posible aldarrikapen eta praktika iraultzaileak denboran luzatzea eta herritarren artean hedatzea, autokontsumoan eta autokonplazentzian erosotu gabe? Gai izango da ezkerra, gobernuen kudeaketara inoiz heltzekotan, lortutako hori lorpen gehiagoren eta erradikalagoen aldi baterako kanpamentu-base bilakatzeko eta ez kanpamentu definitibo? ●




Irizar
Berrikuntza eta teknologia
herritarraren ongizaterako
Irizar ie tram
www.irizar.com

10 LIBURU-DENDA EUROPAR

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gehienetan ez dira turismo gidetan agertzen. Eta eskerrak. Baina kanpoko hiri batera joaten garenean bisitatzea merezi duten gauzen zerrendan, beti egon behar litzateke liburu-dendaren bat.

Hiri bati buruzko gauza asko jakin daitezke hango liburu-dendak bisitatuz. Memoriarako eta ahanzturarako tresnak dira liburuak Jorge Carriónek *Librerías* (Anagrama, 2013) saiakeran azaltzen duen moduan: kontainer batzuk, zeinetan iraultzen diren oroitzapenak, irudimenetik sorturiko gertakizunak, ideia distiratsu edo erdipurdikoak, inoiz sutsuki defendatutako argudioak, une historikoen narrazioak. Eta horietako bakoitza berpiztu egiten da irakurle berri baten begietatik pasatzen denean. Baina noizbehinkako bisitari horiek ez dira fidatzekoak, inoiz ezin da jakin haien gogoramenak zer gordeko duen, zenbat denboraz eta nola.

Asko desegin behar du memoriak zerbait oroitzera iristeko, kontinente osoak ahaztu behar ditu, Guillaume Apollinaireren hitzekin esateko. Geratzen dena beti da kondar sorta bat. Zatiak. Ahanztura handiari bizirauten dioten fragmentuak. Puska horietan arakatzeko lekuak dira liburu-dendak.

Haietan zibilizazioaren trapuak eros ditzakezu, liburu-denda bakoitzak mundua kondentsatzen duela baitio Carriónek: "Ez da aire-bide bat, apalen arteko pasillo bat baizik, zure herria eta bertako hizkuntzak lotzen dituena beste hizkuntzak hitz egiten diren erregio zabalekin. Ez da nazioarteko muga bat gurutzatu behar, pasabide bat baizik –pasabide bat besterik ez–, topografiaz aldatzeko, eta beraz toponimiaz, eta beraz denboraz: 1976an editatutako liburuki baten ondoan aurkitzen da atzo argitaratutako bat, iritsi berria dena eta oraindik lignina usaina daukana (zeina banillaren senidea den); historiaurreko migrazioei buruzko monografia baten ondoan bizi da XXI. mendeko megalopoliei buruzko ikerketa; Camusen obra osoaren ondoren aurkitzen duzu Cervantesena".

Baina munduak ere, bistan denez, barnebiltzen ditu liburu-denda guztiak. Eta haien historia ez da izaten, gehienetan, liburutegi publikoena bezain lineala, iraunkorra eta segurua. Ekaitza dabilenean –gerrak, krisi ekonomikoak, erregimen autoritarioak– errazago kraskatzen diren ontziak dira.

Baina liburu-dendak dira kontrol ofizialak estuegiak direnean irakurgai debekatuen kontrabandorako lekua ere –Euskal Herrian badakigu zerbait horretaz–. Idazleen eta irakurleen arteko topalekuak, kontenplazio isil eta lasairako guneak, tituluen, azalen eta kontrazalen artean esploratzaile bihur gaitezkeen paperezko basoak. Paisaia hori ordenatzeko moduaren arabera jakin dezakezu zer ideia dauzkaten buruan komertzio mota berezi horren lema daramatenek. "Hau dena aldatu nahi genuke" irakur daiteke nire liburu-denda gogokoenetako baten atarian.

Liburu saltzailea bide-erakuslea ere bada, obra batetik besterako zubigile, laharrak janda zegoen zidorraren garbitzaile. "Hau irakurtzea inportantea da" esango dizu, irakurle gisa dauzkazun aukerak *best-seller*-etatik eta urteko *hype* literarioetatik urrutirago eramanez. "Hau" inportante hori izan daiteke kontzientzia kolektiboari eragiten dion zerbait ere: gizarteen iraganeko zauriek utzitako orbanak aurki ditzakezu liburu-dendetako apaletan.

Abuztuan ere, liburu-denda batean asko dago egiteko. Bidaiatzea zerbait izango bada turismo hutsetik harago, bidaiatzeari eskatzen badiogu desplazamendu fisikoa eta kontsumoa baino zerbait gehiago, bidaiatuz landu nahi badugu pertsona egiten gaituen zera hori sakonxeago, komeni da joaten garen lekuetako liburu-dendetan sartzea. Ondorengo orrialdeetan, kontinente zaharretik irten gabe bisita ditzakezun hamar proposamen aurkituko dituzu.

Teknologia aurreratuen garapena

Komunikazio eta antolaketarako tresnak

Bideragarritasun eta bizigarritasun bide-orriak

Antolaketa kooperatiboa

Eraldaketarako estrategiak

Ekonomia eraldatzaileen sustapena

Zurekin sortzen dugu!

Talaios Koop.

Eraldaketa eta kooperatibagintzan bidelagun

talaios.coop

kontaktua@talaios.coop - 943 013 297



Foyles

107 CHARING CROSS ROAD, LONDRES (ERRESUMA BATUA)

1 Hasteko, ikono bat. Foyles Londreseko liburu-denda famatuenetakoa da, tamaina ere halakoa baitu: liburu-dendako apalategi guztiak batuta 6,5 kilometro luze omen dira, saltokiaren webguneak harrotasunez aldarrikatzen duenez. 200.000 titulu desberdin. 1903tik martxan. Mende luze honetan liburu-dendak nagusi bitxiak izan ditu, besteak beste Christina Foyle, zeinak 1945etik 1999ra negozioa eraman zuen bitartean kutxako langileei kalkulagailuak eta kutxa erregistratzaileak erabiltzea debekatu zien. Ideia hobeak ere izan zituen, zorionez, besteak beste dendan egiten diren otordu literarioak. T.S. Eliot, George Bernard Shaw edo John Lennon bezalako ilustreak pasa ziren bertatik, mila idazle baino gehiago guztira.

Mollat

15 RUE VITAL CARLES, BORDELE (FRANTZIAKO ESTATUA)

2 Frantziako Estatuko lehen liburu-denda ez dago Parisen, Bordelen baizik. Eta Euskal Herritik hain gertu dago, krimena litzatekeela liburu denda hau ez aipatzea. 2.500 metro koadro: liburuz betetako labirinto bat da Mollat eta zaila da behin sartuta irteten asmatzea. Eskerrak ondo antolatuta dagoen, hamabost espaziotan saiakera filosofikoetatik nobela beltzeraino era guztietako liburuak eskainiz, baita musika zaleentzat gordetako parte bat ere. 1896an Albert Mollatek sortua, geroztik haren oinordekoek kudeatu dute gaur egun arte. Gainera, Montesquieuren azken etxea izan zen eraikinean kokatuta dago. Ea nork gainditzen duen hori.





Ler Devagar

R. RODRIGUES DE FARIA 103, LISBOA (PORTUGAL)

3 Tradizio handiko liburu-dendekin batera, proiektu berrixeagoak ere aipatu nahi ditugu ranking honetan. Lisboako LX Factory merkatalgune *hipster*-ean dagoen Ler Devagar liburu-denda da horietako bat: 20 urte bete ditu aurten inprimategi bat zegoen pabilioian laketu den egitasmo honek. Eta liburu-denda dagoen lekuan aurretik zer zegoen ez ahazteko, liburuz beteriko apalen artean makina astunak aurkituko ditu bisitariak. Agenda kultural bizia dauka liburu-dendak gainera, izan ere, esan daiteke "liburu-denda baino gehiago den liburu-denda"-ren kontzeptua martxan jartzen aitzindari izan zirela 1999 aldean. Haren lau solairuetan barrena ibili ondoren joateko ordua iristen denean, *saudade* ikaragarri batek hartzen du bisitaria.



Acqua Alta

CALLE LUNGA SANTA MARIA FORMOSA 5176B, VENEZIA (ITALIA)

4 Liburuak objektu delikatuak dira. Oso elkarbizitza txarra izaten dute, adibidez, urarekin –dutxatu bitartean irakurtzen saiatu den orok dakien moduan–. Zer egin, beraz, urez inguratutako leku batean liburuak saldu nahi izanez gero? Acqua Altak azkar aurkitu zuen erremedioa: jarri liburuak flotatzen duten gauzen gainean. Dendan eros daitezkeen zenbait obra literario gondola baten barruan daude. Zoritxarrez, azken informazioek diotenaren arabera, Veneziaren hiper-turistifikazioaren erruz dendara sartzea bera ere balentria ikaragarria bihurtu da gaur egun. Pazientzia beraz: kapitalismoak dirua egiteko beste formularen bat aurkitzean bisitatu ahalko dugu lasai Acqua Alta.

Boekhandel Dominicanen

DOMINICANERKERKSTRAAT 1, MAASTRICHT (HERBEHEREAK)

5 Gogoratzen Umberto Ecoren *Arrosaren izena*-ko monasterioan zegoen liburutegi handi hura? Ba, antzeko esperientzia proposatzen du Maastrichteko XIII. mendeko eliza dominikar batean martxan jarri zuten liburu-denda honek –tira, antzekoa, baina hain amaiera dramatikorik gabe–. 2006an hainbat liburu saltzailek bat egin zuten proiektua abian jartzeko eta duela bost urte, egoera ekonomikoak behartuta, liburu-denda independente bihurtu zen. Ia 900 metro koadroko eraikin hau ez da sail honetan nabarmenduko dugun handiena, baina altuerak ere badu bere inportantzia eta, alde horretatik garbi dago abantaila handiarekin jokatzen duela: zerua ikus daiteke denda honetatik.





Leakey's

CHURCH STREET, IVERNESS (ESKOZIA)

6 Bigarren eskuko liburuen zale? Zerbait benetan bitxia bilatzen duzu liburu-denda batera sartzen zarenean? Orduan Leakey's da zure lekua: Ivernessen kokatua, Eskoziako *Highlands*en hiriburuan, erabilitako liburuetan espezializatutako denda honek aukeratutako 100.000 titulu baino gehiago eskaintzen ditu, 1979an negozioa martxan jarri zutenetik inguruko eskualdeetan erosiak. Akaso abuztua ez da hilabeterik aproposena liburu-dendaren beste puntu erakargarriaz gozatzeko: denda osoa su-egurrarekin berotzen duen tximinia. Baina tira, Eskozian ere, hemen bezala, inoiz ez da jakiten noiz freskatuko duen.



Liburuen etxea

28 NEVSKY PROSPECT, SAN PETERSBURGO (ERRUSIA)

7 Liburu-kontuetan epel samarrak direnen pasioak pizteko moduko historia dauka San Petersburgoko Liburuen Etxeak. Singer josteko makinen bulegoak izateko eraiki zuten 1904an –hortik eraikinaren *art nouveau* estiloa– baina XX. mendeko turbulentziek bete-betean harrapatu zuten: 1917ko urriko iraultzaileek bihurtu zuten Liburuen Etxea. Hasieran estatuaren argitaletxe berrien egoitza bihurtu zen. 1938tik aurrera berriz, Sobiet Batasuneko liburu-dendarik handiena ere bertan ireki zuten eta funtzio hori betetzen zuen naziek hiria setiatu zutenean. Erresistentzia modu askotara plantea daiteke eta liburu-denda honen hautua funtzionatzen jarraitzea izan zen, gauza jakina baita liburuak baino makina hoberik ez dagoela faxistak akabatzeko.

Carturesti Carusel

STRADA LIPSCANI 55, BUKAREST (ERRUMANIA)

8 Txakur batek ume bati hozka egitea ez omen da albiste; albistea, izatekotan, ume batek txakurrari hozka egitea da. Hala esplikatzen ziguten kazetaritza fakultatean. Bada, Bukaresteko Carturesti Caruselekin badago notizia, izan ere, liburu-denda izandako lokalean banku baten sukurtsala irekitzea ez litzateke harritzekoa izango albisteak irakurtzen dituztenentzat. Baina banku baten egoitza izandako eraikinean liburu-denda bat irekitzea bai, bada. XX. mende hasierako edifizioa amiltzen utzi zuten XXI. mendeko bigarren hamarkada honetara iritsi arte. 2015ean ireki zituen ateak egun Bukaresteko liburu-denda famatuena denak. Bisitariek eraikin osoan barreiatzen den argi naturalari esker begiratu ditzakete hango apaletan dauden liburuak.





Librairie Josseaume

45-46-47 GALERIE VIVIENNE, PARIS (FRANTZIAKO ESTATUA)

9 Tira, ezin genuen Paris menuan sartu gabe utzi. Topikoegiak izango gara beharbada. Baina gutxienez, ez dugu enegarren aldiz kontatuko Shakespeare & Co. liburu-dendaren historia, nola James Joycek ez zuen *Ulises* publikatzeko argitaletxerik aurkitzen eta azkenean Parisko denda horrek tar, tar, tar. Horren ordez, historia handiko Josseaume liburu-denda ekarriko dugu lerro hauetara, pixka bat ezkutuago baitago, Vivienne galeriak aurkitzea oso-oso zaila ere ez den arren. 1826tik dago martxan liburu-denda hau eta denetik dauka: liburu zahar eta berriak, bitxikeriak, desagertuak ziruditen argitalpenak... Dena. Den-dena. Eta beste garai batera bidaiatu duzula pentsarazten dizun inguru batean.



Begerel (herria)

BRETAINIA

10 Hiriguneetan kokatutako liburu-denda handiak aipatu ditugu nagusiki orrialde hauetan. Eta landa-eremua? Metropolietatik kanpo ez al da ba irakurtzen? Egiazki, tragedia bat da gertatzen ari dena, kasik hirietako biztanleen pribilegio bihurtu baitira liburuak saltzen dituzten komertzioak. Baina Bretainiako herri txiki batek eutsi egiten dio orain eta beti logika horri, "liburuen herri" bihurtuta. Adi datuari: 673 biztanle ditu Begerelek eta hamabost liburu-denda dauzka. Ez pentsa, bertakoek asko leituta ere zaila litzateke denak mantentzea. Kontua da, liburuaren aldeko apustu hori ingurunearen biziberritze ekonomikorako estrategiaren parte dela. Ideia interesgarria. Nahi genuke gure landa-eremuan ere antzekorik.

Lezoko Unibertsitateko Udala

Gurutze Santuaren Plaza, 1
20100 Lezo
T. 943 52 46 50 **E.** info@lezo.eus
www.lezo.eus

EUSKARA
etorkizunaren gako

Argiak 100 urte

errenteria.eus

HERRI BIZIA
etorkizunaren bidean



Errenteria
ADN
kreaktiboa
Izan herriaren eraldaketaren parte

Errenteriako Udala



EUSKARA, bihotzetik ezpainetara





Buruarekin egiten ditugun aukerak omen dira
onenak, beti ez izan arren erosoenak.
Baina badakizu... azkenean, bihotzak arrazoi.
Egin kasu zeure bihotzari... eta zeure buruari.
Euskara, bihotzetik ezpainetara

EUSKARALDIA

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MUGIKORRA BADUZU, TXARTELA DUZU

Berritzea aitzakia hauek ahaztea da: «ordaindu zuk, diru-zorroa etxean utzi baitut» eta «ezin dut dirurik atera, txartela ahaztu dut eta». Izan ere, LABORAL Kutxari esker, **mugikorrarekin ordaindu ahal izango duzu zauden lekuan zaudela eta dirua txartelik gabe atera ahal izango duzu gure edozein kutxazainetan.** Erraz, azkar eta seguru, txartelarekin bezalaxe.

Deskargatu LK Pay* appa edo erabili Apple Pay**

LK Pay

Geure burua berrasmatzea, oraindik hurbilago egoteko.





LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

*Android 4.4 edo hortik gorako bertsioa eta NFC teknologia duten gailuekin soilik erabil daiteke Mugikor bidezko Ordainketa.

**Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone XS, iPhone XS Max, iPhone X, iPhone 8, iPhone 8 Plus, iPhone 7, iPhone 7 Plus, iPhone 6s, iPhone 6s Plus, iPhone 6, iPhone 6 Plus, iPhone SE, iPad (6. belaunaldia), iPad Pro, iPad (5. belaunaldia), iPad Air 2, iPad mini 4, iPad mini 3, Apple Watch Series 4, Apple Watch Series 3, Apple Watch Series 2, Apple Watch Series 1, Apple Watch (1. belaunaldia), Touch ID duten Mac modeloak eta 2012an edo geroago merkaturatutako Mac modeloak, baldin eta iPhonea edo Apple Watch gaituta badaude Apple Pay erabiltzeko. Face ID duen Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone X eta ondorengoak.